



2

ARABA ERDIALDEKO ESKUALDE EGUTIRAKO LURRALDEAREN ZATIKO PLANAREN ANTOLAMENDU ARAUAK

Behin Betiko Onespenaren Testua

2004ko abendua



Araba Erdialdeko Lurraldearen Zatiko Planaren Antolamendu Arauak lau titulutan egituratzen dira:

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

Planaren indarraldia, dagozkion tresnen edukia eta hedadura definitzen dituen prozedurazko Araudia biltzen du.

II. TITULUA

ERREGULAZIO OROKORRA

Araba Erdialdeko lurralde osoan aplikatzeko diren determinazio orokor batzuk dira.

III. TITULUA

EKINTZA EGITURATZAILEEN FITXAK

Planak azpiegiturei eta paisaia eta ingurumenari dagozkien arloko esku-hartzeen proposamenei buruz egiten dituen determinazio bereziak dira.

IV. TITULUA

ERAGIKETA ESTRATEGIKOEN FITXAK

Dagokion erabaki-esparruan lurraldeko esku-hartze integratuen proposamenei buruz Planak egiten dituen determinazio bereziak dira.



Aurkibidea

I. TITULUA: Xedapen Orokorrak 5

I. KAPITULUA: PLANAREN IZAERA, EDUKIAK ETA HEDADURA

1. artikulua.- Helburua.
2. artikulua.- Aplikazio-esparrua.
3. artikulua.- Indarraldia eta indargabetzea.
4. artikulua.- Aldatzea eta berraztertzea.
5. artikulua.- Dokumentu-edukia eta interpretazioa.
6. artikulua.- Planaren izaera loteslea.
7. artikulua.- Hiri-plangintzarekiko eta lurraldearen arloko plangintzarekiko lotura.
8. artikulua.- Planaren determinazioetara egokitzea.

II. KAPITULUA: LURRALDEAREN EGITURA

9. artikulua.- Definizioa.
10. artikulua.- 1. planoaren lotura-maila.

III. KAPITULUA: LURRALDEAREN GOBERNUA

11. artikulua.- Lurraldearen gobernurako tresnak.
12. artikulua.- Lurralde-zatiak.
13. artikulua.- Prozesuak.
14. artikulua.- Lurraldea transformatzeko prozesua.
15. artikulua.- Lurraldea babesteko prozesua.
16. artikulua.- Lurraldea birkualifikatzeko prozesua.
17. artikulua.- Baliabideak erreserbatzeko prozesua.
18. artikulua.- Erregulazio orokorra.
19. artikulua.- 2. planoaren lotura-maila.
20. artikulua.- 3. planoaren lotura-maila.

IV. KAPITULUA: ESKU HARTZEKO MODUAK

21. artikulua.- Lurraldean esku hartzeko moduak.
22. artikulua.- Ekintza Egituratzailen definizioa eta lotura-maila.
23. artikulua.- Ekintza Egituratzailak garatzeko subjektuak.
24. artikulua.- Eragiketa Estrategikoen definizioa eta lotura-maila.
25. artikulua.- Eragiketa Estrategikoen edukia.
26. artikulua.- Eragiketa Estrategikoak hiri-plangintzan gehitzea.



- 27. artikulua.- Eragiketa Estrategikoen kudeaketa.
- 28. artikulua.- 4. planoaren lotura-maila.
- 29. artikulua.- Ekintza Egituratzailen fitxen edukia.
- 30. artikulua.- Eragiketa Estrategikoen fitxen edukia.

V. KAPITULUA: EGOITZA LURZORU BERRIAREN KUANTIFIKAZIOA

- 31. artikulua.- Egoitza-lurzoru berriaren kuantifikazioa.

VI. KAPITULUA: BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN ERAIKUNTZARAKO, LURZORU INDUSTRIALEN SUSTAPEN PUBLIKORAKO ETA BIGARREN EGOITZAKO ETXEBIZITZAK ERAIKITZEKO LURZORU ESKAINTZARAKO ERRESERBATU BEHAR DIREN LURZORU AZALERAK.

- 32. artikulua.- Babes ofizialeko etxebizitzetarako, lurzoru industrialen sustapen publikorako eta bigarren egoitzako etxebizitzetarako lurzoru-erreserba.

VII. KAPITULUA: LURRALDEAREN ZATIKO PLANAREN DETERMINAZIOAK UDAL PLANGINTZAN GEHITZEA.

- 33. artikulua.- Lurraldearen Zatiko Planaren determinazioak udal-plangintzan gehitzea.

VIII. KAPITULUA: ARLOKO ORGANISMOEN BURUTZAPEN / INBERTSIO EKINTZARAKO ARAU ERREGULATZAILEAK.

- 34. artikulua.- Planak, programak eta proiektuak egokitzea.
- 35. artikulua.- Lurralde-egitura burutzeko proiektuak.

IX. KAPITULUA: BURUTZAPEN PROGRAMAREN JARDUERA OINARRIAK.

- 36. artikulua.- Burutzapen Programaren jarduera-oinarriak.

II. TITULUA: ERREGULAZIO OROKORRA	22
III. TITULUA: EKINTZA EGITURATZAILIEN FITXAK.....	91
IV. TITULUA: ERAGIKETA ESTRATEGIKOEN FITXAK	111



I. TITULUA.

XEDAPEN OROKORRAK

I. KAPITULUA

PLANAREN IZAERA, EDUKIAK ETA HEDADURA

1. artikulua.- Helburua.

Araba Erdialdeko Lurraldearen Zatiko Plana, Lurralde Antolakuntzari buruzko uztailaren 3ko 4/1990 Legeak ezarritakoari jarraituz landu eta idatzitakoa, Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez onartutako Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak (LAA) garatu eta aplikatzean, Araba Erdialdeko Eskualde Egitura definitzen duen lurraldearen antolamendurako tresna da, hark mugatutakoa, eta eskualde-egiturako lurraldean eragina duten Hirigintza Planek nahiz Lurraldearen Arloko Planek eta Jarduerak men egin beharko diote.

2. artikulua.- Aplikazio-esparrua.

Planaren aplikazio-esparruak honako udalerri eta esparru guztiak hartzen ditu bere baitan:

Alegria-Dulantzi, Armiñon, Arraia-Maeztu, Arrazua-Ubarrundia, Asparrena, Barrundia, Berantevilla, Bernedo, Kanpezu, Zigoitia, Kuartango, Burgelu, Iruña Oka, Iruraiz-Gauna, Lagran, Lantaron, Legutiano, Otxandio, Peñacerrada-Urizaharra, Ribera Alta, Erribera Beitia, Añana, Agurain, Donemiliaga, Ubide, Urkabustaiz, Valdegovia, Harana, Vitoria-Gasteiz, Zalduondo, Zambrana eta Zuia. Horrez gain, Badaiaiko Brava mendilerroa, Entziako Partzuergoa eta Peñacerrada-Urizaharra, Lagran eta Lañoko komunitatea esparruak barne hartzen ditu.

3. artikulua.- Indarraldia eta indargabetzea.

1. "Araba Erdialdeko Eskualde Egiturako Lurraldearen Zatiko Planak" indarraldi mugagabea izango du.

2. Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 3. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzak, gai horretan eskumena duen sailburuak proposatuta eta Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak txostena egin eta Arabako eta Bizkaiko foru-aldundiei eta eskualde-egiturako udalei entzun ondoren, Lurraldearen Zatiko Plan hau indarririk gabe utzi eta berraztertzeke erabakia hartu ahal izango du.

3. Era berean, lurraldea antolatzeko eskumena duten Eusko Jaurlaritzako eta Araba eta Bizkaiko foru-aldundietako sailek memoria bat egingo dute lau urtez behin. Memoria horretan, determinazioen betetze-maila azalduko dute eta, hala badagokio, identifikatutako desorekak arintzeko edo zuzentzeko beharrezkoak diren

proposamenak adieraziko dituzte. Memoria Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeari igorriko diote, jakinaren gainean egon dadin.

4. artikulua.- Aldatzea eta berraztertzea.

1. Lurraldearen Zatiko Plan honen edukiaren aldaketa plana erabat berraztertuz edo bere osagaien bat edo batzuk aldatuz egin ahal izango da.

2. Lurraldearen Zatiko Plana berraztertzeko, Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 13. artikuluan plana formulatzeko, lantzeko eta onartzeko ezarritako prozedura berari jarraitu beharko zaio.

3. Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 14. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Lurraldearen Zatiko Plana orokorrean edo funtsean berraztertzen ez duten aldaketak Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen, Lurraldearen Zatiko Planen eta Lurraldearen Arloko Planen funtsezkoak ez diren aldaketak onartzeko prozedura arautzen duen irailaren 9ko 206/2003 Dekretuan aurreikusitako prozeduraren bidez egingo dira.

4. Lurraldearen Zatiko Plan honen ondorioetarako, beste lurralde-eredu bat hautatzeak edo antolamenduan funtsezko eragina duten gerora agertutako gorabehera demografikoek edo ekonomikoek edo planaren ahalmena agortzeak eraginda, lurraldearen egitura orokor eta organikoaren gaineko irizpide berriak hartzea jotzen da berrazterketatzat. Berrazterketak Lurraldearen Zatiko Plana ordezkatzeko ekar dezake berekin.

5. Legezketasunari buruzko arrazoiengatik zein aukera edo premiaren ondoriozko arrazoiengatik, Araba Erdialdeko Eskualde Egiturako Lurraldearen Zatiko Plana berraztertzeko har daitezkeen ekimenak edozein izanik ere, honako kasu hauetan ekingo zaio Plana berraztertzeari:

- a) Eskualde-egiturako biztanleriak plan honetan proiektatzen diren gehienezko aurreikuspenak %6 gainditzen dituen guztietan.
- b) Aurreikusitako etxebizitza berrien %75 eraikitzeko lizentziak eman diren unean.
- c) Jarduera ekonomiko berriak ezartzeko aurreikusitako lurzorua %75 baino gehiago okupatu den unean.
- d) Indarrean jarri denetik hamasei urte igaro direnean.
- e) Orokorrean, Lurraldearen Zatiko Planean biztanleriari, enplegu-dinamikari edo etxebizitzaren merkatuari buruzko oinarriko magnitudeei dagokienez, aintzat hartu diren hipotesiak gerora agertutako gorabeheren ondorioz aldatu direnean, eta, beraz, ezarritako antolamendu-irizpide orokorrak aldatu behar direnean.
- f) Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak aldatu edo berraztertu ondoren, lurralde-eredua aldatu behar denean eta horrek eskualde-egituran zuzeneko eragina izango duenean.
- g) Nolanahi ere den, Araba Erdialdeko Eskualde Egiturako Lurraldearen Zatiko Planaren indarraldiaren zortzigarren urtean, Plana berraztertzeko aukera aztertuko da.



5. artikulua.- Dokumentu-edukia eta interpretazioa.

1. Hona hemen Araba Erdialdeko Lurraldearen Zatiko Plana osatzen duten dokumentuak:

- a) Azterlana eta Informazio Planoak.
- b) Planaren Azalpen Memoria.
- c) Azterlan Ekonomiko-finantzarioa.
- d) Exekuzio Programa, lau urteko etapetan xehatua.
- e) Antolamendurako Planoak eta Arauak.

2. Eusko Jaurlaritzaren azaroaren 2ko 397/1999 Dekretuaren 2.1.o artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordearen eskuetan jartzen da "Araba Erdialdeko Eskualde Egiturako Lurraldearen Zatiko Planaren" determinazioak interpretatzeko ahalmena.

6. artikulua.- Planaren izaera loteslea.

1. Lurraldearen Zatiko Planean bildutako determinazioek izaera loteslea dute dagozkien hartzaileentzat.

Lurraldearen Zatiko Plan honek duen lotura antolamendurako eta espazioaren erabilerarako irizpideak ezarri adierazten da, baita Planak berak barneratzen dituen analisi eta balorazioekiko bateragarritzat jotzen ez diren irizpideak baztertuz edo besterik gabe jardunbideak gomendatuz ere, azkeneko kasu horretan jardunbide horietatik aldentzen den Administrazio eskuduna hartu duen erabakia eta gomendioa informatzen duten helburuekiko bateragarritasuna justifikatzera behartuz.

Arau hauek zuzenean eta beren osotasunean lotzen dituzte Administrazio Publikoak.

2. Lurraldearen Arloko Planari dagozkion Planoen banan-banako esku-hartze proposamenak zehazteko diren tresna operatiboen fitxek (Ekintza Egituratzaleak eta Eragiketa Estrategikoak) beren determinazioen eta haiekiko korrelatiboak direnen lotura-maila zehaztuko dute.
3. Memorian bildutako Planaren helburu, irizpide eta printzipioak Lurraldearen Arloko Plan guztien eta Hirigintzako Plan guztien nahitaezko erreferente izango dira, baita beren aplikazio-eremuan burutu eta garatuko diren Jarduera edo Proiektu guztiena ere.
4. Lurraldearen Zatiko Planak Udalei esku hartzeko egindako iradokizunak ez dira lotesleak.

7. artikulua.- Hiri-plangintzarekiko eta lurraldearen arloko plangintzarekiko lotura.

1. Lurraldearen Zatiko Planak dagozkion terminoetan lotzen ditu hirigintzako planak.



2. Planak, berari gehitutako Plangintzarekiko Eraginen Dokumentuaren bidez, orain dauden hirigintzako planak bera onartzen denetik aldatzen dituzten esku-hartzeko zehatzak zehazten ditu.
3. Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 17. artikulua araberako, Lurraldearen Zatiko Planak Euskal Autonomia Erkidegoko eta Araba eta Bizkaiko Foru Aldundietako organo eskudunek landu eta onartzen dituzten Lurraldearen Arloko Planak lotzen ditu.

Betiere Lurraldearen Zatiko Plana zuzentzeko aukera salbu geratzen da, bertan Arloko Plana lantzeko eskumena duen organoak aztertutako aukera edo soluziorik bertan kokatzea ezinezkoa izango denean eta bere edukia ohiz kanpoko interes orokorra duenean. Kasu horretan, organo horrek Lurraldearen Zatiko Plan honen ezinbesteko zuzenketak sartzeko proposatu ahal izango die Eusko Jaurlaritzari eta Araba eta/edo Bizkaiko Foru Aldundiei, Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legearen 17. artikulua eta 3. eta 4. Xedapen Gehigarriek Eusko Jaurlaritzari aintzatetsitako eskumenen kaltetan izan gabe.

4. Lurraldearen Zatiko Planak eskualde-egitura eraginpean hartzen duten Lurraldearen Arloko Planen zehaztapenetara igorriko du hauen eskumenekoak diren gaitan, betiere zehaztapen horiek Lurraldearen Antolamendurako Artezpideei erantzuten badiete eta Lurraldearen Zatiko Plan honen berariazko zehaztapenekin kontraesan ez badaude.
5. "Nekazaritzako administrazioek berariazko garapen-politikak zuzendu dizkieten Arabako Haranetako eta Arabako Mendialdeko eskualdeen ezaugarri bereziak kontuan hartuz (bakartze eta landatartze maila), bi eskualde horiei dagozkien Eskualdeetako Landa Garapeneko Planak (LGP) bereziki hartuko dira aintzat".

8. artikulua.- Planaren determinazioetara egokitzea.

1. Hirigintzako administrazio eskudunek aldeketa puntualak egiteko edo beren plangintza berraztertzekeko prozedurei hasiera emango diete, Lurraldearen Zatiko Planaren zehaztapen lotesleak gehitzeko beharrezkoak izango diren prozedurei, hain zuzen ere, eta hala badagokie, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura aplikatuko zaie, uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuan xedatutakoaren arabera.
2. Administrazio Publiko eskudunak Lurraldearen Zatiko Plan desberdinen eta hirigintzako plan desberdinen Memorian Araba Erdialdeko Lurraldearen Zatiko Planaren determinazioetarako egokitzapena justifikatzen dela ziurtatu beharko du.
3. Era berean, Administrazio Publiko eskudunak, plangintzarako dagokion tresnaren Memorian, honako hauek ziurtatzera behartuta egongo dira:
 - a) Lurraldearen Zatiko Plana nahitaez kontuan hartzea dagokion udalerraren hiri-plangintza onartu, aldatu, garatu edo aztertuko denean, Udal Plan Orokorrak edo Arau Subsidiarioek izango duten eragina eta eskainiko dituzten aukerak aintzat hartuz, baita lurraldearen ikuspegitik hirigintza-estrategia eratzeko ere.
 - b) Udalerririk mugakideetan indarrean dagoen plangintzaren egoera, informazio gisa bildua, kasu bakoitzean haren eta plangintza berriaren proposamenen artean



sor litezkeen diskordantzia arazoak, antolamendua bateragarri izateko hartutako soluzioak eta, hala badagokio, ondorio horretarako administrazioen artean izandako komunikazioak adieraziz.

II. KAPITULUA

LURRALDEAREN EGITURA

9. artikulua.- Definizioa.

1. Lurraldearen Egituratzat Araba Erdialdeko lurraldearen antolamendu funtzionala aurretiko existentzien eta Lurraldearen Zatiko Planak formulatutako proposamenen arabera definitzen duten elementu guztiak hartzen dira, hain zuzen ere 1. Planoan adierazitakoak.
2. Lurraldearen Egitura lau elementu-mota kontuan izanik definitzen da:
 - **Sareak:** lurraldearen konexio-elementuak biltzen ditu.
 - **Antolamenduak:** beren jarraitutasunean funtzioari eta espazioari dagokienez egitura-balioa hartzen duten erabilerak barne hartzen ditu.
 - **Espazioak:** multzoaren barruan gaitasun fokalizatzailea duten lurraldearen piezez osatuta dauden berariazko erabilerei lotutako eremuak adierazten dituzte.
 - **Hiri-sistema:** proposatutako hiri-hierarkizazioa biltzen du.

10. artikulua.- 1. planoaren lotura-maila.

1. Plan honetako "1. Lurraldearen Egitura" planoak eraginkortasun loteslea du.

Plano honek, kasu bakoitzean eta modu zehatz eta berariazko batean, azpiegituretako eta paisaia eta ingurumeneko ekintzen (Ekintza Egituratzailleak) erreferentzia izateko eta ekintza horiek justifikatzeko balio izango du ere, baita Lurraldearen Zatiko Planean espresuki bildutako lurralde-mailako hirigintzako jarduera integratuen (Eragiketa Estrategikoak) erreferentzi izateko eta jarduera horiek justifikatzeko ere.

2. Aipatutako Planoaren azalpenezko Memoria nahitaezko erreferente izango da Eskualde Egiturako lurralde-mailako beste edozein Proiektu edo Jarduera nahitaez justifikatzeko.

III. KAPITULUA

LURRALDEAREN GOBERNUA

11. artikulua.- *Lurraldearen gobernurako tresnak.*

Planak ondorengo hiru tresna hauen bidez erregulatzen du Lurraldearen Gobernurako ekintza:

- **Lurralde Zatiak.**
- **Prozesuak.**
- **Erregulazio Orokorra.**

12. artikulua.- *Lurralde-zatiak.*

1. **Zatitan** banatzearen helburua hauxe da, lurraldearen esparru desberdinek duten izaera bereizgarria agerian uztea eta ezartzea, baita bakoitzak Eskualde Egitura osoan betetzen duen zeregina ere.
2. Beren mugaketa lurraldearen esparruaren bokazio-unitatearen printzipioan oinarritzen da, udal muga administratiboak alde batera utzita.
3. Lurraldearen Zatiko Planak hamaika Lurralde Zati aintzatesten ditu, eta zati horietako bakoitzak, erabat edo partzialki, udalerrri bat baino gehiago barne hartzen ditu:
 - B-1** Arrazua-Ubarrundia, Asparrena, Barrundia, Burgelu, Legutiano, Otxandio, Agurain, Donemiliaga, Ubide, Vitoria-Gasteiz, Zalduondo eta Zigoitia.
 - B-2** Arrazua-Ubarrundia, Kuartango, Iruña Oka, Ribera Alta, Erribera Beitia, Urkabustaiz, Vitoria-Gasteiz, Zigoitia eta Zuia. Horrez gain, Badaiaiko Brava mendilerroa barne hartzen da.
 - B-3** Arrazua-Ubarrundia, Iruña Oka, Legutiano, Vitoria-Gasteiz eta Zigoitia.
 - C-3** Asparrena, Barrundia, Donemiliaga eta Zalduondo.
 - A-4** Añana, Lantaron, Ribera Alta eta Valdegovia.
 - B-5** Arrazua-Ubarrundia eta Vitoria-Gasteiz.
 - C-5** Alegria-Dulantzi, Arrazua-Ubarrundia, Asparrena, Barrundia, Burgelu, Iruraiz-Gauna, Agurain, Donemiliaga eta Vitoria-Gasteiz.
 - B-6** Alegria-Dulantzi, Burgelu, Iruña Oka, Iruraiz-Gauna, Agurain, Donemiliaga eta Vitoria-Gasteiz.
 - C-6** Arraia-Maeztu, Bernedo, Kanpezu eta Harana. Horrez gain, Entziako Partzuergoa barne hartzen da.



B-8 Armiñon, Berantevilla, Lantaron, Erribera Beitia eta Zambrana.

B-9 Berantevilla, Bernedo, Kanpezu, Lagran, Peñacerrada-Urizaharra eta Zambrana. Horrez gain, Peñacerrada-Urizaharra, Lagran eta Lañoko komunitatea barne hartzen da.

13. artikulua.- Prozesuak.

1. **Prozesuak** zehaztearen helburua hauxe da, lurraldearen esparru desberdinetan eragina izan dezakeen eboluzio-mota finkatzea.
2. Planak lau prozesu finkatu ditu, eta lurralde osoa dago prozesu horien eraginpean:
 - **Lurraldea transformatzeko prozesua.**
 - **Lurraldea babesteko prozesua.**
 - **Lurraldea birkualifikatzeko prozesua.**
 - **Baliabideak erreserbatzeko prozesua.**

14. artikulua.- Lurraldea transformatzeko prozesua.

1. **Lurraldea transformatzeko prozesuak** landa-lurzoruetatik batik bat hiri-lurzorueterako izaera-aldaketa onartzea eskatzen du, prozesu horrek urbanizazio jarraitu bihurtzea berekin ekarri gabe.
2. Lurralde osoan eragina izango duten jarduera estrategikoei harrera egiteko gai diren aukerako eremuetan aplikatzen da, Lurraldearen Egitura finkatuz, lurraldearen dinamizaziorako eragile gisa jardun ahal izateko.

15. artikulua.- Lurraldea babesteko prozesua.

1. **Lurraldea babesteko prozesuak** orain arte hirigintzako ekintzen eraginik jaso ez duten espazioak gaur egungo egoeran mantentzea eskatzen du; espazio horiek Lurraldearen Zatik Planak definitutako Lurraldearen Egituraren osagai diren heinean babesten dira.
2. Ditutzen kalitate handiengatik —topografikoak, naturalak, nekazaritza eta basokoak— bereizten diren espazioetan du eragina. Honako espazio hauek hartzen ditu eraginpean:
 - Naturgune Babestuen Sarearen baitan daudenak.
 - Beren balio naturalistikoagatik Natura 2000 Europako Sare Ekologikoan sartuta daudenak (Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak —BBE— eta Garrantzi Komunitarioko Lekuak —GKL—), nazioarteko garrantzia duten Ramsar hitzarmeneko inguru hezetzat jo direnak, edo Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetako Interes Naturalistikoko Eremuen zerrenda irekian daudenak.



- Ditutzen kualitate handiengatik —topografikoak, naturalak, nekazaritza eta basokoak— bereizten diren espazioak, Lurraldearen Zatiko Planaren lurralde-ikuspegi integratutik babesteko modukotzat jo direnak.
 - Onura publikoko mendiak.
3. Prozesu honen eraginpean egoteak esku-hartze aktiboa dakar ondorioz, berezkoak dituzten kalitateak kontserbatzeari eta beren lehiakortasun produktiboak/funtzionalak mantentzeari begira. Halaber, katalogazioren batean bilduta daudenen berezko legegintzako esparrua errespetatzea.
 4. Dokumentu honen “I. Lurraldearen Zatiko Planaren Araudia” atalaren eranskin gisa gehitu da lurraldea babesteko prozesuan gehitu diren espazioen kategoriak zehatz-mehatz adierazten dituen planoak, berariazko erregulazio propioen mende dauden espazioak bizkor eta errazago ezagutu ahal izateko.

Plano horretan onura publikoko mendi gisa grafiatuta dauden esparruetan, onura publikoko mendizat jotzen diren artean hartuko dira lurraldea babesteko prozesuaren baitakotzat.

16. artikulua.- Lurraldea birkualifikatzeko prozesua.

1. **Lurraldea birkualifikatzeko prozesuak** aktiboki eta lehentasunez eremu hutsetan —berez aurreko prozesuan integratu daitezkeenak— esku hartzeko erabakia hartzea eskatzen du, balio estrategiko handiagoa bereganatzen duten lurraldean duten kokapenagatik edo hiri-transformazioaren eraginpean dauden beste eremu batzuekiko hurbiltasunagatik.
2. Esku-hartze zehatzetarako berariaz esleitua izan gabe, prozesu honek ingurumenari dagokionez kalitate handikoak diren espazioetan du eragina, hiri-transformazioari lotutako hurbileko jarduerak sorraraz ditzaketen konpentsaziozko neurrien lehentasunezko hartzaile izanik.

17. artikulua.- Baliabideak erresebatzeko prozesua.

1. **Baliabideak erresebatzeko prozesuak** berehalako garapenerako aukerarik ez duten eta lurralde-mailan babesteko estrategikoak ez diren lurralde-esparru jakin batzuei buruzko erabakia atzeratzeko Lurraldearen Zatiko Planak hartutako erabakia adierazten du.
2. Aurretik aipatutako hiru prozesuetako bati ere lotuta ez dauden lurzoruetan du eragina, Lurraldearen Zatiko Planean aurreikusi ez diren ekimen guztiak kokatzeko erabil daitezkeen esparrua osatzen duten horietan.

18. artikulua.- Erregulazio orokorra.

1. **Erregulazio Orokorraren** helburua irizpide arauemaileak zehaztea da, lurraldean esku-hartze orokorra erregulatzeko, horrek Lurraldearen Zatiko Planean aldarrikatzen diren edukietara agente desberdinak hurbiltzera bideratutako orientazio-esparru bat eraikiz. Antolamendu Arau hauen II. tituluan garatzen da.



2. Bere helburuaren arabera, Erregulazio Orokorrak izaera loteslea du.
3. Aplikazio-eremua Araba Erdialdeko lurralde osoak osatzen du.
4. Erregulazio Orokorra tresnen bidez antolatzen da, gaiaren araberako sei ataletan:
 - **Ingurumenaren erregulazioa:** Araba Erdialdeko lurralde osoan eta batik bat “lurraldea babesteko” prozesuaren eraginpean dauden esparruetan landa-inguruneko naturguneen eta produktioguneen zeregina baloratzea da helburua.
 - **Hornikuntzen erregulazioa:** populazio osoak hornikuntzak helmenean izan ditzan ziurtatzera bideratuta dago.
 - **Mugikortasunaren erregulazioa:** azpiegiturak antolatzen eta kudeatzen eta garraio bideen dibertsifikazioa bultzatzen laguntzea du helburu.
 - **Hazkunde berrien erregulazioa:** bere helburua hiri-garapen berriak ezartzeko eta lurraldearen ingurunearekin lotzeko baldintzak finkatzea da.
 - **Erabileren antolamendu espazialaren erregulazioa:** dagokion funtzioa hiri-espazioak antolatzeko irizpideak finkatzea da.
 - **Udal-ekintzaren erregulazioa:** hirigintza-eskumenaren egikaritza argitzea du helburu, arloko zehaztapenen eta Lurraldearen Zatiko Planaren zehaztapenen arteko osagarritasuna zehaztuz eta berariazko gaien erregulazioan udal-eskumena egikaritu beharra azalduz.

19. artikulua.- 2. planoaren lotura-maila.

1. Plan honetako “2. Lurraldearen Gobernu. Lurralde Zatiak” planoak eraginkortasun loteslea du.
2. Bere bitartez lurraldearen esparru desberdinak Lurraldearen Zatiko Planean identifikatutako zein zatitakoak diren adierazten da.
3. Zatien mugaketa dagokien udalerriekin batera ados jarriz egokitu ahal izango da, zati bakoitzerako definitutako izaera ez dela aldatzen behar bezala justifikatuz.
4. Lurralde Zati bakoitzaren bereizgarritasuna Plan honen aplikaziorako kontuan hartuko da eta, nahitaez, arloko Planetan eta hirigintzako planetan baita ere, esku hartzeko eta plangintzarako etorkizuneko proposamenak justifikatzeko.

20. artikulua.- 3. planoaren lotura-maila.

1. Plan honetako “3. Lurraldearen Gobernu. Prozesuak” planoak izaera loteslea du.
2. Bere bitartez lurraldearen esparruek Lurraldearen Zatiko Planak zehaztutako eboluzio-prozesu desberdinekin duten korrespondentzia adierazten da. Lurraldea transformatzeko eta lurraldea birkualifikatzeko prozesuei dagokienez, korrespondentzia hori adierazgarria besterik ez dela ulertuko da, eta horrenbestez, ez da lurralde-mugaketa konkretizat edo hirigintza-kalifikaziotzat hartuko.
3. Planak finkatutako prozesuak eta lurraldearen espazioak beraien eraginpean jartzea nahitaezko erreferente izango dira arloko eta tokiko hirigintzako Administrazioek esku hartzeko formulatzen dituzten proposamenak justifikatzeko.



IV. KAPITULUA

ESKU HARTZEKO MODUAK

21. artikulua.- Lurraldean esku hartzeko moduak.

Planak zehaztutako esku hartzeko moduak berariazko bi tresna hauen erabileran oinarritzen dira:

- **Ekintza Egituratzailerak**
- **Eragiketa Estrategikoak**

22. artikulua.- Ekintza Egituratzaileraren definizioa eta lotura-maila.

1. **Ekintza Egituratzailerak** azpiegitura edo paisaia eta ingurumeneko izaera duten jarduera gisa definitzen dira, lurraldean hedadura dutenak eta Lurraldearen Zatikoko Planak proposatutakoak.
2. 1. Planoaren determinazioetan bilduta dauden eta inplizituki agertzen diren Lurralde Egituraren elementuak osatzen dituzte, eta haien deskribapena eta proposamena Planaren Memorian jasota dagoelarik.
3. Beren izaeraren arabera, arloko hirigintzako Administrazioei zuzendutako gomendioak osatzen dituzte.
4. Ekintza Egituratzailerak 4. Planoan agertzen dira grafiko bidez eta ekintza horietako bakoitzak bereizitako Fitxa bat du.

23. artikulua.- Ekintza Egituratzailerak garatzeko subjektuak.

Lurraldearen Zatikoko Plan honetan aurreikusitako Ekintza Egituratzailerak, hala badagokio, eskumena duten Administrazioek garatuko dituzte eta dagozkien inbertsio-programetan gehituko dituzte.

24. artikulua.- Eragiketa Estrategikoen definizioa eta lotura-maila.

1. **Eragiketa Estrategiko** gisa lurraldearen esparru edo eremu handiak antolatzen dituzten jarduerak hartzen dira, hain zuzen ere beren funtzionamendu integratu egokiagoa ziurtatzeko. Hornikuntzetako jarduerak zehaztea dute helburutzat, baita jarduera ekonomikoak antolatzeko eta egoitza-eskaintza anizteko jarduerak ere.



2. Eragiketa Estrategikoen aukerako eremuak garatzen dituzte, 1. Planoan bildutako Lurraldearen Egitura finkatuz, eta lurralderako interesgarriak diren jardueratzat hartzen dira.
3. Eragiketa Estrategikoen eraginkortasun loteslea dute.

25. artikulua.- Eragiketa Estrategikoen edukia.

1. Eragiketa Estrategikoen 4. Planoan bilduta daude. Balio estrategiko handiena duten lurralde-eremuetan esku-hartze selektiboaren emaitza dira, Lurraldea Transformatzeko Prozesuen eraginpean dauden eremuak izanik.
2. Horietako bakoitzak antolamendurako irizpideak eta erabilerak ditu aginduak biltzen dituen bereizitako Fitxa batean, eta bertan determinazio bakoitzari dagokion lotura-maila desberdinak zehazten dira.
3. Edozein Eragiketa Estrategikoren burutzapenak —dagokion Fitxan zehazten ez bada ere— Erregulazio Orokorrean garapen berrien azpiegiturei lotutako premiari buruz egindako determinazioak betetzea dakar berekin, hain zuzen ere Hazkunde Berrien Erregulazio hauetan: “RNC-3. Garraioen azpiegiturekiko konexioa” eta “RNC-4. Zerbitzuen azpiegiturekiko konexioa”.

26. artikulua.- Eragiketa Estrategikoen hiri-plangintza gehitzea.

1. Eragiketa Estrategikoen antolatzeko eta ondoren burutzeko, Lurraldearen Zatik Planaren determinazioak hiri-plangintza gehitu beharko dira.
2. Antolamendurako berariazko tresnetan hirigintzako sailkapen eta kalifikazio egokia finkatuko da, baita Eragiketa Estrategikoen dagokion esparruaren mugaketa zehatza ere.
3. Plangintzaren ekimena eta bere onarpena ordenamendu juridikoaren bidez esleitu zaionari dagokio.

27. artikulua.- Eragiketa Estrategikoen kudeaketa.

Eragiketa Estrategikoen berariaz kudeatu ahal izango dituzte “ad hoc” eratutako entitate juridikoen, betiere halako kudeaketa-sistema egokitzat jotzen bada.

28. artikulua.- 4. planoaren lotura-maila.

1. Plan honetako “4. Esku hartzeko moduak. Ekintza Egituratzailerak eta Eragiketa Estrategikoen” planoak arloko Administrazioei zuzendutako gomendioaren izaera du Ekintza Egituratzailerak dagokienez eta eraginkortasun lotesle orokorra Eragiketa Estrategikoenkiko.
2. Bertan Lurraldearen Zatik Planak proposatutako Ekintza Egituratzailerak eta Eragiketa Estrategikoen espazioan kokatu eta identifikatzen dira. Lurraldea transformatzeko prozesuari dagokionez, grafiatua adierazgarria besterik ez dela



ulertuko da, eta horrenbestez, ez da lurralde-mugaketa konkretuztat edo hirigintza-kalifikaziotzat hartuko.

3. Arloan eskumena duten organismoen aldetik formulatutako proposamenek, hain zuzen ere arloko determinazioetan eta burutzapenerako proiektuetan Ekintza Egituratzailen edukiak zehazten dituztenek, beren egokitzapena justifikatu beharko dute edo, kontrako kasuan, Lurraldearen Zatiko Planaren gomendioei jarraitu ez izanaren arrazoiak azaldu beharko dituzte, era berean 4. Planoaren Ekintza Egituratzailen Fitxa osagarrietako determinazioak barne hartuz.

29. artikulua.- Ekintza Egituratzailen fitxen edukia.

1. Ekintza Egituratzailen Fitxek Ekintza Egituratzailen burutzapena arautzen duten orientazio-irizpideak biltzen dituzte.
2. 4. Planoaren determinazio grafikoak osatzen dituzte.
3. Ekintza Egituratzailen burutzapenean eskumenak dituzten arloko administrazioei zuzendutako gomendioak dira.

30. artikulua.- Eragiketa Estrategikoen fitxen edukia.

1. Eragiketa Estrategikoen Fitxek Eragiketa Estrategikoen burutzapena arautzen duten arau-irizpideak biltzen dituzte.
2. Lotura-maila Fitxan bertan dagokion determinazio bakoitzerako zehaztutakoa izango da.

V. KAPITULUA

EGOITZA LURZORU BERRIAREN KUANTIFIKAZIOA

31. artikulua.- Egoitza-lurzoru berriaren kuantifikazioa.

1. Udalerriek egoitza-lurzoru gisa sailkatu behar den lurzoruaren hedadura kalkulatu dute, Erregulazio Orokorren "RNC-5. Egoitza Kuantifikazioa" Hazkunde Berrien Erregulazioan zehaztutako formula aplikatuz.
2. Betiere, eta jarduera-proposamenen ondorioetarako, udalerriek beren egokitasuna eta aukera justifikatuko dute jarduera horien bideragarritasunak euskarritzat dituen oinarriak adieraziz, udal-esparru zehaztetik harantz doan lurraldearen ikuspegitik. Edozein Udal Planen Memorian, orokorra nahiz puntuala bada ere, lurraldeari lotutako arazoibidea espresuki bildu beharko da.



VI. KAPITULUA

BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN ERAIKUNTZARAKO, LURZORU INDUSTRIALEN SUSTAPEN PUBLIKORAKO ETA BIGARREN EGOITZAKO ETXEBIZITZAK ERAIKITZEKO LURZORU ESKAINTZARAKO ERRESERBATU BEHAR DIREN LURZORU AZALEAK

32. artikulua.- Babes ofizialeko etxebizitzetarako, lurzoru industrialen sustapen publikorako eta bigarren egoitzako etxebizitzetarako lurzoru-erreserba.

Udalerriek babes ofizialeko etxebizitzen eraikuntzarako eta lurzoru industrialaren sustapen publikorako erreserbatu behar diren lurzoru-azalerei lotutako aginduak bildu beharko dituzte udal-plangintzan, baita bigarren egoitzako etxebizitzetarako den lurzoru-eskaintzaren gehienezko mugak ere, Lurraldearen Zatiko Planak zehaztutakoak, betiere 4/90 Lege agindua eta Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak betez.

VII. KAPITULUA

LURRALDEAREN ZATIKO PLANAREN DETERMINAZIOAK UDAL PLANGINTZA GEHITZEA

33. artikulua.- Lurraldearen Zatiko Planaren determinazioak udal-plangintza gehitzea.

1. Udalerriek, beren plangintza berraztertzean, Lurraldearen Zatiko Planaren sartutako egitura metropolitarrako elementuak barne hartu beharko dituzte, planaren ezarritako zehaztapenekin.
2. Lurraldearen Zatiko Plana indarrean sartzen den unean indarrean dagoen hiri-plangintza, 4/90 Legearen arabera, aldatuta geratuko Eraginaren Dokumentuan adierazten diren Eragiketa Estrategikoen eragindako puntu zehatz horietan.
3. Gauza bera gertatuko da Ekintza Egituratzailerekin, arloko plangintzak biltzen dituen unetik eta bere jarduera- eta inbertsio-programetan gehitzen dituen unetik.
4. Udalerriek beren hiri-plangintza aldatzeko beste proposamen batzuk gehitu ahal izango dituzte dagozkien arrazoiak azalduz eta ondokoetara bideratuta badaude:
 - a- Eragiketa Estrategikoren baten hobekuntza eta burutzapen bizkorragoa ziurtatzea.
 - b- Eragiketa Estrategikoak dagokion hurbileko ingurunean hedatu dituen ondorioak aprobetxatzea, beste erabilera eta jarduera batzuk erakartzeagatik.



- c- Eragiketa Estrategikoak, eta Ekintza Egituratzailleek, udal-ikuspegitik ondorioz ekarri ahal izango luketen udal-egituraketa berrituari lotutako ondorioak aprobetxatzea.
- 5. Beren plangintza izapidetzean, udalerriek beharrezko koordinaziorako jarduera garatuko dute dagokien inbertsio-organismoen aurrean, eta haiekin batera Ekintza horiek beren inbertsio-programetan gehitzeko erabakia hartuko dute, inbertsio horien baterako finantzariak direnean, beren udal-estrategiaren esparruan emango dieten garrantzi erlatiboaren arabera.

VIII. KAPITULUA

AROLOKO ORGANISMOEN **BURUTZAPEN / INBERTSIO EKINTZARAKO** **ARAU ERREGULATZAILEAK**

34. artikulua.- Planak, programak eta proiektuak egokitzea.

1. Erantzukizun sektoriala duten organo autonomiko eta foralek eta hirigintzako administrazioek Lurraldearen Zatiko Planean aurreikusitakora egokituko dituzte dagozkien Planak eta Programak, eta hala badagokie, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura aplikatuko zaie, uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuan xedatutakoaren arabera.
2. Kudeaketa-sozietate publiko, misto edo pribatuak Lurraldearen Plana gauzatzeko sustatutako Planak eta Proiektuak, onartzen denean jadanik existitzen badira edo ondoren eratzen badira ere, Eragiketa Estrategikoak garatzeko Lurraldearen Zatiko Planak egindako determinazioetara egokitu beharko dira baita ere.

35. artikulua.- Lurralde-egitura burutzeko proiektuak.

Lurralde-egituraren elementuak burutzeko Proiektuek espresuki kontuan hartu beharko dituzte, beren sorkuntzan nahiz definizio zehatzean, lurraldean betetzen duten zeregina eta beren izaera, eta hori dagokion Memorian arrazoitu eta justifikatuko da eta honako jarraibide hauetara egokitu beharko da:

- a- Beren ertzetan ezarri ahal izango diren beste jarduera batzuen ahalbideak kontuan hartzea, jarduera horiek bultzatuz, horrekin lurraldean duten izaera indartzen denean, edo jarduera horiek espresuki saihestuz, bateragarriak ez direla ziurtatzen denean, nolahi ere eta espresuki lotura horiek kontuan hartuz.

Araba Erdialdeko Eskualde Egituran ez dira, Lurraldearen Zatiko Plan hau onartzen denetik, azpiegiturei nahiz hornikuntzei lotutako ekintzak bakanduta eta beren ondorio hedatuak edo sorraraziak espresuki kontuan hartu gabe burutuko.



- b- Jarduera bakoitza zehazki diseinatzen denean, lurraldearen elementu izatearen baldintza kontuan hartuko da, jarduera hori landa-ingurunean ezartzen bada ere, beren funtzionaltasuna ziurtatuz kokatzen direneko espazioaren nortasuna indartzeko izaera egokiena antzematen zaien diseinuaren soluzioak bultzatuz. Bideko elementuen kasuan, gainera, lurraldean bideek betetzen dituzten funtzio desberdinei —ez bakarrik trafikoaren kanal izatea— erantzunez.
- c- Ingurumenaren gaineko eragina ahalik eta gehien murrizteko betebeharrean — legez aurreikusten denean berariaz aztertu beharko dena— ekintzaren eraginean arreta berezia jarri beharko da, baita hiri-jardueren bideragarritasunean nahiz bere ingurunearen ingurumenean izan ditzakeen ondorio negatiboetan ere.

IX. KAPITULUA

BURUZTAPEN PROGRAMAREN JARDUERA OINARRIAK

36. artikulua.- Burutzapen Programaren jarduera-oinarriak.

Lurraldearen Zatiko Planaren Burutzapen Programa ondoren adierazten diren jarduera-oinarriak kontuan izanik garatuko da:

LEHEN OINARRIA. Burutzapen Programa adostu beharra.

1. Planaren Programazioa berau izapidetzean administrazioen artean lortutako itunen emaitza da.

Eragiketa Estrategikoen Programazioaren Laburpen Taulan irizpide operatiboan bidez ezartzen dira jardunbideak.

2. Ekintza Egiturazaileen Programazioa ekintza horiek burutzeko eskumena eta aurrekontua duten Organismo desberdinen inbertsio-programetan gehitzearen emaitza izango da.

Prozedura horren ondoren, edo itun zein hitzarmen bidez aldez aurretik, Lurraldearen Zatiko Plana burutzeko beharrezkoak diren inbertsio publiko guztiak eratuko dira.

BIGARREN OINARRIA. Jardueren lehentasuna.

Lurraldearen Zatiko Planean bildutako jarduera guztiak, beren baldintza estrategikotik ondorioztatzen den izaera selektiboagatik, funtsezkoak dira eta, beraz, hasiera batean lehentasunezkoak erabat.

Hala eta guztiz ere, eta aldez aurreko adostasun administrazioaren mende dagoelarik martxan jartzeko erabakia, lehentasun erlatiboa Eragiketa Estrategikoen



Programazioaren Laburpen Taulan adierazten da, Planaren 4. Liburukian, “Programazioa” dokumentuan bildutakoa.

HIRUGARREN OINARRIA. Eragiketa Estrategikoak garatu eta kudeatzeko “ad hoc” organoei buruz.

1. Eragiketen bideragarritasun eta eraginkortasunerako ezinbesteko garrantzia duen gaitzat hartzen da kudeaketa-entitateetarako egokiak diren formula juridikoak eta administratiboak eratu eta erabiltzea.
2. Eragiketa bakoitzerako ez da modalitaterik finkatzen, erabaki hori organo eskudunek hartu beharko baitute kasu bakoitzean. Halako entitateetarako — publikoak nahiz ekonomia mistokoak, publiko-pribatua lankidetzan, edo pribatuak bakarrik, itundutakoak— legeriak eskaintzen duen bilduma eragiketa bakoitzerako aztertu beharko da.

Ekimen pribatuarekin lortutako itunean arreta berezia jartzea aurreikusten da, bakarrik nahiz ekonomia mistoko Entitateak eratuz kudeaketaz arduratu ahal izateko moduan, burutu beharko deneko baldintzak zehazki finkatu ondoren.

ERANSKINA



PLANOA

LURRALDEA BABESTEKO PROZESUAREN ERAGINPEAN DAUDEN LURZORU-KATEGORIAK



II. TITULUA

ERREGULAZIO OROKORRA



Erregulazio Orokorra sei gai handiren inguruan antolatzen da:

INGURUMENAREN ERREGULAZIOA

Araba Erdialdeko ingurumenean eragina duten gai handiak biltzen ditu, arloko politika zehatzei dagozkien aztergaiak izan arren, Arabako lurraldearen bereizgarri diren ingurumenaren balio eta kalitatearen zaintzarako nahiz bere eraginkortasun funtzionala ziurtatzeko kontuan hartu beharrekoak izanik.

- RA-1 Biodibertsitatea**
- RA-2 Ubideak eta ur-bazterrak**
- RA-3 Basoak**
- RA-4 Nekazaritza eta Abeltzaintza**
- RA-5 Inguru hezeak**
- RA-6 Parke Naturalak eta Gune Babestuak**
- RA-7 Paisaia**
- RA-8 Akuiferoen urrakortasuna**
- RA-9 Uholdeen arriskua**
- RA-10 Higaduraren arriskua**
- RA-11 Lurzoruaren kalitatea**
- RA-12 Lurzoruko eta zorupeko baliabide mineralak**
- RA-13 Energiak**

HORNIKUNTZEN ERREGULAZIOA

Hau ere arloko politiken aztergaia izanik, gizartearen funtzionamendu egokirako ekipamenduak izateak eta lurraldearen funtzionamendu egokirako ekipamendu horien posizio erlatiboak duten garrantziak gai marko batzuk kontuan hartzera eramaten gaitu.

- RD-1 Tokikoa ez den ekipamendura heltzeko garraio publikoa**
- RD-2 Tokiko ekipamendu-premiak betetzea**

MUGIKORTASUNAREN ERREGULAZIOA

Garraio-azpiegiturak antolatzen eta kudeatzen laguntzera eta garraio bideen dibertsifikazioa eta osagarritasuna bultzatzera zuzendutako gaiak aztertzen ditu.

- RM-1 Mugikortasunaren kudeaketa eta garraio-sistema**

HAZKUNDE BERRIEN ERREGULAZIOA

Garapen berriek lurraldean duten ezarpena eta Araba Erdialdeko lurraldean finkatu beharreko hiri-sistemaren hierarkia aztertzen ditu.

- RNC-1 Ingurumenaren kalitatea**
- RNC-2 Bide-elementuen tratamendua**
- RNC-3 Garraioen azpiegiturekiko konexioa**



- RNC-4 Zerbitzuen azpiegiturekiko konexioa**
- RNC-5 Egoitza-kuantifikazioa**
- RNC-6 Hazkunde-moduak**
- RNC-7 Ekipamenduak**

ERABILEREN ANTOLAMENDU ESPAZIALAREN ERREGULAZIOA

Garapen berrien antolamendu espaziala eta finkatutako hiri-espazioa eredu kulturalen eboluzioak eragindako eskariaren eskakizun berrietara egokitu nahi ditu (eraikitako eremuetan espazio libreen portzentaje handiagoa izatea; erabilera desberdinak batera egotea; mugikortasunari buruzko eskakizunetan arreta jartzea; eguneroko bizitzan eragin handia duten zerbitzuak eta hornikuntzak eskaintzea; hirigintza eta paisaiaren tratamendua zaintzea espazioan integratzeko eta ingurumenaren kalitate handiagoa eskaintzeko elementu gisa eta abar).

- ROEU-1 Egoitza-espazio berria**
- ROEU-2 Egoitza-espazio kontsolidatua**
- ROEU-3 Jarduera ekonomikorako espazio berria**
- ROEU-4 Orain dagoen espazio industrialia**
- ROEU-5 Urbanizazio-aukerak**

UDAL EKINTZAREN ERREGULAZIOA

Lurraldearen Zatiko Planarekiko arloko determinazioen osagarritasuna argitzeko.

- RAM-1 HIRIGINTZAKO ESKUMENA ERABILTZEKO JARRAIBIDEAK**
Lurraldearen Arloko Planei dagokienez
- RAM-2 HIRIGINTZAKO ESKUMENA ERABILTZEKO JARRAIBIDEAK** Udal-
ekintzaren beste zenbait baldintzatzailei dagokienez

Ingurumenaren Erregulazioa RA-1 BIODIBERTSITATEA

1. Xedea

Biodibertsitatea babestea eta mantentzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesten duen Lege Orokorrean (22. artikulua) jasotakoaren arabera, “aniztasun biologikoa edo biodibertsitatea edozein iturburuko organismo bizidunen aniztasun gisa hartzen da, alegia lurreko ekosistemak, itsasokoak eta uretakoak diren beste ekosistema batzuk, osagai direneko sistema ekologikoak barne hartuta; espezie bakoitzaren barruko, espezieen arteko eta ekosistemetako aniztasuna barne hartzen du”.

Araba Erdialdeko lurralde osoan aplikatu daitekeen erregulazio orokorra eratu arren, berau kontuan hartzeak garrantzi berezia hartzen du “3. Lurraldearen gobernua. Prozesuak” planoan identifikatutako lurraldea babesteko eta lurraldea birkualifikatzeko prozesuen eraginpean dauden lurzoruetan.

2. Aplikaziorako irizpideak

- Habitatak eta espezieak zaintzea lehentasunezko lana izango da biodibertsitatea aldaraz dezakeen edozein giza jardueraren garapen berriaren aurrean. Biodibertsitatea zaintzea lehentasunezko lana izango da “lurraldea babesteko” beharrezkoak diren esku-hartze positiboetan, esku-hartze horien helburu nagusia paisaiaren kontserbazio dinamikoa baita, hau da, lurraldean jarduten duten elementu biotikoen eta abiotikoen arteko oreka- edo desoreka-egoeraren adierazpen morfologikoa.
- Ikerkuntza eta katalogaziorako lanetan jarraitu beharko da, horrek orain dauden baliabide genetikoak zehaztasunez ezagutzeko aukera ematen baitu, baita ekosistemen oreka iraunarazten duten prozesuak eta konexioak ere.
- Katalogatu diren espezieen lehentasunezko habitatak osatzen dituzten espazio guztiak errespetatuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesten duen ekainaren 30eko 16/1994 Legearen arabera. Orobat, nazioarteko garrantzia duten Ramsar hitzarmeneko inguru hezeak eta Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetako zerrenda irekian jasotako interes naturalistikoko eremuak.
- Era berean kontuan hartuko dira espazio natural babestuak. Espazio horietako bakoitzerako egokitutako erabilerak eta jarduerak Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planek arautzen dituzte, espazio naturalean egon daitezkeen jarduera ekonomikoak eta aisiarakoak antolatzeaz arduratzen direnek.
- Komeni da, ingurunea zaintzeari begira eta sor daitezkeen prozesuak ezagutzen ez direlako, ingurune naturalaren arloan eskumena duten organismoek animalia edota landare exotikoen espezieak sartu izanak ekosisteman eragin dezakeen kutsadura kontrolatzea.



- Hiritarrei zuzendutako kontzientziazio kanpainak egin beharko dira, ekosistemak zaintzeak eta espezie autoktonoak erabiltzeak duen garrantziaz jabe daitezen, lorategiak eratzean edo basoak berritzean.

Ingurumenaren Erregulazioa RA-2 UBIDEAK ETA UR BAZTERRAK

1. Xedea

Ubideen eta ur-bazterren ingurumena bere onera ekartzea. Arriskuei aurrea hartzea.

Ubideen eta ur-bazterren gaineko ekintzek hiru alderdi biltzen dituzte: uraren erregulazioa eta sistema hidrológicoaren babesa; biodibertsitatea eta ziklo hidrológicoa mantentzen nabarmen laguntzea; eta uren kalitatea lehengoratzeko laguntzea.

2. Aplikaziorako irizpideak

- Epe ertain eta luzerako helburu nagusien artean urbazterreko landarediaz osatutako igarobide-sare bat lortzea nabarmentzen da, ingurumenari dagokionez proposatutako asmo bat baino gehiago biltzen duena (Basoak, Biodibertsitatea). Horrela igarobide ekologikoen sare bat lortuko da, funtsezkoa izanik Arabakoa bezalako eremu ekotoniko garrantzitsu batean.
- Irizpide nagusi gisa ibaiertzeko baldintza naturalak mantenduko dira. Era saihestezin batez ubideen morfologia eta urbazterreko ekosistemak eraginda daudenean, ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterlanarekin batera ingurumena lehengoratu eta zaintzeko jadanik araututa dauden planak aurkeztuko dira, eragindako eremua ahalik eta epe laburrean jatorrizko baldintzetara eramaten laguntzeko.
- Ubideetako baldintza naturaletan edozein aldaketa sortzen den guztietan EAEko Ibai eta Erreka Ertzak Antolatzen Lurraldearen Arloko Planaren berariazko araudian eta dagokion legerian xedatutakoa beteko da.
- Ibaietako ubideak hiri-eremuetan antolamenduaren elementu egituratzaile eta nagusi gisa integratzea gomendatzen da. Integrazioa jatorrizko urbazterreko landaredia autoktonoa ahal den neurrian erabiliz egingo da.
- Ibar-basoak kontserbatzeko eta mantentzeko beharrezkoak ez diren mozketak saihestuko dira, baina ingurumenean dagozkien funtzioak betetzea ahalbidetzen dien egoera ona mantentzeko beharrezkoak diren lanak egin ahal izango dira.
- Ibaiek estaliz bideratzeko lanak saihestea. Horretarako, arestian adierazitako Lurraldearen Arloko Planean zehaztutakoari jarraituko zaio.

Ingurumenaren Erregulazioa RA-3 BASOAK

1. Xedea

Basoetako espazioen zaintza aktiboa.

Basoetako baliabideen kudeaketa egokia iraungarritasunaren ikuspegitik landa-ingurunearen kontserbazio eta antolamendurako plangintzak garatzeko aukerarik onena da. Basoak funtsezkoak baitira elementu biotiko guztien ugalketa eta birsorkuntza prozesu naturalen garapen egokirako.

2. Aplikaziorako irizpideak

- Baso-masa berriak sortzea, basoak edukitzeko gaitasuna duten lurralde marjinalen kontura eta orain dauden sastrakak garbitu eta zainduz. Ingurumen naturalaren gainean mendiek betetzen duten babes-funtzioa indartzea. Lehenasunezko ekintza gisa hartzen da “3. Lurraldearen gobernua. Prozesuak” planoan adierazitako lurraldea babesteko prozesuen eraginpean dauden lurzoruetan, eta kasu zehatz bakoitzean aztertu eta planifikatu beharko ditu arloan eskumena duen administrazioak.
- Zuhaitzak moztuta dituzten zonen segimendua egitea, birlanaketa kontrolatuz eta bertan behera uztea saihestuz.
- Ahal baldin bada, lehenasuna emango zaio espezie autoktonoen baso mistoak sortzeari, lurraldean bestelako basoak sartzearen gainetik, baina horrek ez du baldintzatuko berariazko beste helburu batzuetarako baso-eremu egokiak sortzea.
- Erabilera egokiak kontserbazioa ziurtatzen dutenak eta baso-masen heldutasunerako garapenean tartekatuko ez direnak izango dira. Horrela, basoak berritzea ziurtatuko duen plangintzaren moduen eta programen mende egongo den baso-ustiapena ahalbidetuko da. Jolasa eta aisia pasiboa, ehizarekin eta arrantzarekin batera, erabilera bateragarriak izango dira baso-lursailetan, betiere jarduera bakoitzerako eta espazio bakoitzerako arloka ezarritako muga eta irizpideen barruan.
- Basozaintza baliabide naturalen aprobetxamenduaren kontserbazio eta optimizaziorako funtsezko prozesu gisa hartzen da. Basoko produktuen balioa gehitzeko planak indartu beharko dira, produktu horiek merkaturatzeko etiketa ekologikoak ezarriz.
- Suteei aurrea hartzeko beharrezko plangintza eta azpiegitura garatzea.
- Landa-ingurunean eragina duten plan eta ekintza guztiak baso, nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerekin bateragarriak izatea lortu behar da. Bateragarri izateko lurzoruen degradaziorik izango ez dela bermatuko duen programazio baten mende jarri beharko dira. Basozaintza eta artzaintza tradizionalak baso-sistemak egokiro erabiltzeko modua eskaintzen dute.



- Baso-ingurunearen ustiapenean jarduera tradizionalak hobetuko dira eta aldi berean beste jarduera berritzaileagoak sustatuko dira, betiere baliabideen kontserbazioaren inguruko eskakizunekin bateragarriak direnean.
- Basoetako hondakinen aprobetxamendu hobea, baliabide naturalak ahalik eta gehien erabiltzeko modu gisa.

Ingurumenaren Erregulazioa RA-4 NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZA

1. Xedea

Nekazaritzako lurzoru produktiboak zaindu eta baloratzea, sektore ekonomiko soilaren ikuspegitik harantz, nahiz eta hori den bere funtsa. Nekazaritzaren pisu ekonomikoa indartzeko balio berriak gehitzea da helburua.

Nekazaritza eta abeltzaintzako sektoreak lurra lantzetik harantz doan jarduera betetzen du. Nekazaria lurraldearen eta paisaiaren kontserbazioaren eragile nagusia da eta hala izaten jarraitu behar du, hiri-eremuetako biztanleen aldetik ondo zaindutako ezaugarri naturalak dituzten espazioen eskari handiagatik ez ezik, nekazaritza tradizionalak eta iraunkorrak ingurumenean betetzen duen funtsezko zereginagatik ere.

2. Aplikaziorako irizpideak

- Nekazaritzaren ikuspegitik balio handia duten lurzoruak “ex ante” babestuko dira hiri-lurzorurako eta lurzoru urbanizagarrirako sailkapen-prozesuen aurrean, eta udal-plangintzak ezarritako lurzoru-mota urbanizaezinaren barruan babestuko dira lehentasunez. Lurraldearen Zatik Planaren eragiketa estrategikoen eraginpean dauden nekazaritzarako balio handiko lurzoruak tratamendu horretatik salbu geratuko dira.
- Ingurumenaren erregulazio hau lehentasunez aplikatuko da “3. Lurraldearen gobernu. Prozesuak” planoan adierazitako lurraldea babesteko prozesuen eraginpean dauden lurzoruetan. Nekazaritza eta abeltzaintzako produkzioaren egitura tradizionala funtsezko faktorea da paisaia naturalak eta beren biodibertsitatea zaintzeko.
- Baliabide honen degradazio-arriskua adierazten duten faktoreak kontrolatuko dira, bereziki kutsadurak eraginda. Isurketen kontrolak eta hondakinen (nekazaritzakoak nahiz hirikoak) kudeaketa egokiak lurzoruen egitura eta konposizio kimikoa aldaraztea saihestuko dute, lehengaien produkzioarako balio ez dutela eragotziz.
- EAEko Nekazaritzako Jardun Egokien Kodeak, abenduaren 22ko 390//1998 Dekretuaren bidez onartutakoak, laborantzako teknikak zuzenduko ditu nekazaritza iraungarria eta ingurumenarekiko bateragarria garatzeko lehentasunezko marko gisa.
- Ingurumenaren gaineko ekintza egituratzaileek oso erlazio estua dute. Biodibertsitatea zaintzeko ezinbestekoa da nekazaritzako zonetan landarediaz osatutako enklabeak mantentzea. Arrazoi beragatik nekazaritzako partzelen mugetan orain dauden sastrakak zaindu eta berriak landatuko dira.
- Landa-turismoaren gero eta eskari handiagoa aprobetxatzea nekazaritzako sektorearen ekonomia anizteko eta transformazio handien beharrik izan gabe landa-komunitateak bere horretan mantendu eta finkatzeko.

Ingurumenaren Erregulazioa RA-5 INGURU HEZEAK

1. Xedea

Araba Erdialdearen barrualdeko inguru hezeak babestu eta onera ekartzea.

Inguru hezeak biosferako ekosistema aberats, berezi eta urrakorrenetakoak direla onartu da. Beren kokapen hobezinaren eraginez, lurzoruaren beste erabilera batzuekiko gatazkak gertatu ohi dira, eta beraz beharrezkoa da orain dauden inguru hezeak balioztatu, babestu eta onera ekartzeko irizpideak ezartzea.

EAEko Inguru hezeetarako Lurraldearen Arloko Planak (izapidetzen) inguru hezeei buruz egindako definizioaren arabera, Araba Erdialdeko lurraldean honako hauek hartzen dira halakotzat: multzo zingiratsu edo istiltsuak, lohiak, zohikatzak, naturalak edo artifizialak, iraunkorrak edo aldi batekoak, ura geratuta, geldotuta edo mugitzen denekoa, geza, gazikara edo gazia, gatz-edukia edozein izanik ere.

2. Aplikaziorako irizpideak

- Araba Erdialdeko lurraldearen inguru heze gisa, Lurraldearen Zatiko Plan honek babestutakoak, Inguru hezeetarako Lurraldearen Arloko Planaren II. taldekoak alegia, ondokoak hartzen dira:
 - Arreo-Caicedo Yusoko Lakua.
 - Bikuñako urmael txikia.
 - Salburuko putzuak.
 - Logrozanako lakua.
 - Gesaltza-Añana.
 - Olandinako urmaela.
 - Ullibarriko Urtegiaren Atzealdea.
- Inguru heze guztiak iraunaraztea lehentasunezkoa izango da lurraldean garatuko den eta inguru hezeen ezaugarri naturaletan eta kontserbazio-egoeran eragina izan dezakeen beste edozein jardueraren gainetik.
- Inguru hezeak zaintzearekin batera beren ingurunekeo lurraldea babestuko da, baita dagozkien ezaugarri naturalak eta, egongo balira, haiei lotutako akuiferoena ere.
- Ingurunekeo populazioaren erabilera tradizionalak inguru hezeak babestu eta indartzeko ekintzekin lotzeko baliabide naturalen ustiapen arrazionalak bultzatu beharko dira.
- Inguru hezeetan garatuko den eta eragina izango duen udal-plangintzak inguru heze horiek iraunarazteaz gain haiei lotutako paisaia eta baliabide naturalak onera ekarri eta birgaitzen saiatu beharko du. Horretarako, Arloko Planen arabera, helburu hori beteko duten erabilera baimenduak, debekatuak eta baimendu daitezkeenak ezarriko ditu.

- Era berean, zientzi eta kultur jarduerak eta ingurumen-hezkuntzari lotutakoak bultzatuko dira, aisiarako jardurekin eta inguruneke balio naturalen kontserbazioarekin bateragarriak izango direnak.

PLANOA
INGURU HEZEAK

Ingurumenaren Erregulazioa RA-6 PARKE NATURALAK ETA GUNE BABESTUAK

1. Xedea

Araba Erdialdeko lurraldean Naturguneen Sarea integratzea.

Lurraldearen esparru jakin bat Naturgune Babestu deklaratzeko balio erantsi gisa hartu behar da eta horretan oinarrituta egon behar du inguratzen duen lurraldearen xede eta jardun orokorrak, betiere landa-ingurunearen balorazio positibotik begiratuta.

Era berean, naturgune interesgarri gisa katalogatu edo proposatutako eremu baten existentzia bideratu behar da.

2. Aplikaziorako irizpideak

- Naturgune Babestuen Sarea osatzen duten eremuei legeria-esparru berezi bat dagokie (Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesten duen 16/94 Legea). Beren antolamendua Baliabide Naturalen Antolamendurako Planen bidez lantzen da.

Araba Erdialdeko esparruan ondoren adierazten diren guneak honela daude berariaz deklaratuak:

- VALDEREJO: 3/1992 Dekretua, Valderejoko Baliabide Naturalen Antolamendurako Plana onesten duena.
- GORBEIA: 228/1994 Dekretua, Gorbeia eremua Parke Natural deklaratu duena.
- IZKI: 65/1998 Dekretua, Izkiko eremua Parke Natural deklaratu duena.

Komeni da Parke Naturalen existentzia lotuta dauden ingurune eremuetan aprobetxatzea, ekipamenduen eta hornikuntzen plangintzan horietako bakoitzari dagozkion balio naturalen aprobetxamenduan laguntzea aurreikusiz.

- Horrez gain naturaren ikuspegitik balio berezia duten eremuak kontuan hartu behar dira, elkarren segidako azterlan eta dokumentuetan inbentariatu eta ebaluatu direnak. Horien artean nabarmentzekoak dira Komunitatearentzat Interesgarriak diren Lekuen proposamenean barne hartutako espazioak (Gobernu Erabakia, 1997ko abenduaren 23koa, 2000ko azaroaren 28ko Erabakian berrikusitakoa) Natura 2000 Sarean sartzeko, eta nazioarteko garrantzia duten Ramsar hitzarmeneko inguru hezeak (Ramsar hitzarmena, Iran 1971). Gainera, EAEko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan zerrendatzen diren naturgune interesgarriak kontuan hartu behar dira, indartu eta babestuko diren guneak izanik, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesten duen 3/98 Legearen xedapen iragankorraren arabera Ingurumenarekiko Eremu Sentikortzat hartutakoak.

Adierazitako zerrendetan honako espazio hauek sartzen dira:

1.- NATURA 2000 EUROPAKO SARE EKOLOGIKOA

1a. Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (BBE)

- Valderejo-Arcena Mendilerroa
- Arabako Hegoaldeko Mendilerroak
- Izki

1b. Garrantzi Komunitarioko Lekuak (GKL)

- Aizkorri-Aratz.
- Sobron.
- Urkabustaizko Irla-hariztiak.
- Arkamo-Gibijo-Arrastaria.
- Omecillo-Tumecillo Ibaia.
- Baia Ibaia.
- Arreo-Caicedo Yusoko Lakua.
- Zadorra Ibaia.
- Zadorra Sistemako Urtegiak.
- Ayuda Ibaia.
- Arabako Lautadako Irla-hariztiak.
- Salburua.
- Gasteizko Mendi Garaiak.
- Aldaiako Mendiak.
- Barrundia Ibaia.
- Kantabria Mendilerroa.
- Ega-Berron Ibaia.
- Entzia.

2.- NAZIOARTEKO GARRANTZIA DUTEN RAMSAR HITZARMENEN INGURU HEZEAK

- Urtegien atzealdeak.
- Salburua.
- Gesaltza-Añana.
- Arreo-Caicedo Yusoko Lakua.

3.- LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO ARTEZPIDEETAKO INTERES NATURALISTIKOKO EREMUEN ZERRENDA IREKIA

- Zuiako haran-hondoko hariztiak
- Olandinako lakua
- La Solana muinoko erkameztia

- Maila desberdinetan lurraldea itxuratzen duten eremu natural desberdinak antolamendurako planetan barneratzeak beren kontserbazioa bermatuko duen erabilera iraunkorra izan behar du helburutzat.

PLANOA

PARKE NATURALAK ETA GUNE BABESTUAK

Ingurumenaren Erregulazioa RA-7 PAISAIA

1. Xedea

Paisaia ingurumenaren ikuspegitik lurraldearen kalitatea adierazten duen elementu gisa hartzea.

Ingurune fisikoaren kalitatea eta bere irudikapen bisuala zaintzea, paisaia, gero eta gehiago, lurraldea lehiakortasun-faktoreaz hornitzen duen elementua den aldetik.

2. Aplikaziorako irizpideak

- Paisaia etengabe eraldatzen den elementu gisa aztertuko da, ingurumenaren baldintzek okerrera egin dutela adierazten duten aldaketa posibleak antzemateko.
- Hiriko eta eraikitako paisaien eta landako eta naturako paisaien artean loturak ezartzeko irizpideak finkatuko dira, hiriko eraikuntza eta hazkunde berriek kasu bakoitzean adierazgarrienak diren lekuak aldatu ez ditzaten.
- Plangintzaren tresnetan paisaiaren elementu gogoangarriak eta bereizgarriak mugatuko dira, baita ondare-balioa duten hiriguneak eta elementu bereziak ere, ikusmen-eremuaren babeserako perimetro gisa txertatuta gera daitezten.
- Kontrol-mekanismoak indartuko dira paisaiaren baldintzak alda ditzaketen ekintzak ingurunean behar bezala integratzen direla aztertu eta ziurtatzeko.
- Administrazioak paisaian eragin handiena izan dezaketen ekintzen segimendua egingo du.
- Landa-ingurunean nekazaritzako jarduerak garatzeko jardun, instalazio eta eraikuntzen integrazioa bultzatuko da, ingurumenaren eta ekologiaren ahalik eta kalitate handiena mantenduz eta egokienak diren eta ingurunean integratzen diren teknikak, materialak eta geometriak erabiliz.

Ingurumenaren Erregulazioa RA-8 AKUIFEROEN URRAKORTASUNA

1. Xedea

Lurrazpiko uren kalitatea babestea, potentzialki kutsatzaileak diren erabilerak eta jarduerak non aurkitzen diren eta ingurumenean duten eragina kontrolatuz.

Baliabide akuiferoen kutsadurari aurrea hartzea ekosistema naturalaren eta antropikoaren ingurumen-kalitatea mantentzeko oinarrietako bat da.

2. Aplikaziorako irizpideak

- Plangintzaren tresna desberdinetan akuiferoen gainkarga duten eremuak kontuan hartuko dira. Eremu horiek Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak landutako "EAEko Mapa Hidrogeologikoan" eta "Kutsadurarekiko akuiferoen urrakortasun mapan" agertzen dira ur-baliabidearen kutsadurarekiko urrakortasun maila handiko edo oso handiko eremu gisa mugatuta.
- Eremu horietako bakoitzean kokatuta egon daitezkeen erabilera eta jarduera bakoitzaren kategoria ezarri beharko da, lurrazpiko uren kutsadura-prozesuetan duten eraginaren arabera.
- Irizpide nagusi gisa eremu urrakorretan lurzoruaren kutsadura-igorleak izan daitezkeen jarduerak kokatzea saihestuko da; ezinbestekak bultzatuta halako jarduerak kokatu beharra dagoenean, lurrazpiko urei kalterik egingo ez dietela bermatu beharko da.
- Nekazaritzako eta basozaintzako jardueretan Nekazaritzako Jardun Egokien Kodetik (abenduaren 22ko 390/98 Dekretua, Eusko Jaurlaritzarena) ondorioztatzen diren irizpideak kontuan hartuko dira tratamendu herbizidak edo fitosanitarioak aplikatzean, lurrazpiko urak poluitu ditzaketen dosiak saihestearren.
- Motor-erregaiak eta lubrifikatzaileak bezalako substantzien erabilera kontrolatu behar da, halako substantziak isurtzea edo erabili ondoren dagozkien ontzi hutsak bertan behera uztea saihestuz.

Ingurumenaren Erregulazioa RA-9 UHOLDEEN ARRISKUA

1. Xedea

Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzen Lurraldearen Arloko Planean (Isurialde mediterraneo) urak gainezka egin dezakeen eremu gisa mugatutako eremuak eta uren arloko legerian eta araudian halakotzat definitutakoak kontuan hartzea, ura askatasunez mugitzea bermatzeko, ubide naturalak eta gainezka bideak etetea eta ixtea saihestuz, hain zuzen ere gainezka egindako uren eragina izateko arriskua duten pertsona, azpiegitura eta eraikuntzetan kalteei aurrea hartzeko.

2. Aplikaziorako irizpideak

- Zona horietako edozeinetan kokatzen den edozein jarduerak uren berezko dinamikarako oztopoa izan daitezkeen eta, beraz, pertsonentzako eta ondasunetarako arriskutsuak izan daitezkeen azpiegiturak, eraikuntzak edo material-metaketak ezartzea berekin ekarriko ez duela ziurtatuko duen irizpideari emango zaio lehentasuna.
- Plana garatzeko proposamenetan, uholdeen arriskuaren aurrean, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:
 - a. Garapen berria segurua dela eta uholdeen arriskuarekin ez dagoela ziurtatzea, arro hidrografikoaren testuinguruan ur-boladen arriskua aintzat hartuz.
 - b. Ahal den heinean, uholdeen arriskua murrizten ahalegintzea eta arrisku hori inolaz ere ez areagotzea.
 - c. Gainezkatze lautadak eta urpean gera daitezkeen ibaiertzak beren xede naturalerako erabiltzen direla, eraginkortasunez funtzionatzen jarraitzen dutela eta jardun desegokietatik babestuta daudela ziurtatzen laguntzea.
 - d. Plangintzari buruzko erabakiek prebentzio-printzipioa aplikatu behar diote uholdeen arriskuari. Ildo horretan, arrisku kontzeptuan oinarritutako prozedura erabiliko dute, ahal den guzietan saihesteko eta beste guztietan arriskua minimizatzen.

Ingurumenaren Erregulazioa RA-10 HIGADURAREN ARRISKUA

1. Xedea

Zenbait eremutan higadura-prozesuak sortu ez daitezen lortzea, hain zuzen beren ezaugarri litologikoek eta fisiografikoek edo orain duten kontserbazio-egoerak prozesu horiek agertzeko arriskua antzematea ahalbidetzen duten horietan.

2. Aplikaziorako irizpideak

- Arrisku potentzial handiko gunetan landaredi estalkia mantentzea edo estalki hori desagertu den eremuetan berriro jartzea da higadura-arriskuen erregulaziorako irizpide nagusia.
- Landaredi estalkiarentzat mehatxua adierazten duten edota lur-mugimenduak sorraraziko dituzten jarduera guztiak arrisku horren minimizaziora baldintzatuta egongo dira.
- Basozaintzako jarduerak baliabide edafiko eta hidrikoen kontserbazioa bermatu beharko dute. Horretarako suaren erabilera hedakorra, sastrakak kentzeko lan estentsiboa eta lur-mugimenduak mugatuko dira eta eskuzko landaketa mekanizatuaren gaineratik bultzatuko da, baita mozketarako metodo progresiboak arraseko mozketaren gaineratik ere.
- Zuhaitzik gabe geratu diren gunetan basoak berrituko dira, gune horietan abeltzaintzaren erabilera zuhaitz berrien arrakastara baldintzatuz.
- Higaduraren arrisku ziurra duten eremuetan eraikuntzari eta azpiegiturei lotutako erabilerak saihestuko dira.

Ingurumenaren Erregulazioa RA-11 LURZORUAREN KALITATEA

1. Xedea

Lurzoruaren erabileran egiten den edozein transformaziok, lurraldea egituratzen duten jarduera desberdinak asentatuta dauden geruzan elementu poluitzaileak izatearen ondorioz, ez ingurumenari ez giza osasunari mehatxurik eragingo ez diola ziurtatzea.

Lurzoru poluituen presentzia eskualde-egituran pisuko faktorea ez bada ere, lurzoruaren kalitatea bere onera ekartzeko egin diren eta une honetan abian dauden ahaleginak kontuan hartuta, guztiz gomendagarria da Lurraldearen Zatiko Planaren Araudian sartzea.

2. Aplikaziorako irizpideak

- Lurzoru jakin baten erabilera aldatu baino lehen “lurzoruaren kalitatea” faktorea orokorrean kontuan hartzeak pertsonentzako eta ekosistementzako arriskuen prebentzioa ziurtatuko du, poluitzaileak beste ingurumen-sistema batzuetara barreiatzea saihestuko du eta baliabideen erabilera optimizatuko du.
- Kasu bakoitzean poluitutako lurzoru bere onera ekartzearen beharrezko irismena ebaluatuko da, lurzoruari emango zaion erabilera berriari hertsiki loturik. Erabilera urrakorren kasuan, deskontaminazioaren kostu handiaren edo zailtasun teknikoaren ondorioz bideraezina izan liteke aurreikusitako erabilera-aldaketa.
- Erabileren kudeaketan eta plangintzan lurzoruaren kalitatearen irizpidea sartu beharra arautzen duen legegintzako esparrua “Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen 3/1998 Legean” dago.
- “Euskal Autonomia Erkidegoko Poluitzaileak izan daitezkeen Jarduerak dituzten Kokaguneen Inbentarioan” bildutako informazioa hartuko da erreferentziatzat.

PLANOA

POLUITUTA EGON DAITEZKEEN LURZORU INBENTARIATUAK

Ingurumenaren Erregulazioa RA-12 LURZORUKO ETA ZORUPEKO BALIABIDE MINERALAK

1. Xedea

Lurzoruko eta zorupeko baliabide naturalen balio estrategikoa eta horiek ustiatzeko gaur egun dauden eskubideak nabarmentzea eta aitortzea.

Jarduera ekonomiko ugariarako lehengaien hornikuntza-iturri garrantzitsua izan arren, baliabide mineralen aprobetxamenduak kokatzen diren eremuen ingurumen-balioak arriskuan jarriko ez dituzten inpakturik txikieneko ustiapen-irizpideei jarraitu beharko diela azpimarratzea.

2. Aplikaziorako irizpideak

- Harrobieen edo erauzketa-jardueren eraginpean dauden eremuen mugaketa udal-plangintzari dagokio, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen 8. kapituluko 5.3.B.b3 atalean eta 22. kapituluko 2.2.a atalean adierazita dagoen bezalaxe.
- Mota honetako baliabideak lurraldean dauden gainerako baliabideekin bateratuta planifikatzeko zailtasuna dela-eta, meatokien kokapena eta kategoria ez baitira ezagutzen meatzaritzako miaketaren eta ikerketaren bitartez agerian jarri arte, indarrean dagoen arloko legeriarekin eta Harrobi-eremuak Antolatzekeo Lurraldearen Arloko Planarekin uztartu beharko diren oinarritzko irizpideak azaldu ditugu hemen.
- Gaur egun dauden ustiatzeko baimenak kontuan hartuta, balio naturalen eta ingurumenekoen errespetua meatzaritzako ustiapen-jardurekin uztartuko da beti. Horretarako, aldi berean baliabideen mozkinik handiena, segurtasuna, ingurumenaren gaineko eraginik txikiena eta lurren lehengoratzeko optimoa ziurtatuko duten ustiatzeko/lehengoratzeko ereduak ezarriko dira.
- Horrenbestez, meatzaritza iraunkorraren integrazioa ziurtatuko da, lurralde-euskarria duten gainerako jardurekin eta baliabide naturalen aprobetxamenduarekin bateratuta.

Ingurumenaren Erregulazioa RA-13 ENERGIAK

1. Xedea

Energia zentzuz erabiltzea, aurrezpena sustatuz eta energia-eraginkortasuna areagotuz, energia produzitu, garraiatu eta kontsumitzearen ondorio diren ingurumenaren gaineko eraginak minimizatzen laguntzeko.

Energiaren autohornikuntzaranzko joera-aldaketari hasiera ematea, hala bertako baliabide berriztagarriak hobeto aprobetxatuz, nola energia-iturriak, ordezkioak barne, dibertsifikatuz.

2. Aplikaziorako irizpideak

- Energia kontserbatzeko eta aurrezteko jardunak sustatuko dira, eraginkortasun txikieneko erabilerak murriztuz eta industria-instalazioak berritzeko eta modernizatzeko ekintzak eta baterako sorkuntzako planak bultzatuz.
- Eraikinen eta instalazioen isolamendua hobetzera zuzendutako neurriak bultzatuko dira.
- Baliabide berriztagarrien (haize-energia, eguzki-energia, biomasa eta minihidraulikoa) aprobetxamendua bultzatuko da, ingurumen-hobekuntza nabarmenaren alde eginez. Horietako bakoitza lurraldearen ezaugarri fisikoek eta inguruaren ingurumen-balioen errespetuarekiko koherentziak ahalbidetzen duten garapen-mailara egokituko da.
- Haize-energiaren aprobetxamenduari dagokionez, Haize-energia Antolatze Lurraldearen Arloko Planean ezarritakoaren arabera, lehentasunez plan horrek I. multzoan zehaztutako kokalekuak garatuko dira.
- Tamaina txikiko haize-parkeen edo autokontsumorako aerosorgailu bakartuen ezarpena arreta handiz aztertu beharko da, horrelako elementu sakabanatu ugari Araba Erdialdeko eskualde-egitura bezalako lurralde batean sor ditzaketen eraginak ahalik eta txikiak direla bermatzearen.

Hornikuntzen Erregulazioa RD-1 TOKIKOA EZ DEN EKIPAMENDURA HELTZeko GARRAIO PUBLIKOA

1. Xedea

Lurraldearen Zatiko Planaren esparrua osatzen duten gunek guztietatik tokikoa ez den ekipamendura heltzeko hobekuntzak bermatu nahi dira, funtsezko eskubideetako bat eta lurraldeko herri-batzar guztiek antzeman eta adierazitako premia bat delako, hori aurrera eramateko beharrezko erabakiak dagokion arloko administrazioaren mende badaude ere.

Arabako herrien eta Vitoria-Gasteizen artean, baita udalerrien, herri-batzarretako gunek nagusien eta beste herri batzuen artean ere, garraio publikoaren sarea zabaltzeari begira, Foru Aldundiak duela gutxi adierazitakoari jarraituz, irisgarritasunari dagokionez gunek ugarik jasaten dituzten arazoei konponbide bat ematea da helburua, eta bereziki oso urrun dauden eta populazio zahartua duten guneeetan, erabiltzaileei herrian bertan existitzen ez diren ekipamenduen erabilera egokia erraztearren.

2. Aplikaziorako irizpideak

- Beharrezkotzat jotzen da Lurraldearen Zatiko Planaren esparrua osatzen duten gunek guztietatik tokikoa ez den ekipamenduen eskaria berariaz aztertzea, Vitoria-Gasteizko udalerrian izan ezik, betiere ezkutuan dauden premiei buruzko datu ziurrak eskuera izateko. Bete ez den eskaria identifikatzeko beharrezko zerbitzuen hornikuntza planifikatu eta zerbitzu horiek kokatuko direneko lekua erabaki beharko dira.
- Araba Erdialdeko asentamendu-sistemaren ezaugarriek eta hemen aztergai den ekipamendu-motak, lurralde-mailakoak, ez dute ahalbidetuko ekipamendu hori eskatzaile guztiengana fisikoki hurbiltzea, eta beraz ezartzeko lurraldean oso erraz hurbildu ahal izango den lekuren bat aztertu beharko da beraz.
- Ekipamendua fisikoki urruntzea saihestu beharko da, bertara heltzea bermatuko duen garraio publikoaren sare eraginkor baten bidez.
- Hornikuntzak erabiltzeko finkatzen diren ordutegien arabera, hornikuntzen berariazkotasunaren arabera finkatutako ordutegien arabera alegia, zerbitzua eskaintzen zaien erabiltzaile guztiei hurbiltzea bermatuko dien garraio publikoaren sistema bat ezartzeko aukera aztertu beharko da.
- Arreta berezia jarri beharko da osasun-larrialdiei erantzuteko berariazko garraio-sistemaren antolamenduan, edo hala badagokio, bere hobekuntzan.
- Ekipamenduetara heltzeko sistema antolatzeko garaian, arreta berezia jarri beharko da populazio zahartua duten guneeetan.

Hornikuntzen Erregulazioa RD-2 TOKIKO EKIPAMENDU PREMIAK BETETZEA

1. Xedea

Lurraldearen Zatiko Planaren berriazko xedea ez badira ere —orokorrean udal eskumenekoak izanik—, beharrezkoa da tokiko ekipamenduari dagokionez edo, egokiago esanda, lurralde-mailakoa ez den ekipamenduari dagokionez herri-batzarretan planteatutako eskarietarako erantzuna aztertzea.

Hornikuntza horien existentziak edo kokapenak lurralde osoarekiko berekin ekar dezaketen nodo-baliorik eza ez dator bat esparru mugatuagoen antolamendu funtzionalean hartu duten garrantzi sozialarekin ez eta egitura-mailan duten garrantziarekin ere.

2. Aplikaziorako irizpideak

- Hasiera batean, eta bildutako informazioaren arabera, aurreikuspen honen hedadura mugatzeko asmorik gabe ordea, beharrezkotzat jotzen da ondoren adierazten diren instalazioei lotutako eskaria berriaz aztertzea:

Zaharrentzako alojamendua. Ezkutuko eskari bat da Araba Erdialdeko esparru guztietan. Zaharrentzako alojamenduen eskaintzak bertsio tradizionalena, alegia “egoitzak”, nahiz beste aukera berritzaileago batzuk kontuan hartu beharko ditu, egonaldi jarraituaren edo denbora tarte baterako egonaldiaren eskakizunei erantzunez.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeak (DBH). Zuia eta Gesaltzako herri-batzarretan eskatutakoak.

Kirol-instalazio estaliak, Gesaltzako herri-batzarrean eskatutakoak.

- Ekipamendu berrien premia egiaztatuz gero, horiek martxan jartzeko hain zuzen, kokapenik egokiena aztertuko da populazio eskatzailearen eta garraio publiko bidez heltzeko moduen arabera, betiere Lurraldearen Zatiko Planak aurreikusitako Zatiaren esparru kontzeptualak edo, hala badagokie, Eragiketa Estrategikoek eskaintzen duten aukera eta udalerrien eta guneen arteko komunikazioa gehitzeko egin daitezkeen garraio-aurreikuspen berriak kontuan hartuta.

Mugikortasunaren Erregulazioa RM-1 MUGIKORTASUNAREN KUDEAKETA ETA GARRAIO SISTEMA

1. Xedea

Planaren ikusmoldea eta idazketa une oro zuzendu dituzten jardun praktikorako irizpideak eta gomendioak esplizituki ezartzea.

Jakina, bere zehaztapenak ezin dira garapen-mailara jaitsi sistema eta alderdi desberdinetako bakoitzean, baina bereziki azpimarratu nahi da behar-beharrezkoa dela berariazko soluzioen diseinuan kontuan hartzea.

Hori dela-eta, fitxaren edukia zeharkakoa da eta bere aplikazioak bat etorri behar du, kasu oro, azpiegituren eta bideen arloan proposatutako gutxienerako jardunen garapenarekin.

Planean bildutako mugikortasunaren kudeaketari buruzko kontzeptuek Planaren aurrelaburpena osatzen zuen garraioei buruzko txostenean bildutako kontzeptuak balioztatzea dakarte.

2. Aplikaziorako irizpideak

- a. Modu anitzeko garraio-sistemaren eredua, erabiltzaileei modua hautatzeko aukera emango diona, mugikortasun-premiak eredu iraunkor baten bitartez asetzea sustatuz, honako printzipio hauetan oinarrituta:
 - i. Modu-aniztasuna, bakoitzaren era askotako mugikortasun eta irisgarritasun premiak aintzat hartuz, modu iraunkorrenetarako sareak ezarri beharra azpimarratuz, hots, oinezkoentzat, bizikletentzat eta garraio publikoaren modu desberdinentzat.
 - ii. Erabileren hierarkia, kasu bakoitzean funtsezko moduak edo modu nagusiak ezarriz (oinezkoak, bizikletak, metro arina, autobusa, autoa, etab.), garatzerakoan arreta berezia eskaini eta lehenetsuneko tratua eman ahal izateko.
 - iii. Garraibideen eta zerbitzuen koordinazioa, modu desberdinen arteko trukatzaileren funtsezko garrantzia azpimarratuz, oinezkoentzako eta bizikletentzako irisgarritasuna eta, hala badagokio, ibilgailu pribatutik garraio publikorako transferentzia ziurtatuz aldirietako aparkalekuen bitartez, sinergia, erositasun eta ekonomiako baldintzetan. Koordinazioa azpiegituren zein kudeaketaren alorrean planteatzen da.
- b. Mugikortasunaren konponbide integrala, bere esparru guztiak kontuan hartuko dituena, bai eskualde-egituran bai Vitoria-Gasteiz inguruko hiri-espazioetan, moduen arteko sinergiak eta garatu beharreko horien arteko trukeen eskema aprobeztatuz.



- i. Ibilbide luzeko fluxuak, hala pertsonenak nola salgaienak, modu bakoitzerako azterketa-arloan dituzten eraginak kontuan hartuz.
 - ii. Erregio mailako banaketa-fluxuak, erregioko espazio propioaren barruan zabalkundea eta irisgarritasuna ziurtatzen dutenak.
 - iii. Tokiko eta eskualdeko balioko fluxuak, konektoreen sare nagusia egoki erabiltzea eta handiagotzea eta, hala badagokio, hobetzea eskatzen dutenak. Hori gauzatzeko funtsezko garrantzia dute oinezkoen eta bizikleten oinarrizko sareek.
 - iv. Konexioak eta trukeguneak, eragiketa-maila arinak eta eraginkorrak dituzten benetako errotula funtzionalak, mota desberdinetako jatorriaren eta helmugaren arteko bidaia erosoak soluzio unibertsal izan ohi den ibilgailu pribatura jo behar izan gabe egiteko aukera emango dutenak.
- c. Irisgarritasunaren zentzuzko aprobetxamendua, proposatutako ekintzen ahalmen egituratzailea zein egun daudenen erabilera balioztatuko duena, horien baterako zerbitzu-maila eta/edo kudeaketa-maila hobetuz.
- i. Soluzioak bilatuz sare-maila egokian, fluxu handiak hierarkia koherenteko moduetara egokituz, eta bidaiak sortzeko eta erakartzeko gune handietarako zuzeneko irisgarritasuna zainduz.
 - ii. Planaren helburuen kontrako erabilera-patroien euskarri izan daitezkeen azpiegitura berrien jardunak garatzea eragotziz.
 - iii. Hornikuntza-parametro gutxieneakoak eta gomendagarriak ezarriz, esate baterako, bizikleten eta ibilgailu pribatuen aparkaleku-hornikuntzan, garraio publikoen geltokien lurralde-estalduran (eskatu ahalako garraiokoak edo ez), gomendatutako bide-sekzioetan, eta abar. Erreferentziako hornikuntza-parametro horiek exiji daitezkeen legezko edo arauzko gutxieneak eta Planaren helburuekin bat datozen balio oparagoen artean mugituko dira.
- d. Eskariaren kudeaketa egokia. Mugikortasun-eskariaren kudeaketa eraginkorraren funtsezko garrantzia ezin da saihestu, kudeaketa hori moduen funtzionamenduaren mailarekin parekatzen duten planteamendu murriztaileetan eroriz, eta modu arrazionalen gehitu eta instrumentatu behar da honako alderdi hauetan:
- i. Mugikortasun-plan bat idaztea, edozein jarduera ezartzeko eta dagozkion lizentziak emateko nahitaezkoa. Mugikortasun plan horiek orokorrean edo partikularki ezar daitezke eta behar adinako xehetasunarekin jaso behar dituzte pertsonen eta salgaien mugikortasunaren arloan egiten diren planteamenduak, horien bideragarritasuna eta eragina ebaluatu ahal izateko.
 - ii. Mugikortasunerako eta garraiorako akordioak ezartzea, mugikortasun-planen bitartez ekipamenduen eta zerbitzuen arloan ezarritako hornikuntza-baldintza gutxieneakoak edo gomendatuak hobetzeko edo gaintzeko. Azpimarratu beharra dago akordioen esparruak bidaiariak zein salgaiak hartzen dituela bere baitan.



- iii. Erraztasun bereizgarriak emanez, beren mugikortasun-plan espezifikoa eta horren garapenean ezarritakoaren arabera mugikortasun iraunkorra lortzen laguntzen duten enpresek eta horien kostuek onurak jaso ditzaten.

Esate baterako, lehentasunezko tratua ematea garraio kolektiboaren erabilera sustatzen duten enpresei, beren langileen artean 'carpooling' sistemak antolatzen dituztenei, instalazioen barruan oinezkoen edo bizikleten modua erabiltzearen alde egiten dutenei eta dagozkien zirkuituak eta konexioak horretarako moldatzen dituztenei. Azken batean, langileentzako eta bisitariarentzako aparkalekuak beren lurretan egiten dituzten enpresak ere aintzat har litezke.

- iv. Garraio kolektiboa areagotuz, bai garraio publikoa bai ekimen pribatukoa (norberaren zerbitzuak, operadoreekiko hitzarmenak, etab.), eta beste modu batzuekiko lotura indartuz garraio-trukatzaileetan (bizikletak, autobusak, metro arina, aldiriko trena eta ibilgailu pribatua aldirietako aparkalekuen bitartez), modu desberdinen elikatze eginkizuna bultzatuz.
- v. Determinazio hauen funtzionamenduaren eta egokitasunaren jarraipena eta zuzenketa eginez, sistemak modu eta zati desberdinetan eta oro har izan duen bilakaeran oinarrituta. Jarraipen eta zuzenketa-mekanismoen ezarpen horretan garraio-moduen plangintzan, kudeaketan, eragiketan eta erabileran inplikaturik dauden agente guztiek esku hartu behar dute.
- vi. Ezinbestekoa da erreferentzia objektibo eta egiaztagarrietan oinarritutako parametroak ezartzea, adierazitako alderdi bakoitzaren kontrola, jarraipena eta aurrerapena erraza izan dadin.

Ez dago berriz esan beharrik printzipio hauek aplikatzean zorrozkiki eta une oro jarraituko zaiela indarrean dagoen aplikatzeko arloko araudiari eta abian dauden plangintzei eta aurreikusitakoei.

Hazkunde Berrien Erregulazioa RNC-1 INGURUMENAREN KALITATEA

1. Xedea

Ingurumen-baliabideen zaintza bermatzea eta garapen berriek bete beharko dituzten irizpideak ezartzea.

Lurzoru baten erabilera nagusiaren transformazioak ez du berekin ekarri behar ingurumenaren balio nagusien erabateko galera ezta ingurumenaren kalitatearen iraupena ziurtatu beharko duten irizpideak ahaztea ere.

2. Aplikaziorako irizpideak

- Hiri-jarduera berrien diseinuak jarduera horiek txertatzen direneko ingurumena errespetatuko du, ingurune naturalaren gaineko eragin negatiboak ahal den neurrian minimizatzen saiatuz.
- Zuhaitz autoktono gehienak mantentzea dagokion jardueraren barruan lorategiak ipintzen direnean.
- Hala badagokio, landaredi pantailak sortzea —espezie autoktonoez osatutakoak—, ikusmenari dagokionez eraginak murrizteko eta kutsadura akustikoa gutxitzeko. Ondorio horiek lortzeko pantailak lehentasunezko elementutzat hartuko dira, eta hasieratik dagokion transformazioaren diseinu-prozesuan integratuta egon behar du.
- Urak arazteko, isurketak eta igorleak kontrolatzeko eta hondakinak bildu eta birziklatzeko planak gutxienez arloko legeriak ezarritako irizpideetara egokitzen direla ziurtatzea.
- Ur araztuaren bidezko ureztaketarako bereizketa-sareen instalazioari lehentasuna ematea, baliabidearen kontsumo txikia lortzeko.
- Garapen berriak hiri-azpiegituren sistema esperimentalak ezartzeko leku egokienak direla kontuan hartu beharko litzateke, hondakinen eta isuriaren tratamenduari dagokionez nahiz energiaren hornikuntza-sistemei edo iraungarritasunarekin gehien inplikaturik dauden tipologiei dagokienez.

Hazkunde Berrien Erregulazioa RNC-2 BIDE ELEMENTUEN TRATAMENDUA

1. Xedea

Ingurunean bide-elementu berriak paisaian integratzen lagunduko duten diseinu-irizpideak eskaintzea edo, orain daudenen kasuan, diseinuaren neurri zuzentzaileak ezartzea bide-ertzak egokitzeko eta, beharrezkoa izanez gero, ingurumenari dagokionez onera ekartzeko.

Bide-ertzetan basoak berritzeak, ibilbideen gainean berehalakoak eta zuzenak diren abantailak lortzeko bada ere, horrez gain kontuan hartu beharreko zeharkako eragin positibo bat du: Lurrealdearen Zatik Planaren ekintza egituratzaile gisa proposatzen den igarobide ekologikoen sarearen sorkuntza osatzen du. Faunaren mugimendurako oso mesedegarriak dira landarediaren ibilbide linealak. Igarobide garrantzitsuenak ibaietan badaude ere, abelbideetan, bideetan eta errepideetan sortutako sareak egitura osatu eta espezieen mugimendua are gehiago bultzatzen du.

2. Aplikaziorako irizpideak

- Lehenik eskatzen den bide-elementu mota eta sarean izango duen hierarkia kontuan hartu beharko da, arloan betetzen duen funtzioaren emaitzazko diseinuaren baldintza errealak argituz. Bigarren, diseinu-aukeren bildumaren barruan, bideen kalitatea zalantzan jarri gabe ingurunera gehiago eta hobeto integratzen direnak aukeratu beharko dira.
- Proposatzen diren neurriak generikoki deskribatzen dira Arabako lurraldea egituratu behar duten bide-mota guztietarako. Horietako bakoitza xehetasunez aztertu beharko da lan egingo deneko bideen eskalara eta ezaugarrietara egokitzeko, alegia: landa-bideak, sektore urbanizatueterako bideak, errepideak autobiak eta abar.
- **Diseinuaren neurriak**
 - Formak ingurunera eta topografiara egokitzea.
 - Ikusmenari dagokionez ahalik eta eten txikiena eragingo duten egiturak.
 - Zonako eraikuntzen eta materialen tipologia errespetatzea.
 - Zeharkako iragazkortasuna bultzatzea (lurrealdearen drainadurei dagokienez ez ezik, faunen igarobidea eta landako eta hiriko trafikoak mantentzeko baita ere). Bideek ibai baten ibilgua zeharkatzen dutenean zubiaren brankak atzera emango dira eta bideak bi ertzetan egokitu eta basoez hornituko dira ubideetako igarobide ekologikoak erabiltzen dituen lurreko faunari bertatik igarotzea ahalbidetzeko.
- **Formen gaineko neurriak**
 - Gainazal kurbatua eta zimurra duten ezpondak zabaltzea, beren egonkortasuna ziurtatuko dutenak, edota ebakitako baso-zatietan lur begetalez betetako baratze-mailak egitea, ondoren landatzea ahalbidetzeko.
 - Espezie autoktonoekin eta txertatzen diren paisaiaren antzeko formekin landareak gehitzea, geometrizazioa saihestuz, efektu jakin bat lortzeko ez bada behintzat.



- **Ehunduraren eta kolorearen gaineko neurriak**
 - Lubetak landareekin estaltzea eta baita obrek suntsitutako landaredia duten eremuak ere.
 - Loreak dituzten edo lorarik ez duten landare-espezie galkorrak edo iraunkorrak paisaiarekiko osagarriak ote diren kontuan hartzea, bolumetria edo ehundura desberdinekoak, eta betiere urtaroaren iragaitea antzematea eta ibilbidean erreferentziak sortzea ahalbidetuko dutenak.
 - Egituren gainean diseinu kromatikoak egitea.

- **Segurtasunaren eta ikuspenaren gaineko neurriak**
 - Zuhaiak landatzea autobietan edo autobideetan kurbak nabarmentzeko.
 - Oinezkoen babesguneetan eta desbiderapenetan landatzea, sarrerak nabarmentzeko.
 - Trafiko-mota desberdinak bereizteko elementuak jartzea (zur “errustikoarekin”, landareez osatutako pantailekin).
 - Landare-pantailak tartekatzea paisaian integratuta ez dauden elementuak ezkutatzeko.
 - Egonaldirako eremuak egokituko dira eta landaketa egokiak egingo dira — betiere dagokien espezie autoktonoekin— behar den lekuetan itzalpeak sortzeko.
 - Obra-faseetan okupatzen diren zonak (hondakindegia, zerbitzu-bideak) obra hasi aurretik aukeratu behar dira. Komenigarria litzateke obra-soberakinek sorrarazitako arazoan konponbidea hondakindegia gisa erabil daitezkeen erliebe hondatuen inbentario batekin lotzea. Erliebea zaharberritu ondoren eta hondakindegia lohiz bete eta gero, zona horiek berriro landatuko dira hiri-ingurunean berdegune gisa jendeak erabiltzeko nahiz landa-ingurunean basoak berritzeko.

Hazkunde Berrien Erregulazioa RNC-3 GARRAIOEN AZPIEGITUREKIKO KONEXIOA

1. Xedea

Hiri-garapenari lotutako jarduera berri guztietarako lurralde-sarbidea bermatu eta arautzea.

2. Aplikaziorako irizpideak

- Garapen berri guztiek lurraldearen komunikazio-azpiegitura guztiekiko konexioa — zuzena edo zeharkakoa— bermatu beharko dute.
- Eskatuko den konexio-mota aurreikusitako garapenaren tamainara eta ezarriko diren erabileren eskakizun berezietara egokituko da.
- Jarduera ekonomikoen garapen berriek konexio arinak aurreikusi beharko dituzte zirkulazio-ardatz nagusietara, beti ere neurri handi batean mugitzeko erraztasunak jarduera behar bezala betetzeko eta ingurunean egokiro integratuta geratzeko eskakizun bat osatzen duenean. Konexio horiek ez dira funtzionalki inguruko beste hiri-espazio batzuen moldagarritasun egokian tartekatuko. Ibilgailu astunen trafikoa, jarduera industrialari dagokiona, guneetako hiri-trafiko normalaren ordezkokoak diren ibilbideetatik bideratu beharko da.
- Era berean, egoitza-garapen berriak ezarriko diren inguruneko bide-sare nagusira konektatu beharko dira. Hala eta guztiz ere, konexio-elementuaren diseinuaren baldintzek askatasun handiagoaz erantzun ahal izango diete garapen berrietarako egokitutako urbanizazioaren ezaugarriei.
- Espazio mistoen kasuan, ezarritako jarduera guztien mugikortasun-premiak beteko direla ziurtatu beharko da, hurbil egon arren, funtzionamendu desberdinei erantzun ahal izango dietela kontuan izanik.
- Kasu guztietan sare nagusiarekin konektatzeko bide-elementuek egoera klimatologiko desberdinetan zirkulatzeko modukoak izango direla ziurtatuko duen gainazaleko akabera izan beharko dute.
- Garapen berrietan orain dagoen garraio publikorako lotura proposatu beharko da, beharrezko zerbitzuen zabalkuntza edota disuasioko aparkalekuen eraikuntza (kasu bakoitzean eskatzen den eskalakoak) sustatuz orain dauden geralekuetan, jarduera-eremutik hurbilen.

Hazkunde Berrien Erregulazioa RNC-4 ZERBITZUEN AZPIEGITUREKIKO KONEXIOA

1. Xedea

Hiri-garapen berrien ingurumenaren eta lurralde-zerbitzuetako azpiegituretarako sarbideen erregulazioa.

2. Aplikaziorako irizpideak

- Zerbitzuen azpiegiturekiko, garapen berriek arautuko dituen tokiko plangintzaren eskakizunei erantzungo diete, dagozkien sareek udal-egitura orokorrerako konexioa izango dutela bermatuz.
- Saneamendu-ardatzik, ur, gas edo elektrizitate hornikuntzarik ez duten eremuetan hazkunde berriak ezartzeak hiri-lurraldeko azpiegituren saretarako konexioa eta integrazioa ekarri beharko du berekin, betiere eskari berriei aurre egiteko duten gaitasuna justifikatuz.
- Determinazio hori betearaztetik berez eskakizun horiei erantzuten dietela justifikatzen duten garapenak salbuetsiko dira, ordezko sistemen eta jardueraren eskalarekin bat datozen horien bidez.
- Saneamendu-sareari dagokionez, orain dauden edo aurreikusten diren araztegien gaitasuna justifikatu beharko da, sortutako hondakin-uren tratamendurako.
- Hondakin kimikoak edo industrialak sortzen dituzten jarduera berriek hondakin horiek saneamendu-sare nagusitik kanpo ezabatuko dituztela bermatu beharko dute, arloko araudiaren aginduak betez.
- Ezarriko diren jarduera ekonomikoek pizgarri gisa balio beharko lukete jarduerak garatzeko gero eta beharrezkoagoak diren komunikazio-azpiegiturek (zuntz optikoa, kablea...) urbanizazio-lanetan integratuta eraikitzea sustatzeko.

Hazkunde Berrien Erregulazioa RNC-5 EGOITZA KUANTIFIKAZIOA

1. Xedea

Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen arabera, Eskualde Egitura bakoitzeko Lurraldearen Zatiko Planak udalerrri bakoitzari dagokion egoitza-lurzoruaren eskaintza kuantifikatuko du.

2. Udalerrietako plangintzaren egoitza-gaitasunaren kuantifikazioa ezartzeko jarraibideak

- a. Ondoko balio-urkila ezartzea:
 - i. **Gehienezko balioa**, plangintzaren egoitza-gaitasunarena: udal-plangintzari ematen zaion balioa, lurzoruaren gainkalifikazioaren ondorioz hirigintzako garapen desordenatuak ez sortzearren.
 - ii. **Gutxienezko balioa**, plangintzaren egoitza-gaitasunarena: udal-plangintzari ematen zaion balioa, lurzoru kalifikatu gutxiegi izatea saihestearren.
- b. Lurraldearen Zatiko Planaren indarraldia luzea denez (16 urte), gehienezko balioaren eta gutxienezko balioaren artean dagoen tarte edo urkila plangintzaren berrikuspenera idazten den unean udalerriri buruz dauden datu estatistikoen arabera aplikatuko da.
- c. Gehienezko balioa eta gutxienezko balioa Artezpideen irizpideetan oinarrituta lortuko dira, Lurraldearen Zatiko Planak honela egokituta.

Osagaien baturaren arabera lortutako egoitza-gaitasuna:

1. **C1** osagaia, ereduaren arabera Lurraldearen Zatiko Planak definitu beharrekoa. Ondoren adierazten diren hazkundeak udalerrri bereizi gisa hartzen dira, eta ezartzen den entitatean:

	Gehienezko balioa	Gutxienezko balioa
(a) Vitoria-Gasteiz	20.000 etxebizitza	-
(b) Agurain	3.000 etxebizitza	500 etxebizitza
(c) Iruña Oka	3.000 etxebizitza	500 etxebizitza
(d) Alegria-Dulantzi	600 etxebizitza	300 etxebizitza
(e) Arrazua-Ubarrundia	600 etxebizitza	300 etxebizitza
(f) Erribera Beitia	600 etxebizitza	300 etxebizitza
(g) Asparrena	300 etxebizitza	-
(h) Kanpezu	300 etxebizitza	-
(i) Legutiano	300 etxebizitza	-
(j) Otxandio	300 etxebizitza	-
(k) Peñacerrada-Urizaharra	300 etxebizitza	-
(l) Ribera Alta	300 etxebizitza	-
(m) Urkabustaiz	300 etxebizitza	-
(n) Valdegovia	300 etxebizitza	-



(ñ) Zigoitia	300 etxebizitza	-
(o) Zuia	300 etxebizitza	-

Plangintzaren berrikuspen-prozesuan eta aipatutako balioak Lurraldearen Zatiko Planaren indarraldirako (16 urte) planteatzen direnez, kopuruaren %75 bakarrik erabiliko da.

2. Osagaiak: **C2** (hazkunde demografikoa), **C3** (famili egituraren bariazioa), **C4** (eskaintzaren zurruntasunaren zuzenketa) eta **C5** (bigarren egoitza): Artezpideen kalkuluen arabera.
3. **CR** zurruntasun-koefizientea:
 - i. Gehienezko balioa: Artezpideen CR.
 - ii. Gutxienezko balioa: Artezpideen CR balioaren erdia.
4. **CSR** bigarren egoitzako koefizientea:
 - i. $CSR = 0$ Lurraldearen Zatiko Planak eredu-arrazoien ondorioz C1 osagaiari dagokion atalean bereizten dituen udalerrietan.
 - ii. Gainerako udalerriak: Artezpideen CSR.
- d. Planteatutako gaitasuna hiri-lurzoruaren eta programatutako edo sektorizatutako lurzoru urbanizagarriaren gainean kokatuko da. Gehienezko Balioaren gaintetik, egoitza-gaitasun gehigarria programatu edo sektorizatu gabeko lurzoru urbanizagarriaren gainean kokatuko da.
- e. Aurreko kalkuluaren emaitzazko gaitasuna gune nagusian edo orain dauden edo eraiki berri diren guneen gainean kokatuko da, hirigintza-garapena planteatzen den horietan, alegia.
- f. Aurretik dauden gune txikiagoen hazkundera erregulatzearen ondorioetarako, udal-plangintzak honako hauek ziurtatu beharko ditu:
 - i. Herri bakoitzaren ezaugarrien azterketa xehatua egitea, izan lezakeen hazkundera bere gizarte-bilbeak eta egitura fisikoak onar dezakeen entitate bati lotu ahal izateko.
 - ii. Herrien egitura tradizionalaren analisi morfologikoa abiapuntutzat hartuta, garapen berrietarako gutxienezko dentsitatea (15 etxe./ha inguru gomendatzen da) sartzea parametro lotesle gisa.
 - iii. Hazkunde berrien eraikuntza-tipologia azpimarratzea, etxebizitza parekatuaren edo lau etxebizitzako kolektiboaren aldeko lehentasuna ezarriz familia bakarreko etxebizitza bakanduaren aldean.
 - iv. Gune hauen egoitza-garapeneko gehienezko ahalmentzat %100 hartzea, plangintza orokorra berrikusterakoan edo Lurraldearen Zatiko Plan honetara egokitzerakoan dagoen etxebizitza-kopuruaren gainean kalkulatu, eta era berean, adierazitako plangintzaren berrikuspenaren eta egokitzearen bitartez justifikatutako udal-estrategietan oinarrituta.
- g. Aurretik adierazitako guzti horretatik kanpo daude plangintza orokorrak landaguneko lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzen dituen herrixkak. Herrixka horiek



lurraren araubide eta hiri antolaketaren arloko presako neurriak zehazteari buruzko maiatzaren 6ko 5/98 Legean adierazitakoari jarraituko diote.

h. Egoitza-lurzoruaren eskaintza kuantifikatzeko ereduazko kalkulu-orria:

Egoitza-lurzoruaren eskaintza kuantifikatzeko ondoren erantsitako kalkulu-orria erabiliko da:

**CUANTIFICACION DE LA OFERTA DE SUELO RESIDENCIAL
EGOITZA LURZORUAREN ESKAINTZAREN KUANTIFIKAZIOA**

LEYENDA / ESANAHIA

Componente 1. IMPLICACIONES DEL MODELO TERRITORIAL 1. osagaia. LURRALDE EREDUAREN INPLIKAZIOAK		VOB: Viviendas Ocupadas en el año Base de la proyección OEO: Okupatutako etxebizitzak proiektzioaren oinarritzko urtean. PB: Población en el año Base de la Proyección PO: Populazioa proiektzioaren oinarritzko urtean PH: Población en el año horizonte de la proyección PH: Populazioa proiektzioaren horizonte-urtean TFM(n): Tamaño medio Familiar en el año (n) FBT (n): Familiaren batez besteko tamaina (n) urtean
Crecimiento por Implicaciones del Modelo / Ereduaren inplikazioen ondoriozko hazkundera		
Total Componente 1/ 1. osagaia guztira		
Componente 2. CRECIMIENTO DEMOGRAFICO 2. osagaia. HAZKUNDE DEMOGRAFIKOA		TAC: Tasa Anual de Crecimiento demográfico UHT: Urteko hazkundera demografikoaren tasa CD: Crecimiento Demográfico HD: Hazkundera Demografikoa CR: Coeficiente de Rigidez ZK: Zurruntasun-koefizientea
VOB / OEO =		
PB / PO =	P (2001) / P (2001) = P (1991) / P(1991) = TFM(n) / FBT (n) =	
PH = PB (1+TAC) ⁿ = PH = PO (1+UHT) ⁿ =	CD = PH - PB = HD = PH - OP =	
Necesidad de Viviendas CD/TFM(n) = Etxebizitzen premia HD / FBT(n) =		
Total Componente 2 / 2. osagaia guztira		
Componente 3. VARIACION DE LA ESTRUCTURA FAMILIAR 3. osagaia. FAMILIA EGITURAREN ALDAKUNTZA		Demográfico HD: Hazkundera Demografikoa CR: Coeficiente de Rigidez ZK: Zurruntasun-koefizientea
Necesidad de Nuevas Viviendas PB/TFM(n) – VOB = Etxebizitza berrien premia PO / FBT(n) – OEO =		
Total Componente 3 / 3. osagaia guztira		
Componente 4. CORRECCION DE LA RIGIDEZ DE LA OFERTA 4. osagaia. ESKAINTZAREN ZURRUNTASUNAREN ZUZENKETA		Demográfico HD: Hazkundera Demografikoa CR: Coeficiente de Rigidez ZK: Zurruntasun-koefizientea
CR / ZK =	(VOB + C2 + C3) CR / (OEO + O2 + O3) ZK =	
Total Componente 4 / 4. osagaia guztira		
Componente 5. SEGUNDA RESIDENCIA 5. osagaia. BIGARREN EGOITZA		Demográfico HD: Hazkundera Demografikoa CR: Coeficiente de Rigidez ZK: Zurruntasun-koefizientea
CSR/BEK=	C2 + C3 + C4 / O2 + O3 + O4 =	
(C2 + C3 + C4) (CSR - 1) 0,5 / (O2 + O3 + O4) (BEK-1) 0,5 =		
Total Componente 5 / 5. osagaia guztira		Demográfico HD: Hazkundera Demografikoa CR: Coeficiente de Rigidez ZK: Zurruntasun-koefizientea
NUMERO MAXIMO DE VIVIENDAS A OFERTAR POR EL PLANEAMIENTO PLANGINTZAK ESKAINTZAN JARRI BEHARREKO GEHIENEZKO ETXEBIZITZA KOPURUA		
C1 + C2 + C3 + C4 + C5 / O1 + O2 + O3 + O4 + O5 =	TOTAL TOTAL	

Hazkunde Berrien Erregulazioa RNC-6 HAZKUNDE MODUAK

1. Xedea

Lurraldean hazkunde berrien materializazioa arautzea, Lurraldearen Egituraren Planoan proposatutako hiri-sistema eratzeko.

2. Aplikaziorako irizpideak

a. Udal-plangintzak ondoren adierazten diren irizpideetan oinarrituta ezarriko ditu garapen berriak:

i. Hirigintza-garapena duten guneak

“RNC-5. Egoitza-kuantifikazioa” Hazkunde Berrien Erregulazioan, 2. atalean, “a” eta “e” bitarteko paragrafoetan kuantifikatutako hazkundeak kokatzen direneko gune guztiak dira. Honako hauek bereizten dira:

i.1. **Lehendik dauden guneak, oraingo bilbeekin lotutako hazkundeak kokatzen direnekoak**, Hazkunde Berrien Erregulazioaren —RNC-6.1, RNC-6.2, RNC-6.3 eta RNC-6.4— determinazioek arautuko dituztenak.

i.2. **Gune berriak**, oraingo bilbeekin lotuta ez dauden hiri-garapenek sortutakoak baita lotutakoek ere, euskarriztat dituzten elementuenak baino hirigintza-aprobetxamendu handiagoa adierazten dutenean. Hazkunde Berrien Erregulazioaren RNC-6.6 aginduek baldintzatuko dituzte.

ii. Hirigintza-garapenik gabeko gune txikiagoak

Orokorrean bilbe unitarioa duten guneak dira, Arabako herrixka modukoak, eta horietan egon daitekeen gehieneko hazkundera “RNC-5. Egoitza-kuantifikazioa” Hazkunde Berrien Erregulazioan, 2. atalean, “f” paragrafoan kuantifikatuta dago. Hazkunde Berrien Erregulazioaren RNC-6.5 determinazioen mende egongo dira.

iii. Landaguneak lurzoru urbanizaezinean

5/98 Legearen 1. artikuluan ezarritakoaren arabera araututakoak.

b. Hiri-plangintzak ezingo ditu ondoren arautzen diren hazkunde-modu bereziak hartu, horiek finkatu nahi den eta bere osagai izatea lortu nahi den hiri-sistemaren hierarkiarekin bat etorriz mantenduz.



Honela antolatzen da erregulazioa:

RNC-6.1 Vitoria-Gasteizko gune nagusiaren hazkundera

RNC-6.2 Hiri-espazio nagusi izateko bokazioa duten guneen hazkundera

RNC-6.2.1 Hazkundera selektiboa: Garrantzizko hazkundera bultzatu behar deneko udalerrak

RNC-6.2.2 Eskualde-mailaren azpitik interesgarriak diren guneen hazkundera

RNC-6.3 Zehaztu gabeko hazkundera duten dentsitate txikiko gunek (Ordezko habitatak)

RNC-6.4 Neurri txikia duten oraingo hiriguneeen hazkundera

RNC-6.4.1 Egiturari dagokionez berezitasunak dituzten gunek (fundaziozko hiribilduak, hiri-bilbe interesgarria, populaketa kontzentratuko bilbea)

RNC-6.4.2 Populaketa sakabanatuko bilbe unitarioko egitura duten gunek

RNC-6.5 Hirigintza-garapenik ez duten gune txikiagoen kontsolidazioa

RNC-6.6 Egoitzagune berri bakanduak

Hazkunde Berrien Erregulazioa RNC-6.1 VITORIA-GASTEIZKO GUNE NAGUSIAREN HAZKUNDEA

1. Udalerria

Vitoria-Gasteiz.

2. Xedea

Vitoria-Gasteizko udalerraren lurralde-garapenari dagozkion funtsezko ereduak ezartzea, Araba Erdialdeko Lurraldearen Zatiko Planean definitutako lurralde-ereduaren eta -estrategien barruan.

3. Lurraldearen eredia

Araba Erdialdeko Lurraldearen Zatiko Planak eskaintzen duen erreferentzi esparruaren barruan, Vitoria-Gasteizko udalerrarentzako aukera berriak agertzen dira, honako ezaugarri hauek dituztenak:

- i. Vitoria-Gasteizen “makrozefalia” ez da arazotzat hartzen, halakotzat hainbestetan hartu izan bada ere. Aitzitik, Lurraldearen Zatiko Planak hazkundera bultzatu nahi du bai Vitoria-Gasteizko udalerrian bai bere inguruko beste udalerririk batzuetan, betiere egoitza-eskaintza aniztearren. Udalerririk nagusiaren hazkunde erantsiaren potentzial kuantitatiboa Lurraldearen Zatiko Planean mugatuta dago lasaiera handia eskaintzen duten kopuruekin. Lurraldearen Zatiko Planak ez du hazkundera oztokatzen gune nagusi kontsolidatuaren hazkunde-modu tradizionalari dagokionez ezta kanpoaldeko guneei edo egokiro eratutako gune berrien sorkuntza justifikatuari dagokienez ere, Lurraldearen Zatiko Planean bildutako Lurraldearen Ereduari jarraituz eta “jardun egokiaren” irizpide arauemaileak kontuan hartuta.
- ii. Hazkundearen kuantifikazioa, orain dauden gune txikiagoen zabalkuntzari nahiz beste berri batzuen sorkuntza potentzialari dagokienez, modu justifikatu batean egin beharko da, kasu bakoitzean egokitasuna eta aukera kontuan izanik, dibertsifikazioaren xedeari erantzunez eta udalerririk osoari egiten dien ekarpenaren arabera, betiere “RCN-5. Egoitza-kuantifikazioa” Hazkunde Berrien Erregulazioan adierazitako irizpide nagusiekin bat etorritik. Hazkunde berriek berez garrantzia izan dezaketela uste da, eta halakotzat kontuan hartu dira Vitoria-Gasteizko udalerririk zabalaren multzoan nahiz Lurraldearen Zatiko Planak ezarritako Lurralde Zatiaren izango duten kokapenaren arabera.

Hazkunde Berrien Erregulazioa RNC-6.2 HIRI ESPAZIO NAGUSI IZATEKO BOKAZIOA DUTEN GUNEEN HAZKUNDEAK

Hazkunde Berrien Erregulazioa RNC-6.2.1 HAZKUNDE SELEKTIBOA: GARRANTZIKO HAZKUNDEA BULTZATU BEHAR DENEKO UDALERRIAK

1. Udalerriak

Agurain eta Iruña Oka.

2. Xedea

Garrantziko hazkunde selektiboa bultzatu behar deneko udalerrri horien bereizketan oinarrituta, hiriguneen sisteman dagozkien hiriburuak bigarren mailako gune gisa itxuratuz, hazkunde horretarako ereduak ezartzea da asmoa, tamainari nahiz kokapenari dagokienez.

3. Hiri-antolamenduak kontuan hartu beharko dituen irizpideak, printzipioak eta arauak

- a. Irizpide nagusi gisa eta lehentasunezko helburuarekin bat etorritz, hazkundera aurretik dauden hiri-bilbeekin lotuta joango da.
 - i. Irizpide nagusiaren salbuespen gisa, loturarik ez duen edo aurretik dauden guneak euskarritzat ez dituen hirigintza-garapen bakarra onartzen da, betiere “RNC-6.6. Egoitzagune berri bakanduak” erregulazioan adierazitako baldintzetan.
 - ii. Hirigintza-garapenik kokatzen ez deneko gainerako guneen hazkundera Hazkunde Berrien Erregulazio honetan arautzen da: “RNC-6.5. Hirigintza-garapenik ez duten gune txikiagoen kontsolidazioa” eta, lurzoru urbanizaezineko landaguneen kasuan, 5/98 Legearen 2. artikuluan.
- b. Aurretik adierazitako lehentasunezko helburua betetzearren, plangintza orokorrak honako hauek bermatuko ditu:
 - i. Ingurumenari eta produkzioari dagokienez balioa duten naturguneak edo landaguneak errespetatzea.
 - ii. Orain dauden hiri-zerbitzuen gaitasunak edo erabil daitezkeen erreserben ahalmenak proiektatutako erabileren kopuruak sorrarazitako eskariei erantzutea ahalbidetzea.
- c. Plangintzak alde aurretik dauden eta osatu gabe dauden hiri-bilbeak bukatu eta finkatzeko joera erakutsi behar du, baita lehendik dagoen hirigunearen eta garapen berrien arteko integrazioa bermatzeko joera ere.

d. Lurzoru urbanizagarrien berezitasunak:

- i.** Jarduerak autonomia teknikoa eta finantzarioa izan behar dute.
- ii.** Sistema orokorrekiko dagozkien konexioak behar bezala konponduko dira baita gune tradizionalaren bereizgarri diren espazio publikoekiko konexioak ere.
- iii.** Bide-azpiegitura berriak garapen berrien oinarri izateko aukera emango du orain dagoen hiri-ehunaren funtzionaltasunaren kaltetan izan gabe, eta horretarako alde zuzenak aurretik haien euskarri izateko eraikita dagoen bide-azpiegituraren gaitasuna eta egokitasuna aztertuko da.

Hasiera batean, hazkunde berriak bide nagusietako batzuen luzapenean oinarrituz antolatuko dira, nahiz eta bide-sarearen luzapen automatikoa saihestu beharko den, bereziki asentamenduaren jatorrizko antolamenduaren emaitza den eta gaitasun urria eta landa-izaera nabarmena duten egiturei erantzuten dien kasuan.

- iv.** Sektoreetako mugen trazadura hirigintzako irizpideak kontuan hartuta egingo da; inoiz ez da udalerraren mugetara edo jabegoen mugetara egokitzeko asmoarekin zehaztuko, plangintzak trazadura hori helburu zehatzetarako eta plangintzaren ahalmen publikoarekin eta populazioaren etorkizuneko ongizatearekin bat etortzen diren helburuetarako egin dela ziurtatzen ez badu behintzat.
- v.** Plangintza orokorrak lurzoru horretako hornikuntzen oinarritzako sarea adieraziko du, orain dagoenarekin koherentea dela bermatzearen.

Espazio komunitarioek hiri-bilbearen leku nabarmenenak okupatu behar dituzte. Plangintza orokorrak nahiz garapenaren plangintzak hornikuntza marjinalak edo hondakin-hornikuntzak saihestuko dituzte, beren kokapena, dimentsioa edo forma dela-eta.

Hazkunde berriek bete ez diren premiei erantzuteko gaitasuna kontuan hartu beharko dute, premia horiek erabilerei nahiz eraikuntzari lotutakoak badira ere.

- vi.** Adierazitakoaren arabera aldaketa tipologikoak onartu ahal izango lirateke, betiere eraikuntza berriari altuera eta dentsitate aldaketak berekin ekarriko balituzkete. Hala eta guztiz ere, horietara mugatzeko hiriguneek egoitza-eskaintza erakargarria osatzeko eskaini dezaketen higiezinaren produktu mota kontuan hartu beharko litzateke, Vitoria-Gasteizko hiriak eskaintza berriaren ordezkoa izan beharko lukeen eskaintza izanik.

- e.** Egoitza-garapen berrietako lurzoru urbanizagarriko sektoreen batez besteko dentsitatea 40-60 etxe./ha izango da.

Hazkunde Berrien Erregulazioa RNC-6.2 HIRI ESPAZIO NAGUSI IZATEKO BOKAZIOA DUTEN GUNEEN HAZKUNDEAK

Hazkunde Berrien Erregulazioa RNC-6.2.2 ESKUALDE MAILAREN AZPITIK INTERESGARRIAK DIREN GUNEEN HAZKUNDEA

1. Udalerriak

Alegria-Dulantzi, Asparrena, Kanpezu, Legutiano, Otxandio eta Erribera Beitia.

2. Xedea

Udalerrri horiek hirugarren mailako udalerrri gisa bereizten dira hiriguneen sisteman, beren eskualde-mailaren azpitik duten garrantzia berresteko.

Lehentasunezko helburua dentsitate ertain eta txikiko egoitza-lurzoruaren eskaintza sortzea izango da, Vitoria-Gasteizko hiriburukoaren ordezkoa.

3. Hiri-antolamenduak kontuan hartu beharreko irizpideak, printzipioak eta arauak

Udalerrri horien gainean “RNC-6.2.1. Hazkunde selektiboa: garrantzizko hazkundera bultzatu behar deneko udalerrriak” Hazkunde Berrien Erregulazioaren “3” ataleko edukiak aplikatuko dira, honako berezitasun hauekin:

- a. Irizpide nagusiaren salbuespen gisa, loturarik ez duen edo aurretik dauden guneak euskarritzat ez dituen hirigintza-garapen bakarra onartzen da, betiere “RNC-6.6. Egoitzagune berri bakanduak” erregulazioan adierazitako baldintzetan.
- b. Plangintza:
 - i. Aldez aurretik dauden osatu gabeko hiri-bilbeak bukatu eta finkatzeko joera izango du, baita oraingo hirigunearen eta garapen berrien arteko integrazioa bermatzeko ere.
 - ii. Espazio publikoak sortu edota indartzera zuzenduko da, bereziki zentraltasun edota adierazgarritasun handiagoa duten horiek.
 - iii. Oraingo gunearen morfologia aldaraziko ez duten egiturak eta tipologiak hartu beharko ditu.
- c. Lurzoru urbanizagarriaren berezitasunak:



- i. Jarduerak autonomia teknikoa eta finantzarioa izan beharko dute. Horri dagokionez, plangintza orokorrak sektore etenak mugatu ahal izango ditu gune bakoitzean.
 - ii. Garapen berrietan altueren eta dentsitateen aldaketak berekin ekarriko dituzten barioak sustatu behar dira eraikuntza berrian, eta horietara mugatzeko hiriguneek egoitza-eskaintza erakargarria osatzeko eskaini dezaketen higiezinaren produktu mota kontuan hartu beharko litzateke, Vitoria-Gasteizko hiriak eskainitakoaren ordezkoa izan beharko lukeen eskaintza izanik.
- d. Egoitza-garapen berrietako lurzoru urbanizagarriko sektoreen batez besteko dentsitatea 30-50 etxe./ha izango da.



Hazkunde Berrien Erregulazioa RNC-6.3 ZEHAZTU GABEKO HAZKUNDEA DUTEN DENTSITATE TXIKIKO GUNEAK (Ordezko habitatak)

1. Udalerriak

Arrazua-Ubarrundia, Burgelu, Urkabustaiz, Valdegovia, Zigoitia eta Zuia.

2. Xedea

Zehaztu gabeko hazkundera duten dentsitate txikiko udalerriak dira. Euskadiko Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen "Habitat Alternatiboekin" bat datoz, Vitoria-Gasteizko hiriburuak eskaintzen duenaren egoitzamota ordezkoa eskainiz.

Lehentasunezko helburua dentsitate txikiko egoitza-lurzoruaren eskaintza sortzea izango da, ereditik ondorioztatzen den egoitza-gaitasunaren hartzaile gisa indartu beharreko gunek definituz.

3. Hiri-antolamenduak kontuan hartu beharreko irizpideak, printzipioak eta arauak

Udallerri horien gainean "RNC-6.2.1. Hazkunde selektiboa: garrantziko hazkundera bultzatu behar deneko udalerriak" Hazkunde Berrien Erregulazioaren "3" ataleko edukiak aplikatuko dira, honako berezitasun hauekin:

- a. Irizpide nagusiaren salbuespen gisa, loturarik ez duen edo aurretik dauden gunek euskarritzat ez dituen hirigintza-garapen bakarra onartzen da, betiere "RNC-6.6. Egoitzagune berri bakanduak" erregulazioan adierazitako baldintzetan.
- b. Plangintza:
 - i. Aldez aurretik dauden osatu gabeko hiri-bilbeak bukatu eta finkatzeko joera izango du, baita oraingo hirigunearen eta garapen berrien arteko integrazioa bermatzeko ere.
 - ii. Espazio publikoak sortu edota indartzera zuzenduko da, bereziki zentraltasun edota adierazgarritasun handiagoa duten horiek.
 - iii. Oraingo gunearen morfologia aldaraziko ez duten egiturak eta tipologiak hartu beharko ditu.
- c. Lurzoru urbanizagarriaren berezitasunak:
 - i. Jarduerak autonomia tekniko eta finantzarioa izan beharko dute. Horri dagokionez, plangintza orokorrak sektore etenak mugatu ahal izango ditu gune bakoitzean.



- ii. Hazkunde berriek bete ez diren premiei erantzuteko gaitasuna kontuan hartu beharko dute, premia horiek erabilerei nahiz eraikuntzari lotutakoak badira ere, batik bat Vitoria-Gasteizkoaren ordezkioak izango diren dentsitate txikiko/ertaineko hirigintza-garapenak eskainiz.
- d. Egoitza-garapen berrietako lurzoru urbanizagarriko sektoreen batez besteko dentsitatea 20-40 etxe./ha izango da.

Hazkunde Berrien Erregulazioa RNC-6.4 NEURRI TXIKIA DUTEN ORAINGO HIRIGUNEEN HAZKUNDEA

Hazkunde Berrien Erregulazioa RNC-6.4.1 EGITURARI DAGOKIONEZ BEREZITASUNAK DITUZTEN GUNEAK (Fundaziozko hiribilduak, hiri-bilbe interesgarria, populaketa kontzentratuko bilbea)

1. Udalerriak

Añana, Armiñon, Berantevilla, Bernedo, Lagran, Arraia-Maeztu, Lantaron, Peñacerrada-Urizaharra, Harana, Zalduondo, Zambrana eta Ubide.

2. Xedea

Garrantzi txikiagoa duten udalerriak dira, baina horietan berezitasunen bat identifikatu daiteke, adibidez: fundaziozko hiribildu bat edo gehiago egotea, interes handiko bilbea duen guneren bat izatea, edo populaketa kontzentratuko bilbe-mota duten guneak izatea.

Lehentasunezko helburua udalerrietako gune nagusien hazkundera indartzea da edo udal-estrategia justifikatueta oinarrituta aukeratutako herriena.

3. Hiri-antolamenduak kontuan hartu beharreko irizpideak, printzipioak eta arauak

Udalerrri horien gainean “RNC-6.2.1. Hazkunde selektiboa: garrantzizko hazkundera bultzatu behar deneko udalerrriak” Hazkunde Berrien Erregulazioaren “3” ataleko edukiak aplikatuko dira, honako berezitasun hauekin:

- a. Herri horien dinamika eskasa ikusita eta horietan funtsezko estrategiak udalerrietako gune nagusiak eta aukeratutako herriak indartzea izan behar duela kontuan izanik, gune horietan ez da loturarik gabeko hirigintza-garapenik baimenduko.
- b. Plangintza:
 - i. Aldez aurretik dauden osatu gabeko hiri-bilbeak bukatu eta finkatzeko joera izango du, baita oraingo hirigunearen eta garapen berrien arteko integrazioa bermatzeko ere.
 - ii. Espazio publikoak sortu edota indartzera zuzenduko da, bereziki zentraltasun edota adierazgarritasun handiagoa duten horiek.
 - iii. Oraingo gunearen morfologia aldaraziko ez duten egiturak eta tipologia hartu beharko ditu.



- c. Eraikuntzen altuera ingurunean dagoen neurrira egokituko da, funtzionaltasunaren arabera erabilera berezi batzuek egin ahal izango dituzten berariazko eskakizunen kasuan izan ezik, betiere garapen berriarekin eta aurretik daudenekin bateragarriak izan beharko dutelarik.
- d. Lurzoru urbanizagarriaren berezitasunak:
 - i. Jarduerak autonomia teknikoa eta finantzarioa izan beharko dute. Horri dagokionez, plangintza orokorrak sektore etenak mugatu ahal izango ditu gune bakoitzean eta, hirigintza-arloko legeriak eskatutako estandar guztiak betez, sektore desberdinei hornikuntza komunak proposatu ahal izango dizkie.
 - ii. Egoitza-garapen berrietako lurzoru urbanizagarriko sektoreen batez besteko dentsitatea 15-30 etxe./ha izango da.



Hazkunde Berrien Erregulazioa RNC-6.4 NEURRI TXIKIA DUTEN ORAINGO HIRIGUNEEN HAZKUNDEA

Hazkunde Berrien Erregulazioa RNC-6.4.2 POPULAKETA SAKABANATUKO BILBE UNITARIOKO EGITURA DUTEN GUNEA

1. Udalerriak

Barrundia, Iruraiz-Gauna, Kuartango, Ribera Alta eta Donemiliaga.

2. Xedea

Garrantzi txikiagoa duten udalerriak dira, eta horietan herri guztiek populaketa sakabanatuko bilbe unitarioa dute oraindik.

Lehentasunezko helburua udalerrietako gunen nagusien edo udal-estrategia justifikatuetan oinarrituta aukeratutako populazioen hazkundera indartzea izango da.

3. Hiri-antolamenduak kontuan hartu beharreko irizpideak, printzipioak eta arauak

Udalerri horien gainean "RNC-6.2.1. Hazkunde selektiboa: garrantzizko hazkundera bultzatu behar deneko udalerriak" Hazkunde Berrien Erregulazioaren "3" ataleko edukiak aplikatuko dira, honako berezitasun hauekin:

- a. Herri horien dinamika eskasa ikusita eta horietan funtsezko estrategiak udalerrietako gunen nagusiak eta aukeratutako herriak indartzea izan behar duela kontuan izanik, gunen horietan ez da loturarik gabeko hirigintza-garapenik baimenduko.
- b. Plangintza:
 - i. Aldez aurretik dauden osatu gabeko hiri-bilbeak bukatu eta finkatzeko joera izango du, baita oraingo hirigunearen eta garapen berrien arteko integrazioa bermatzeko ere.
 - ii. Espazio publikoak sortu edota indartzera zuzenduko da, bereziki zentraltasun edota adierazgarritasun handiagoa duten horiek.
 - iii. Oraingo gunearen morfologia aldaraziko ez duten egiturak eta tipologia hartu beharko ditu.
- c. Eraikuntzen altuera ingurunean dagoen neurrira egokituko da, funtzionaltasunaren arabera erabilera berezi batzuek egin ahal izango dituzten berariazko eskakizunen kasuan izan ezik, betiere garapen berriarekin eta aurretik daudenekin bateragarriak izan beharko dutelarik.



- d. Lurzoru urbanizagarrien berezitasunak:
- i. Jarduerak autonomia teknikoa eta finantzarioa izan beharko dute. Horri dagokionez, plangintza orokorrak sektore etenak mugatu ahal izango ditu gune bakoitzean eta, hirigintza-arloko legeriak eskatutako estandar guztiak betez, sektore desberdinei hornikuntza komunak proposatu ahal izango dizkie.
 - ii. Egoitza-garapen berrietako lurzoru urbanizagarriko sektoreen batez besteko dentsitatea 15-30 etxe./ha izango da.



Hazkunde Berrien Erregulazioa RNC-6.5 HIRIGINTZA GARAPENIK EZ DUTEN GUNE TXIKIAGOEN KONTSOLIDAZIOA

1. Udalerriak

Araba Erdialdeko lurraldean sartuta dauden guztiak.

2. Xedea

Entitate eskaseko guneetan hazkunde-moduak orientatzea, berezkoa duten dinamika ebolutiboarekin zerikusirik ez duen hirigintza-garapena haientzat aurreikusi ez denenean.

3. Hiri-antolamenduak kontuan hartu beharreko irizpideak, printzipioak eta arauak

3.1. Orokorrak

a. Plangintza:

- i. Aldez aurretik dauden osatu gabeko hiri-bilbeak bukatu eta finkatzeko joera izango du.
- ii. Espazio publikoak sortu edota indartzera zuzenduko da, bereziki zentraltasun edota adierazgarritasun handiagoa duten horiek.
- iii. Oraingo gunearen morfologia aldaraziko ez duten egiturak eta tipologiak hartu beharko ditu.

- b. Eraikuntzen altuera ingurunean dagoen neurrira egokituko da, funtzionaltasunaren arabera erabilera berezi batzuek egin ahal izango dituzten berriazko eskakizunen kasuan izan ezik, betiere garapen berriarekin eta aurretik daudenekin bateragarriak izan beharko dutelarik.

3.2. Lurzoru urbanizagarriaren berezitasunak:

- a. "RNC-5. Egoitza-kuantifikazioa" Hazkunde Berrien Erregulazioaren 2. paragrafoaren "f" atalean baimendutako hazkundera lurzoru urbanizagarriaren lursail hutsetan gauzatu ezin bada, gainerakoa lurzoru urbanizagarrian kokatuko da, betiere:
- i. Ingurumenari eta produkzioari dagokienez balioa duten naturguneak edo landaguneak errespetatzen badira.
 - ii. Jarduerak autonomia teknikoa eta finantzarioa badute. Horri dagokionez, plangintza orokorrak sektore etenak mugatu ahal izango ditu gune

bakoitzean eta, hirigintza-arloko legeriak eskatutako estandar guztiak betez, sektore desberdinei hornikuntza komunak proposatu ahal izango dizkie.

- iii. Orain dauden hiri-zerbitzuen gaitasunak edo erabil daitezkeen erreserben ahalmenak proiektatutako erabileren kopuruak sorrarazitako eskariei erantzutea ahalbidetzen badu.
- b. Bide-egitura berriak hazkunde berriak orain dagoen hiri-bilbearen funtzionaltasunaren kaltetan izan gabe ahalbidetuko du garapen berriak oinarritzea. Zentzu horretan, bide-sarearen luzapen automatikoa saihestu beharko da, bereziki asentamenduaren jatorrizko antolamenduaren emaitza den eta gaitasun urria eta landa-izaera nabarmena duten egiturei erantzuten dien kasuan.

- c. Zentzu honetan, hasiera batean, hazkunde berriak bide nagusietako batzuen luzapenean bakarrik oinarrituz antolatuko dira, edota eten-elementu gisa eta era berean lehendik dagoen sarearen eta berriaren arteko egituraketa-elementu gisa zerrenda berde bat edo hornikuntza-zerrenda bat erabiliz.

Hala eta guztiz ere, plangintza orokorrak irizpide honetatik aldentzeko aukera izango du gunearen irudia eta morfologia errespetatzen dituela eta gunearikiko behar bezala egituratzen dela ziurtatzen badu.

- d. Sistema orokorrekiko eta gune tradizionalaren bereizgarri diren espazio publikoekiko konexioak behar bezala konponduko dira.
- e. Plangintza orokorrak lurzoru horretako hornikuntzen oinarritzko sarea adieraziko du, orain dagoenarekin koherentea dela bermatzearen. Horregatik, espazio komunitarioek hiri-bilbearen leku nabarmenenak okupatu beharko dituzte.

Plangintza orokorrak nahiz garapenaren plangintzak hornikuntza marjinalak edo hondakin-hornikuntzak saihestuko dituzte, beren kokapena, dimentsioa edo forma dela-eta.

- f. Sektoreetako mugen trazadura hirigintzako irizpideak kontuan hartuta egingo da; inoiz ez da udalerraren mugetara edo jabegoen mugetara egokitzeko asmoarekin zehaztuko, plangintzak trazadura hori helburu zehatzetarako eta plangintzaren ahalmen publikoarekin eta populazioaren etorkizuneko ongizatearekin bat etortzen diren helburuetarako egin dela ziurtatzen ez badu behintzat.
- g. Lurzoru urbanizagarriak eraikuntza-tipoen eskaintza orekatua egingo du. Beren bolumen eta proportzioengatik, eta/edo lursailaren batez besteko dimentsioagatik, eta/edo asko erabiltzeagatik, egungo gunearen morfologiarekin kontraesanean daudenak saihestuko dira.
- h. Egoitza-garapen berrietako lurzoru urbanizagarriko sektoreen batez besteko dentsitatea 15-30 etxe./ha izango da.

Hazkunde Berrien Erregulazioa RNC-6.6 EGOITZAGUNE BERRI BAKANDUAK

1. Udalerriak

Lurralde-estrategiaren arabera Lurraldearen Zatiko Planak salbuespen gisa ahalbidetzen dituenak.

2. Xedea

Ohiz kanpoko hazkunde-era bat izanik, asentamendu-sistema nagusiaren berezitasuna indartzea.

Zalantzarik gabe, jatorrizko asentamendu-sistemak funtsezko bi baldintzei erantzuten zien: topografia eta hiriguneen eta haien euskarri ziren lur produktiboen arteko oreka-harremana.

Nahiz eta gaur egun gunek berriek jadanik laborantzako eremuekin zuzeneko harremana izan lezaketen ala ez, nekazaritzako paisaia eta habitat horretako oreka berezia (beteak/hutsak; hiri/landa integrazioa) mantentzeko asmoak lehendik dauden herrietatik beren entitatea eta ingurunearekin duten harremana “kopiatzea” ahalbidetuko luke.

3. Hiri-antolamenduak kontuan hartu beharreko irizpideak, printzipioak eta arauak

- a. Halako guneen sorkuntza udalerraren azterketa orokorra egin ondoren bakarrik burutu ahal izango da, baita udal-estrategien definizioaren bidez ere plangintza orokorra Lurraldearen Zatiko Planera egokituz edo berau berrikusiz, betiere udalaren hirigintza-politikak erdietsi nahi dituen helburuak egun dauden guneei lotutako hazkunde bitartez lortu ezin badira.
- b. Honako kasu hauetan bakarrik garatu ahal izango dira:
 - i. Ingurumenari eta produkzioari dagokienez balioa duten naturguneak edo landaguneak errespetatzen badira.
 - ii. Orain dauden hiri-zerbitzuen gaitasunak edo erabil daitezkeen erreserben ahalmenak proiektatutako erabileren kopuruak sorrarazitako eskariei erantzutea ahalbidetzen badu.
- c. Jarduera bakoitzak bere kontura bermatu eta konpondu beharko ditu hazkunde edo asentamendu bakoitzetik sortutako populazioari eta garapenari buruzko aurreikuspenak garatzeko behar diren sistema orokorrak, baita udalerriko gainerako sistema orokorrekiko konexioa ere.
- d. Halako asentamendu-motaren kokapenak oinarritzko bi gai betetzea izango du baldintzat:



- i. Toki-mailako bideen gainean kokatzea, lehendik daudenak edo proposatutakoak izan arren.
 - ii. Beste edozein hirigunetik gutxienez 750 metrora egotea, bere entitatea edozein izanik ere, ezartzen deneko ingurunearen nekazaritza-jarduera iraunarazten dela bermatuz, habitat horren izaerari dagokionez erabakigarria izanik.
- e. Gune bakoitzak Arabako herrixken antzeko neurriak izango ditu, eta ezingo du 25 etxebizitza baino txikiagoa ezta 50 etxebizitza baino handiagoa izan.
- f. Bere dentsitatea 15-30 etxe./ha izango da.
- g. Hirigintzako jarduera unitarioa proiektu arkitektonikoarekin lotura estua izango duen garapen xehatu bati lotuta egongo da.
- h. Guneetako mugen trazadura hirigintzako irizpideak kontuan hartuta egingo da; inoiz ez da udalerraren mugetara edo jabegoen mugetara egokitzeko asmoarekin zehaztuko, plangintzak trazadura hori helburu zehatzetarako eta plangintzaren ahalmen publikoarekin eta populazioaren etorkizuneko ongizatearekin bat etortzen diren helburuetarako egin dela ziurtatzen ez badu behintzat.
- i. Egoitza-espazioa espazio komunitario baten inguruan antolatuko da, erdigune gisa jardungo lukeena, esleitu ahal izango zaion berariazko xedetik harantz. Plazak, dendek, liburutegiak, frontoiak... egoiliarren eta beste herri batzuetako bizilagunen arteko topalekua adierazi behar dute.
- Plangintza orokorrak hornikuntza marjinalak edo hondakin-hornikuntzak saihestuko ditu, beren kokapena, dimentsioa edo forma dela-eta.
- j. Eraikinen tipologiek familia bakarreko edo bi familiako etxebizitza bakandu edo parekatu trinko gisakoak izan behar dute baita 3 edo 4 etxebizitzako familia anitzeko eraikin trinko gisakoak ere.
- k. Asentamendu berriek egoitzakoarekin bateragarriak diren bestelako jarduera batzuei harrera egin ahal izango diete, batik bat industria garbia edo tertziarioa, erabilera horien ezarpenak multzoaren morfologia aldaraztea saihestuz.
- l. Komenigarria izango litzateke eraikinek eraikuntza-lerroa osatzeko joera izatea, nolabaiteko jarraitutasun-eza antzemanda ere, eta betiere eraikinak partzelen parean kokatuz.
- m. Dagozkien hornikuntzen erreserbak ez dira nahitaez gunearen barruan kokatu behar. Horri dagokionez, gai honi buruz "RNC-7. Ekipamenduak" Hazkunde Berrien Erregulazioan zehazten diren aukeretako edozein hartu ahal izango da.

Hazkunde Berrien Erregulazioa RNC-7 EKIPAMENDUAK

1. Xedea

Lurraldearen antolamenduan hornikuntzaguneei bete dezaketen zeregin egituratzailea indartzea.

Ekipamenduak hiri-bilbearen elementu bereizgarriak dira, eta eskari anitzari eta tipologia bereziak zehazten dituzten baldintzei erantzuten diete. Gai horiek hirigunearen erreferentziako mugari gisa hartzea erabaten gaituzte. Horren ondorioz, hirigintzaren kulturak aspalditik aitortu du ekipamenduen antolatze eta egituratzeko duten gaitasuna.

Arabako lurraldearen eta bere asentamendu-sistema bereziaren kasuan, ekipamenduen hazkunde berriekiko duten posizioa kontuan hartzea merezi duen zerbait da.

2. Aplikaziorako irizpideak

- Hazkunde berriek hornikuntza-espazioen hornikuntzarako legez adierazitako estandarrei erantzun beharko diete.
- Garapen handiagoetan, orokorrean bertako bilbean hornikuntzak barneratzen dituzten horietan, honako hauek betetzen saiatu behar da:
 - Antolamendu berriaren barruan bereganatu dezaketen gaitasun fokalizatzailea aprobetxatzea, kokapen marjinalak saihestuz.
 - Espazioan lotura izango duen hornikuntza-sistema sortzea, espazio libreen sisteman oinarrituta, izaera eta garrantzi desberdina duten hornikuntzak lotuko dituen beren gaitasun egituratzailea agerian utziz.
 - Hornikuntzak garapen berrien eta lehendik dauden ehunen integrazio eta egituraketarako elementu gisa erabiltzea.
- Dimentsio mugatua duten gunetan xede horretarako diren lurzoru-erreserbak nahitaez garapen berrietatik hurbil ez kokatzea aurreikusi behar da. Kasu horretan tokiko plangintzak honako hauek betetzen saiatu behar du:
 - Ekipamenduen kokapena definitzean aukera desberdinak kontuan hartzea, hasteko xede horretarako lurzoruaren lagapenak hiri-ehun sortu berriekiko etenak izatea onartuz, eta beste batzuetara eransteko aukerarekin. Ekipamendua hiri-entitate desberdinen zerbitzura sortzeak eskaria bere eraginkortasun funtzionala iraunarazteko beharrezko masa kritikora iristea bermatzeko aukera ematen du.



- Ekipamenduak hurbileko inguruko hirigune tradizionaletako batean kokatzeko aukera aztertzea hirigune horien babes-neurri aktibo gisa, inplizituki beren balio sinbolikoa eta ondareari lotutakoa aintzatetsiz.
- Erabakiak hartzeko garaian ekipamendu batzuek berezkoa duten auzotartasun-izaera baloratzea, esate baterako haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeek eta zaharrentzako gizarte-etxe eta aisiaguneek.

Erabileren Antolamendu Espazialaren Erregulazioa ROEU-1 EGOITZA ESPAZIO BERRIA

1. Xedea

Egoitza-espazioari buruzko ikusmolde berria eskaintzea, eredu kultural berriek zehaztutako eskakizunetan oinarrituta.

Tipologiaren antolamendu espazialean antzematen den berrikuntza alderdirik interesgarrienetako bat izan da azken hamarkadetako hiri-espazioen eraikuntzan. Ingurumenari buruzko gaiak aintzat hartu eta baloratzeak, eguneroko jardueren aniztasun handiagoa lortu nahi izanak eta bizi-kalitate hobea bilatu nahi izanak aldaketak eragin dituzte lurzoruaren erabileran, eta aldaketa horiek okupazio handiagoan eta espazio berean jarduera desberdinak biltzeko gaitasunean islatu dira. Horrek, hain zuzen, eraikuntza-tipologiaren aldaketa baino gehiago tipologia horien hiri-espazioan antolatzekeo garaian transformazio nabarmena ekarri du berekin.

Transformazio horrek etxebizitza kolektiboan nahiz familia bakarreko etxebizitzan izan du eragina eta nabarmenagoa izan da hedatu diren ehunetan, non eredu kultural aldakorrei erantzuteko aukera baitagoen. Espazio nagusi tradizioaletan, lurzoruaren kostu handiak, lehendik daudenak eta dentsitate handiagoak eskaintza iraunkorrago mantentzen laguntzen dute, ahal eta guztiz ere azalera eta funtzionaltasun / berezitasunean eskatzaile berriekiko egokitua.

2. Aplikaziorako irizpideak

- Espazio librea partzela eraikigarrian barneratzea baloratzea, administrazio publikoarentzat kargarik adieraziko ez duten lorategiez hornitutako berdeguneak gehituz hirigintzaren kalitatea handitzen den neurrian.
- Espazio librea partzela eraikigarrian barneratzea baloratzea, erabilera komunitarioetarako espazioak eskueran izatea esan nahi duenez eskari berrirako ezaugarri positiboa gisa —egonaldiako, jolaserako, kirola egiteko... eremuak—, biztanleentzako hornikuntza-eskaintza iraunkorra gehitzen dutela kontuan hartuta.
- Egoitza kolektiboaren multzoen antolamenduan eraikinen altuera kontrolatzeko komenigarritasuna kontuan hartzea, eta produktu higiezin desberdinen multzo berean elkarrekin egotera bultzatzea.
- Familia bakarreko etxebizitza elkarri itsatsitako antolamenduetan —baliteke eskaria gehien handitu duen tipologia izatea— ehun homogeenaren eta egiturarik gabearen hedadura handiak saihestea, harreman sozialak indartuko dituen eta erabilera desberdinak eta osagarriak batera egotera bultzatuko duen erabilera publikoko lekuen hierarkizazioa sorraziz.

Erabileren Antolamendu Espazialaren Erregulazioa ROEU-2 EGOITZA ESPAZIO KONTOLIDATUA

1. Xedea

Lehendik dagoen egoitza-espazioa kuantifikatzea.

Nahiz eta arreta hiri-espazio berrien sorkuntza orientatzen duten eredueta jarri ohi den, lehendik dauden guneen ingurumen-kalitatea eta kalitate funtzionala, edo beharrezko kasuetan beren birkualifikazioa, interes handiko gaiak dira eraikitako ondarearen kalitatea eta bizigarritasunari nahiz funtzionamendu integratuari dagokienez lurraldearen eraginkortasuna mantentzeko begira.

2. Aplikaziorako irizpideak

- Eraikitako ondarea finkatzea eta zaintzea, hala badagokio, hiriguneeen utzikeriaren edo narriaduraren kausa interpretatuz eta, aldi berean, birgaitzeko lanen politika aktiboari aurre eginez. Arabako lurraldearen bereizgarri diren herrigune txikien egoera baloratzea, birgaitzeko asmoari bere zentzuzko “modernitatea” oraindik aintzatetsi ez zaion habitat horren sustapena gehituz.
- Arreta orain dauden ehunak birgaitzeko lanean oinarritzea, baita eraikitako ondarearen ingurumenaren birkualifikazioan ere, egon daitezkeen disfuntzioak gaitzeko gako gisa.
- Populazio iraunkorra erakartzea baita egoitzarekin eta asentamenduen morfologiarekin bateragarriak diren beste jarduerak batzuk ere, hiri-ehunak indartzeko modu gisa.
- Eraikitako ondarea birgaitzeko ekitea, eraikuntzek berezkoak dituzten ezaugarriak iraunarazten eta ezaugarri horiek gaur egun egoitzari lotutako eskakizun funtzionaletara eta erosotasun-eskakizunetara egokitzen saiatuz, indartze-prozesuan laguntzeko modu gisa.
- Hirigintzaren birkualifikazioan arreta jartzea (“ROEU-5. Urbanizazio-aukerak” Erabileren Antolamendu Espazialaren Erregulazioan adierazten diren aukerak kontuan hartzea) oraindik ez dauden zerbitzuak eta azpiegiturak aurreikusiz eta espazio publikoaren paisaiaren diseinua zaindraz, betiere asentamendu desberdinei berezitasuna, ingurunearekiko integrazioa eta, beraz, nortasun bereizgarria eskaintzen saiatuz.

Erabileren Antolamendu Espazialaren Erregulazioa ROEU-3 JARDUERA EKONOMIKORAKO ESPAZIO BERRIA

1. Xedea

Jarduera ekonomikoetarako espazio berrien eraikuntzan ondorioa izatea, oraingo eskakizunei erantzunez.

Egoitza-espazioan gertatu den bezala, jarduera ekonomikoetarako esparruek eskakizun funtzional eta hiri-kalitateari lotutako gero eta eskakizun handiagoei erantzun behar izan diete azken hamabost urteotan, ordura arte ohikoak ez zirenak, eta ondorioz erabileren antolamendua aldatu egin da, partzelaren barruan nahiz ezarpenaren hiri-ingurunean.

Aldaketa horiek produkzio-prozesuen aldaketek ekarri dituzte berekin —aurrerapen teknologikoen eta telekomunikazioen eraginez—, jarduera guztien garapenean tertziarizazio maila desberdinak barneratu baitzituzten, neurri handi batean produkzio-enpresetan.

“Industriaren” kontzeptu tradizionalan nekez sar daitezkeen zerbitzuek eta jarduerak, gero eta gehiago eta hobeto moldatzeko, duela ez hainbeste ohikoak zirenak ez bezalako edukiontzia eta ingurumen-baldintzak eskatzen dituztenak.

2. Aplikaziorako irizpideak

- Hirigintzak mugikortasunaren premiari erantzun behar dio, fluxuak eraginkortasunez bideratuz eta maniobrak erraz egitea ahalbidetuz. Horren ondorioz, azalera gehiago behar da bideen kontzeptu generikorako.
- Hornikuntzek legez ezarrita dauden estandarrak errespetatu beharko dituzte, baina gehitzea edota egokitzea eska dezakete produkzio-espazio kualifikatuenei dagozkien premien arabera, beren eraginkortasun funtzionalerako zerbitzu komunak, merkataritzako eremuak, kirol-espazioak eta abar eskatzen baitituzte erabilera-maila handia izango dutenak.
- Erabilera industrialak bere jarduera ugaritan izan duen eboluzioak eta zerbitzuei dagokienez dituen premiek hiri-espazio berean jarduera desberdinak batera egotea ahalbidetzen dute, esparruaren antolamendu espazialean islatuz.
- Lurzoru-azalera handiagoa duten partzelak edukitzeko premia baloratzea, jarduerak lurzoru librea eskatzen baitute beren barrualdean arrazoi funtzionalak direla eta —karga eta deskarga konpontzea, aparkatzeko lekuak— baina baita ingurumenari lotutako arrazoiengatik ere —lorategiez hornitutako espazioak jarduera birkualifikatuz—.
- Parametro eta antolamendu espazialak egokitzea, jardueren garapen berriari erantzun egokia emateko eta beste hiri-espazio batzuekin integratzea —edo hala badagokio egituratzea— sustatzeko.



- Ondoren —erreferente gisa bakarrik eta sakontasunetan sartzeko batere asmorik gabe— jarduerak dituzten ezaugarrien arabera antolaera desberdinetarako determinazio egoki batzuk adierazten dira.

INDUSTRIA TXIKIEN EDO LANTEGIEN ANTOLAMENDUA

Tradizioz hiri-bilbean sartuta egon diren jarduerak biltzen ditu, batik bat egoitzen etxabeetan.

Nahiz eta, orokorrean, egoitzarekin bateragarriak izaten jarraitzen duten, kasu gehienetan interferentzia funtzionalak izan ditzakete egoitzarekin baita disfuntzionaltasunak ere jardueraren beraren garapenean, beharrezkoak diren gutxieneko azpiegiturarik ez izategatik.

- Hirietan mikropoligonoak antolatzea —karga eta deskargarako espazio komunez, ekipamenduez eta multzoaren zerbitzurako azpiegituz hornitutakoak (bulegoen area ekipatua eta inbertsioak errentagarri egin eta gastu finkoak murriztuko dituen pertsonal komunarekin, adibidez)— inguruneko hiri-ehunera ondo integratzea eta aldi berean jardueraren garapenean berariazko eskakizunak betetzea ziurtatzeko modu gisa. Antolaera eraginkorra da garapenerako azalera mugatua eskatuz inguruneko egoiliarrekin hurbiltasunezko nolabaiteko mendekotasuna mantentzen duten jardueretarako (zurgindegiak, konponketa-lantegiak, jostunenak, lantegi mekanikoak eta abar).
- Mikropoligono industrialek eraikuntza-soluzio desberdinen aurrean izan dezaketen malgutasuna baloratzea. Honako aukera hau kontuan hartzea: eraikuntza jarraitua, perimetrala, altuera bat edo bikoia, barrualdeko espazio libre batera begira, komuna, non urbanizazio egokiaren bidez eta lorategiak jarriz karga eta deskargarako espazioa konpon daitekeen.
- Orientazio moduan, gutxieneko partzelak 5.000 m² baino txikiagoa ez lukeela izan behar eta partzelaren gehienezko okupazioak ez lukeela %70 gainditu behar onartzea. Eraikuntzak proiektu bateratu bati erantzun behar lioke.
- Era berean, antolaera hori aukera baliagarria izan daiteke jardueren Parkearen barruan berariazko enklabeak antolatzeko, bereziki habia-industrietarako edo enpresen haztegiarako, beren barruan bananduta nahiz berezita.

JARDUERA “PARKEEN” ANTOLAMENDUA

Enpresa ertainek eta handiek jarduera-parkeak osatuz antolatzeko joera erakusten dute: “negozio-parkeak”, “enpresa-parkeak”, “ikerketa-parkeak”, “parke teknologikoak”, “parke industrialak”.

Gaur egun, “parkeak” jardueraren espazio berriak adierazten dituzte, industrialdeetako jatorrizko antolamendua tradizionala gaindituz. Nahiz eta “parke” kontzeptua denborarekin eboluzionatzen joan den —tertziarizazio-maila edo berrikuntza teknologiko handiagorekin jarduerak garatzen dituzten enpresen bultzadari jarraituz— perfil altuko eta punta-puntako teknologiako enpresetarako ingurune egoki bihurtzeraino, prestigiozko produktua arkitekturaren eta paisaiaren diseinu on bati



lotuta erakutsi nahian, esan daiteke antolaera honen azpian gaur egun, aipatutako izenek berez adierazten duten bezala, ia jarduera ekonomiko guztiak bildu ditzaketela.

- Inguruneko paisaia eta ingurumenaren kalitatea baloratzea enpresak ezartzeko lekua aukeratzean eragin handia duten faktore gisa.
- Urbanizazioan, jardueraren barrualdeko eremuaren antolamenduan eta bere ingurumenean kalitate handia lortzea premisatzat hartzea, “parkeei” eskatzen zaizkien funtsezko ezaugarriak izanik.
- Arkitektura zainduan eta eraikuntzako materialen aukeraketan arreta berezia jartzea. Enpresek beren jardueraren edukizaillearen irudia hartzen baitute “marka” gisa.
- “Parke” mota desberdinak identifikatzea ahalbidetzen duten giltzarriak baloratzea. “Parke industrial” eta “negozioen parkea” mutur gisa hartuz, aukera zabala ezar daiteke bien artean, horietako bakoitzean **osagai industrial edo tertziario berritzailearen nagusitasun** mailan oinarrituta. Honako hauek kontuan hartzea:
 - Espazio libreen portzentajea ezartzen diren jardueren tertziarizazio-maila handitu ahala gehitzen da, gutxi gorabehera jardueraren %40ra iritsiz. “Parke” aurreratuenek urbanizatu gabeko espazio “hutsak” barneratu ohi dituzte, alegia lorategi naturalak, espazio babestuak, edota lurzoru komunak inguruneko ingurumenaren kalitateak horrelakorik ahalbidetzen duenean.
 - Tertziarizazioa zenbat eta handiagoa izan orduan eta handiagoa da baita ere kanpoaldeko espazio bateratu baten eraikuntzan jarritako ardura eta arreta, eta hori bi erabaki-motatan islatzen da: a) partzelek ezarritako mugak ezabatzea, lorategiez nolabait hornitutako zona jarraitua eta sartzeko modukoa sortuz eta b) oinezkoen ibilbide-sare bat zehaztea, bide-saretik at, parkeak eta lorategiak kokatuz lantokira “paseatuz” iritsi ahal izateko moduan.
 - Era berean, produkziarako eta pertsonentzako zerbitzuen pisu erlatiboa handitu egiten da “parkeak” produktu industrial tradizionaletatik aldendu ahala. Lehenengo kasuan segurtasun-sistemari dagozkionak nabarmentzen dira eta, bigarrenean, ekipamendu-multzo zentralizatuak, lokal komertzialak, banketxeak, gimnasioak, taberna/jatetxeak, administrazio-suiteak eta abar barne hartuz.
- **Hurbileko hiri-garapenekiko kokapena** kontuan hartzea “parkeen” barrualdeko antolamenduan eragina duen elementu gisa. Honako hauek kontuan hartzea:
 - Hiri-ehunetatik gertu kokatuta dauden “parkeek”, hiri-inguruko jarraitutasun gisa edo hutsune periferikoak edo birmoldatzen ari diren eremuetako hutsuneak okupatuz, lotura handiagoa dute inguruneko baldintzekiko beren autonomia funtzionala mantentzen duten arren. Horrez gain garraio publikoaren sarera hobeto integratuta egon ohi dira.
 - Konplexuenak eta modernoak kokaleku isolatuagoetan ezarri ohi dira, irisgarritasunaren eta lurzoruaren kostu txikiagoaren arabera, eta horrek garapen handiagoak eta hornikuntzagune onak eta berdegune gehiago izateko behar adina masa kritiko lortzeko gaitasuna duten antolamenduak ezartzea

ahalbidetzen du. Mugikortasun pribatuarekiko lotura handia dute, eta hori antolamenduan aparkatzeko leku zabalagoak barneratzean islatzen da.

- **Dentsitatearen** arazoa arretaz aztertzea, lortu nahi diren helburu desberdinekin lotura duen aldagaia den aldetik. Hala ere, aldagai horrek erlazio onargarria lortu behar du lurzoruaren kostuak, urbanizazioak eta abar izan ditzakeen ondorioekiko. Eskala handiagoko “parkeek” baldintza hobeak eskaintzen dituzte antolamendu espazial desberdinen eta higiezinaren produktu desberdinen antolamendu osagarriak, eskari desberdinetara egokitutako eskaintzak sortuz. Antolamendu berriek “auzune” desberdinak sartzen dituzte beren barrualdean, hornikuntzagune ahalmentu eta sinboliko baten bidez egituratuak.
- Jardueren parke baten sorkuntza bultzatzeko, hauek dira gomendatzen diren urratsak:
 - Eskaini nahi den **produktu-mota** definitzea: jarduera nagusiak, dimentsio orokorrak eta partzelazioarenak, kudeaketa/komertzializazioa (salmenta, alokairua, eta abar).
 - Ezarriko den **kokalekua** definitzea, irisgarritasunari lotutako eskariei erantzunez eta espazio libreak egotea ahalbidetuz.
 - **Higiezinaren produktuak egokitzea** bezero posibleekin harremanetan jarriz eta eskaintza pertsonalizatuagoari bide emanez, jardueran hasiera batetik arrakasta lortzeko bidea erraztuz.

BESTE ANTOLAMENDU BATZUK

Arabako lurraldearen ezaugarriak kontuan hartuta, komenigarria litzateke jarduera industrialak eta nekazaritzako jarduerak batera egoteko aukera aipatzea, orain arte ohikoa izan ez dena.

- Eremu misto industrialak/nekazaritzakoak baloratzea. Espazio libreen presentzia nabarmenduko litzatekeen espazio industrialak lor liteke —tradizionalagoa—, espazio horiek jardueraren kontura soilik berdegune gisa edo kirolerako eremu komun gisa hartuko balira sortuko liratekeen desekonomiak saihestuz.
- Partzela eraikigarri txikiagoen ehuna antolatzea bultzatu daiteke jardueraren ertzetan —urbanizazioak berekin dakartzan kostuen ondorioa arrazionalizatzearen— baita partzela handiagoenak ere —libreak— barrualdean, nekazaritzako jarduerak garatu ahal izateko.
- Erabileren nahastea lortu beharko litzateke, eta bertan nekazaritza barne hartuko litzateke beste ustiapen-modu batzuetara egokituz, eta soilik nekazaritzaren transformazio-jardueretara bideratutako industrialdea eratzeko helburua baztertu beharko litzateke. Jarduera berritzaileetara lotutako lurzorua kontuan har daitezke —labore-lurretan eta dagozkien azpiproduktuetan esperimintatzea— eta horietan kudeaketarako modu berriak sor daitezke —nekazariei eskaintutako jabego publikoko lurzorua jadanik ezagutzen den lurzoru industrialen modura—.
- Jardueren espazio berezi horiek, beste edozeinek bezala, lege ezarritako hornikuntza-parametroak bete beharko dituzte, azalera eraikigarrian aplikatutakoak



hain zuzen, horrez gain jarduera kualifikatzeko beharrezkotzat jotzen den zerbitzuen eskaintzarekin erantzunez.



Erabileren Antolamendu Espazialaren Erregulazioa ROEU-4 ORAINGO ESPAZIO INDUSTRIALA

1. Xedea

Orain dagoen espazio industrialak kualifikatzea. Araba Erdialdean espazio industrial garrantzitsuak daude, kontsolidazio-egoera desberdinetan, eta espazio horiek arreta eskatzen dute. Batetik, Vitoria-Gasteizko hirigunean kokatutako industria. Bestetik, garrantzi desberdina duten industrialdeak.

Kokaleku nagusian dauden eremu industrialetan ziurtatu daitekeen erabilera-aldaketarako joeratik harantz, hirien eboluzioarekin batera gertatutakoa, produkzio-eremuen mantentze edo birkualifikazio funtzionalean eta ingurumenari dagokion horretan arreta berezia jarri beharko da, beren lehiakortasuna iraunarazi dezaten.

2. Aplikaziorako irizpideak

- Kasu bakoitzean indarrean dagoen erregulazioa egokitzeko premia baloratzea, lurzoru erabilgarriak lohiz betetzeari ekiteko nahiz eraikitako ondarean egin daitezkeen berrikuntza-lanetarako.
- Produkziarako espazioa birgaitzeko politikaren garapenari dagokion esparruan, oinarrizko hiru alderdi kontuan hartzea:
 - **Berriro urbanizatzeko lanak**, bereziki aparkatzeko eremuen konponbideari ekinez, salgaien karga eta deskargarako, sailkatutako hondakinen edukiontzia kokatzeko enklabe egokiak eta hondakin horien bilketarako zirkuituak antolatzeke, oinarrizko azpiegituz hornitzeko eta hondakin toxiko edota kutsatzaileak biltegitatu eta ezabatzeko lanak arrazionalizatzeko.
 - **Espazio libreak zaindu eta hobetzeko lanak** lorategiez hornitzeko eta egonaldiako eremuak sortzeko, edo horrelakorik ez badago haiek proiektatzeko.
 - **Esparruak berriro ekipatzeko lanak**, gabezia orokorrak gainditzeko ez ezik zerbitzu berritzaileez hornitzeko ere, jardueraren espazioa eguneratu ahal izateko.

Erabileren Antolamendu Espazialaren Erregulazioa ROEU-5 URBANIZAZIO AUKERAK

1. Xedea

Garapen berrien legezko urbanizazio-baldintzei modu berritzaile batez erantzuteko gaitasuna sustatzea. Hirigintzako azpiegitura-kontzeptuari lotutako alderdiak bereizten laguntzea, akabera gisa honako hauek kontuan hartuz: diseinuaren irizpideak, irizpide estetikoak eta paisaiaren inguruko kontsiderazioak, hiriko ingurumenaren eraikuntzari eta ingurunean garapen desberdinak integratzeari begira aukera handiagoa ahalbidetzeko.

2. Aplikaziorako irizpideak

- Garapen berriek indarrean dagoen legeriak ezarritako baldintzak bete beharko dituzte oinarriko azpiegiturak bermatzeko: saneamendu eta ur-hornikuntzarako sareak; linea elektrikoak; gas-hornidura, telefonia eta argiteria publikoa, hala badagokio, udal sareetara behar bezala konektatuta.

Baldintza horietatik jardueraren kontura izango diren ordezkoko beste sistema batzuen bidez zerbitzu horien hornikuntza bermatzen duten asentamenduak bakarrik geratuko dira salbuetsita.

Garapen berrietan ur-hornikuntza, saneamendu eta elektrizitate-hornidurari lotutako barrualdeko azpiegiturak egin beharko dira, udal-zerbitzuen adar-azpiegituretarako konexiorik behar izango ez den kasuetan ere.

- Garapen berrien lurralde-konexioari dagokionez, bide-azpiegitura nagusirako loturak hormigoizkoa edo asfaltatua izan beharko du beti. Gainerako bide-sareak zoladuraren egitura egokia izan beharko du, azpi-oinarriko geruzekin, bitarteko geruzekin eta errodaturazkoarekin. Errodaturazkoak ehundura edo kolore desberdinak izan ditzake ingurunearekiko integrazio hobea lortzeko erdietsi nahi den ingurumen-kalitatearen arabera, bere eraginkortasun funtzionalak berezkoa duen erabilgarritasuna ziurtatuz.
- Hirietan, zirkulazio-fluxuen magnitudearen eta eguneroko bizitzako eragileen aniztasunaren arabera, urbanizazioak araei gehiago lotzen zaizkien erduei erantzun beharko die, guztientzat konbentzionalagoak diren horiei, hiriko bizitzaren jardun egokia ziurtatu eta antolatzeko.
- Hiri-altzariek, argiek eta lorategi motak sortu nahi den nolabaiteko giro hiritarraren ezaugarriekin koherenteak izan beharko dute, baita partzela pribatuen hesi eta itxitura-elementuek ere.
- Landa-izaerako garapenetan, argiteria publikoa partzela bakoitzeko kanpoaldeko argiztapen-elementu pribatuek ordezkatu dezakete.

IBILGAILUEN KANALEI BURUZ

Bide-azpiegituren diseinuari dagozkion ezaugarriak arloko funtzionaltasun-irizpideen bidez ez ezik beren ingurunean sortzen lagundu dezaketena kontuan hartuz ere hartu beharko dira.

Gainazalaren akabera

Ibilgailuen zirkulazio-bideek dagokion asentamendu-motaren, aurreikusitako zirkulazio-fluxuen eta ingurunearekin lortu nahi den erlazioaren arabera gainazalaren tratamendua edo errodadura-geruza izan dezakete. Sortutako habitataren ezaugarriak eta higiezinaren produktuak bereizteko helburua garrantzizko arrazoiak dira aukeraketa egiteko garaian.

Asfaltoa, *slurrie* koloreztatuak, galtzadarri-zoladura, zabor-legar trinkotuak, makadama, hartxintxarra... onar daitezkeen aukera desberdinak dira, oportunitate eta eraginkortasun funtzionalaren irizpideen bidez aukeratu beharko direnak, betiere euskarritzat izango duten zoruaren aukeraketarekin eta dimentsioekin bat etorritz.

Bideek lurraldean duten kokapena

Bide-ardatzak lurraldearen kotaren azpian kokatzeak ibilgailuen zirkulazioaren inpaktua arintzen du asentamenduetan eta oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazio-sareak bereizten laguntzen du, traza paraleloak izan arren.

Zintarria desagertzen da, bi zirkulazio-sistemen artean zerrenda berde bat tartekatzea ahalbidetuz —ezponda txiki batetik ibiltzeko moduko igarobide bateraino, eremu librearen egituratzeko ahalmena izanik—.

Bideen zeharkako sekzioa

Ibilgailuen kanalaren sekzioa ondo zehaztea ezinbestekoa da bere eraginkortasun funtzionala ziurtatzeko, ingurumenari dagokionez kualifikatutako espazio bat lortzeko lehenengo ezaugarria izanik.

Bidearen gaitasuna ebatzi ondoren, zirkulazio-erreiak, garraio publikoaren geralekuak, eta aparkamendu publikorako eremuak ebaztea bere sekzioa erabakitzeko oinarritzko gaiak izango dira.

Era berean, bideen hierarkiak diseinuen bilduma ñabartzeko aukera emango du: galtzada bakarra edo lorategiez hornitutako banalerro batez bereizitakoak; garraio publiko edo bizikletetarako erreserbatutako erreiak, erdian edo alboan kokatuta; aparkalekuen zerrendak albo batean edo bietan, lerroan edo 45° gradutara, aldizka espaloien luzapenek etenda (garraio publikoaren geralekuak, hondakinen edukiontzia kokatzeko lekuak...); oinezkoen pasabideak, nibelean —semaforoekin edo gabe—, gaineko pasabidean edo lurrazpikoan; eta abar.

Fluxuen trukeguneak



Azpiegituren trazadurari buruzko hirigintza-lurraldearen ikuspegitik, bide-elementuen arteko fluxuen trukeguneen lurraldeko diseinuari eta kokapenari dagozkien ezaugarriek garrantzi handia hartzen dute. Ibilgailuen kanalen arteko gurutzaguneei esker kanal horiek sortzen diren ingurunerako irisgarritasun handiagoa eskaintzen da, loturaren diseinuak eraginda betiere aprobetxatzen ez dena, arloko adiera bakarreko logikatik ebatzita fluxuen trukea bermatzen duena irisgarritasun bereizgarri horren lurraldea hartzeko aukerarik eman gabe.

Gurutzagune ortogonaletan espaloien zabalkuntza, oinezkoentzako irisgarritasun eta espazio handiagoarekin eta aparkalekuak ezabatzean ikuspen zabalagoarekin, edo biribilguneak, hirikoak diren fluxuak antolatu eta banatzeko elementu gisa erabiliak, gero eta sarriago erabiltzen hasi dira beste kokaleku batzuetan, funtsezko bi arrazoierengatik: truke-mugimenduen argitasun handiagoa eta inguruneari eskainitako gizabide handiagoa, inguratzen duten lurzoruetarako irisgarritasuna ahalbidetuz. Jakina, lurraldearen kokapenaren eta eskatuko zaien trafikoaren kanalizaziorako gaitasunaren arabera, biribilguneen tamaina hirian ohikoak direnak baino askoz ere handiagoa izango da —barrualdean erabilerei harrera egiteko moduan ere— eta berez lurraldean elementu sinboliko bihur daitezke.

Mugitzeko gaitasun urria duten pertsonentzako sarbide-elementuak, eta gurpildun elementuak, esate baterako haur-kotxeak edo erosketakoak, orgatxoak, bizikletak eta abar erabiltzen dituzten horientzako direnak orokorrean fluxuen trukeguneekin lotuko dira, eta luzetarako nahiz zeharkako noranzkoetarako aztertu behar dira.

ESPALOI EI BURUZ

Eremu nagusietan edo egoitza-eremuetan biztanleak oinez ibili ohi dira, betetzen dituzten jardueren arabera ez ezik paseo gisa baita ere. Ordea, ez da gauza bera gertatzen industrialdeetan. Ezta hirigune txiki bakanduetan ere, leku horietan oinezkoa arriskurik gabe ibil daitekeelarik kaletik edo landa-ingurunetik paseatu. Esandakoarekin soluzioak homogeenak izateko joerari buruz ohartarazi nahi da.

- Oinezkoen zirkulazio-sareak berebiziko garrantzia duen elementua da hiriko espazioan bizitzeko. Oinezkoentzako erreserbatuta dagoen kanal bat aurreikustea oinarrizko elementua da haien babeserako, eta beti ere orientatzeko elementua, baina ibilgailuen zirkulazio-kanalekiko nahiz zeharkatzen dituzten lekuekiko baldintza edo independentzi maila desberdinak izan ditzake.
- Hirigune ertain eta handi guztietan ezinbestekoa da “espaloia” elementua dagokion ñabardura tradizionalan izatea, diseinuaren tratamendu berritzaileenetara eta anitzenetara irekia.
- Eremu industrialetan gerta daiteke espaloirik ia ez agertzea, eta horien ordean lorategiez hornitutako zerrendak eta berdeguneak jartzea, edota espaloiak ibilbide egituratzaileenetara mugatzea.
- Herri txikiak ibilgailuen zirkulazioa neurri handi batean biztanleen etxerako ibilbideetara mugatuta geratzen den lekuak dira, eta espaloia albo, adreilu-hauts, zurezko ohol edo harlauzako bide bihurtuak izan daitezke, beharbada etena izan daitekeen zerrenda baten erdian kokatua. Hau da, ibilbidearen aukera bakarra izan daiteke, kaleak ibiltzeko kanal integratua izaten jarraituko duen neurrian,



beharbada oinezkoentzako erreserba kolore-aldaketa sinple baten bidez edo zolatutako zonan dagokion seinaleztapenaren bidez adierazi ahal izango dena.

- Galtzadaren eta espaloiaaren arteko kota erlatiboa, bien zoladurak, eta aldizka bereizteko agertzen diren mugarriak, trazadurarekin batera, funtsezko elementuak dira kasu bakoitzean lortu nahi diren helburuen arabera diseinuan kontuan hartu beharrekoak.



Udal Ekintzaren Erregulazioa RAM-1 HIRIGINTZAREN ESKUMENA ERABILTZeko JARRAIBIDEAK Lurraldearen Arloko Planei dagokienez

1. Xedea

Arloko determinazioak Lurraldearen Zatiko Planari dagozkion horiekiko osagarriak ote diren argitzea, udal-plangintzara eramaten direnean.

Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legeak 17. artikuluan ezartzen duenez, lurralde-plangintzaren determinazioak arloko plangintzari dagozkion horien gainetik nagusitzen dira.

Hala ere, Lurraldearen Zatiko Planen izaera estrategikoak plan horiek lurraldearen ikuspegi orokorretik arloko plangintzari dagokionez hautespen bidez interesgarriak izan daitezkeen gai batzuk bakarrik aintzatestera bultzatzen ditu: multzoan adierazgarriak direnak, alegia.

Arazoi horregatik, udalerriek, hirigintza-arloan dituzten eskumenak erabiliz, lurzorua sailkatu eta kalifikatzeko berezkoak dituzten tresnak erabili beharko dituzte, lurralde-plangintzaren determinazioak ez ezik harekin kontraesanean eroriko ez diren arloko plangintzaren determinazioak ere udal-espaziora eramateko, aipatutako Legeak 22. artikuluan ezarritakoa betez.

Zeregin honek, alegia lurzorua sailkatu eta kalifikatzeak, maila-aldaketa bat dakar berekin determinazioak gauzatzeko prozesuan, beharrezkoa izanik tokiko plangintzara lurralde-hedadura duten determinazioak eraman ahal izateko, baita mugaketa zehatzak dituzten eremuak bildu ahal izateko ere.

2. Aplikaziorako irizpideak

- Araba Erdialdeko eskualde-egituran aplikatzekoak diren Lurraldearen Arloko Planak honako hauek dira:
 - Nekazaritza eta Basozaintza Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
 - EAEko Inguru Hezeak Babesteko eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
 - EAEko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
 - Euskal Kultura-ondarea Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
 - Etxebizitzen Sustapen Publikorako Lurzorua Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
 - Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
 - Haize-energia Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
 - Euskadiko Errepideen Plan Orokorra.

Halaber, honako arloko plan hauek ere aplikatzekoak dira:

- Arabako Errepideen Plan Integrala.

- Bizkaiko Errepideak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.

Ingurumenaren eta nekazaritzaren ikuspegitik balioa duten espazioei buruz

- Udal-plangintzan, lurzoru urbanizaezinen sailkapenak arloko plangintzan babestutako espazio horiek bildu beharko ditu, ingurumenaren eta produkzioaren ikuspegitik dituzten kalitateen arabera.
- Horretarako, Nekazaritza eta Basozaintza Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren determinazioak kontuan hartu beharko dira, hain zuzen ere basozaintzari dagokionez interesgarriak diren eremuei, nekazaritza eta abeltzaintzako eremuei eta balio estrategiko handiko landazabalekoei buruzkoak; baita EAEko Inguru Hezeak Babesteko eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planarenak; eta Naturgune Babestuenak, Natur Interesa duten Eremuenak eta Natura 2000 Sarearenak ere.
- Basozaintzari, nekazaritza eta abeltzaintzari dagokienez interesgarriak diren eremu batzuen eta balio estrategiko handiko landazabaleko eremu batzuen mugaketa bat etorriko balitz Lurraldearen Zatiko Planetik lurraldea transformatzeko prozesuaren eraginpean dauden horiekin, Lurraldearen Zatiko Planaren determinazioa eta berau bultzatzen duen izaera estrategikoa nagusituko da.
- Izapidetzen ari den Nekazaritza eta Basozaintza Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana edo, hala badagokio, udal-plangintza da planek, azpiegiturek eta abar nekazaritza-jardunari eraginez gero eraginpeko ustiapenen bideragarritasuna ordezkotako lurzoruak esleitzeko mekanismoen bitartez mantentzea bermatzera zuzendutako estrategiak ezartzeko tresna egokia. Horretarako, ad hoc tresnak sortzea bultzatuko da, adierazitako Nekazaritza eta Basozaintza Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean aurreikusitako Lur Bitartekaritzako Zentroa esate baterako.

Jarduera ekonomikoetarako lurzorua sortzeari buruz

- Jarduera ekonomikoetarako izango den lurzorua kalifikatzeko garaian, udal-plangintzak dagozkion Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren proposamenak bereganatu beharko ditu, betiere Lurraldearen Zatiko Planaren estrategiarekin kontraesanean erortzen ez direnak.
- Lurzoru horien garapenean Erabileren Antolamendu Espazialaren Erregulazioari dagokion Fitxan bildutako determinazioak errespetatuko dira, alegia "ROEU-3. Jarduera ekonomikoetarako espazio berriak", Lurraldearen Zatiko Planaren Erregulazio Orokorrekoak.
- Espazioari dagokionez Eragiketa Estrategiko jakin batekin bat datozen proposamenak, lurraldearen ikuspegi orokorretik izaera estrategikorik ez izan arren, haren osagarri gisa hartuko dira eta irizpide unitarioen bidez ebatziko dira baterako antolamendu koherente batean, Lurraldearen Zatiko Planaren Erregulazio Orokorri dagozkion determinazioei erantzunez.
- Halaber, Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana aplikatzekoa izango da Lurraldearen Zatiko

Planak erregulatzen ez dituen alderdietan, hala nola udal-kategorizazioan eta saltoki handien erregulazioan.

Etxebizitzen sustapen publikoari buruz

- Etxebizitzen Sustapen Publikorako Lurzorua Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean ezarritako etxebizitzen sustapen publikorako jardunak udal-plangintzan aplikatzekoak izango dira.
- Lurraldearen Arloko Plan hori behin betiko onartu arte, gai honi buruzko erregulazioa Etxebizitzaren arloko presako neurriak eta hirigintza plangintzako zein kudeaketako tresnak izapidetzeko neurriak zehazteari buruzko ekainaren 30eko 17/1994 Legean eta hori garatzen duen ekainaren 17ko 142/1997 Dekretuan ezarrita dago.

Energia-arazoari buruz

- Udal-plangintzak Elgea-Urkilla eta Badaiako kokalekuak, Haize-energia Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak I. multzoaren barruan ezarritakoak, jaso beharko ditu.

Kultura-ondareari buruz

- Euskal Kultura-ondarea Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren determinazioak udal-plangintzan aplikatzekoak izango dira.
- Lurraldearen Arloko Plan hori behin betiko onartu arte, aplikatzekoa den arloko legeriaren eta hori garatzeko ezarritako babesen bitartez arautuko da.

Udal Ekintzaren Erregulazioa RAM-2 HIRIGINTZAREN ESKUMENA ERABILTZEKO JARRAIBIDEAK

Udal-ekintzaren beste baldintzatzaile batzuei dagokienez

1. Xedea

Udalaren hirigintza-eskumenaren mende dauden lurralde-eragin handiko arazoan oroigarri gisa jardutea.

2. Aplikaziorako irizpideak

Erauzketa-jarduerei buruz

- Harrobien edo erauzketa-jardueren eraginpean dauden eremuen mugaketa udal-plangintzari dagokio, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen 8. kapituluko 5.3.B.b3 atalean eta 22. kapituluko 2.2.a atalean adierazita dagoen bezalaxe.

Telekomunikazioei buruz

- Telekomunikazioei dagokienez, tokiko jabari publikoaren okupazioari aplikatzekoa den araudia (11/1998 Legea, apirilaren 24koa, Telekomunikazioen Lege Orokorra eta 1736/1998 Errege Dekretua, uztailaren 31koa), telekomunikazio-sareetarako azpiegituren ezaugarriak, instalazio irrati-elektrikoak (1066/2001 Errege Dekretua, irailaren 28koa), eta telekomunikazio-zerbitzuetarako sarbidea (1/1998 Errege Lege Dekretua, otsailaren 27koa, eta otsailaren 22ko 279/1999 Errege Dekretuaren bidez onartutako Araudia eta 1999ko urriaren 26ko Agindua, Sustapen Ministerioarena) kontuan hartu beharko dira.

Herri-batzarrekiko erakunde arteko harremanari buruz

- Araba Erdialdeko asentamenduen sistemaren berezitasunak, udalerrien administrazio-antolakuntza konplexuarekin batera, udalen eta herri-batzarren arteko harremanean arintasuna sustatzea gomendatzen du, erabakiak hartzerakoan horiek entitate txikiagoen errealitateari buruz duten ezagutza aprobetxatu ahal izateko. Hori bereziki interesgarria da bi gai zehatzi dagokienez:
 - Entitate txikiagoek beren gain har dezaketen hazkundera zehazteari dagokionez. Horretarako ezinbestekoa izango da horietako bakoitzaren ezaugarri bereizgarriak zehatz-mehatz ezagutzea, hala populazioaren izaera sozialeko osagaiei eta jarduerari nola eraginpean hartzen dituzten bilakaera-jorei dagokienez (populazio-abandonatzea, bigarren egoitza gehitzea, hazkunde-presioak, etab.). Erabakiak beharrezko kohesio soziala ziurtatu beharko luke, biztanle berrien eta zaharren artean izan litezkeen interes-gatazkak gainditu ahal izateko.



- “II.6. Lurraldearen Zatiko Planak udalerriei zuzendutako determinazioak eta iradokizunak. Eraginen dokumentua” kapituluaren udal-ekintzarako iradokizun gisa gehitu diren jardun posibleak jaso eta bultzatzeari dagokionez. Jardun posibleen bildumaren aipamena, lehenengo eta behin, lurralde-espazio jakin batzuetan beste batzuetan aurkitu ezin diren potentzialtasunak antzeman izanaren ondorioz sortzen da. Determinazio horiek, alabaina, ez dira lotesleak eta tokiko administrazioak egokitzat jotzen duenean baino ez dira garatuko. Izan ere, egokitasun hori ebaluatzeko, guztiz positiboa izango litzateke herri-batzarrekin iritzia alderatzea. Bestalde, irismena, edukia eta garatzeko asmoarekin lortu nahi den xedea ezinbestean egokitu eta birdefinitu beharko dira bere garaian.



III. TITULUA

EKINTZA EGITURATZAILEEN FITXAK

Ondoren adierazten diren Ekintza Egituratzailleen determinazioak burutuko dira:

BIDEETAKOAK

AE-1 Etxabarri-Ibiña / Armiñon.

TRENBIDEETAKOAK

AE-2 Garraio arinaren sarea.

PAISAIA ETA INGURUMENEN

AE-3 Trenbidearen ibilbidea Baia ibaian zehar.

AE-4 Ullibarri - Araia arteko aisia-ibilbidea.

AE-5 Zadorrako nekazaritza-ibilbidea.

AE-6 Ingurunearen aprobetxamendurako ibilbidea.

AE-7 Arabako hegoaldeko eskualde arteko ibilbidea.

AE-8 Ipar-mendebaldeko ordezkiko ibilbidea.

AE-9 Santiago bidea.

Bideetako Ekintza Egituratzaileria AE-1 ETXABARRI-IBIÑA / ARMIÑON

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

1. Kokapena

Zatiak: B-3 eta B-8.

Udalerrriak: Zigoitia, Vitoria-Gasteiz, Iruña Oka, Ribera Alta eta Armiñon.

2. Eraginpeko lurzoruaren sailkapena plangintzaren arabera (UDALPLAN)

Lurzoru urbanizaezina.

3. Xedea

Eskualdeko eta nazioarteko fluxuak bideratzen dituen sarea osatzea, Etxabarri-Ibiña - Armiñon loturaren bitartez, A-1 autobidearen egungo tarteei jarraipena emanez eta N-I errepidearen ordezkotako ardatz jarraitu bat ahalbidetuz.

4. Aplikaziorako irizpideak

- Errepideen arloko organo eskudunak Etxabarri-Ibiña – Armiñon loturaren behin betiko soluzioa proposatuko du. Ekintza Egituratzaileria hau “1. Lurralde Egitura” eta “4. Esku hartzeko moduak. Ekintza Egituratzaileriak eta Eragiketa Estrategikoak” planoetan irudikatzeke erabilitako grafismoak lurraldeko bi punturen arteko erlaziotako espaziala baino ez du irudikatzen, horretarako trazaduraren inolako iradokizunik egin gabe.
- N-I errepidean Armiñon eta Ariñez artean egingo diren trazaduraren eta sekzioaren aldaketak kontuan hartuta, eta behin betiko proiektua egiterakoan bilduko diren zirkunstantziak ikusirik, agintaritzak eskuduna izango da Armiñon - Eibar autobidearen itxiera-aukera edo Etxabarri-Ibiña eta Armiñon autobidearen eta N-I errepidearen arteko konexioaren bitartez Vitoria-Gasteiz eta Armiñonen arteko punturen batean lotzean datzan soluzio mistoren bat hautatzeko erabakia hartuko duena.
- Hala trazadura nola sekzioak eta konexioak organo eskudunak erabakiko ditu aplikatzeko den arloko legerian ezarrita dagoen prozedurari jarraiki.
- Adierazitako bideen funtzionaltasuna ziurtatzearen, arloko organo eskudunak egungo lotuneetan bidezkoak diren ekintzak proposatu beharko ditu.
- Trazaduraren definizioari ekitekoan, Subijanakotako akuiferoa eraginpean hartzea saihestu beharko da, hornidurararako interes estrategikoa duen unitate hidrogeologikoa da-eta. Horrez gain, honako hauek kontuan hartzea iradokitzen da:

- Parke Teknologikorako eta bere ingururako eta Berrikuntzaren Arkuko logistika, produkzio eta aireportuaren eremurako zuzeneko sarbidea aurreikustearen egokitasuna.
- Forondako Aireportuaren Zuzendaritza Planean jaso litezkeen aireportuaren etorkizuneko handiagotze lanak egiteko lurzoru-erreserba aurreikusi beharra.

5. Organismo sustatzailea

Arabako Foru Aldundiko Herrilan eta Garraio Saila eta Hirigintza eta Ingurumen Saila.
Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Saila.

Trenbideetako Ekintza Egituratzaileria AE-2 GARRAIO ARINAREN SAREA

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

1. Kokapena

Zatiak: B-3, B-5 eta C-5

Udalerrriak: Iruña Oka, Vitoria-Gasteiz, Burgelu, Alegria-Dulantzi, Donemiliaga, Iruraiz-Gauna, Agurain.

2. Eraginpeko lurzoruaren sailkapena plangintzaren arabera (UDALPLAN)

Hiri-lurzorua. Lurzoru urbanizagarria. Lurzoru urbanizaezina.

3. Xedea

Orain dagoen trenbide-azpiegitura aprobetxatzea hiri-barruko eta herriz kanpoko garraio publikoaren eskaintza anizteko, sare beraren gainean garraio-bide arina eta aldakorra txandakatuz, orain dauden bideen gainean tren gisa ibiltzera egokitu ahal izango litzatekeena, edota tranbia gisa, bide horietatik urrunduz, hiri-bilbeetatik kaleetan zehar ibiliko litzatekeena.

Asmoa hauxe da, Langraiz Oka / Foronda / Vitoria-Gasteiz / Agurain ibilbide “espezializatua” sortzea, etorkizunean luzatzeko aukerarekin.

4. Aplikaziorako irizpideak

- Ibilbide luzeko trenbide-azpiegitura erabiltzea, edo lehengo trenbidearena, Vitoria-Gasteiz eta Agurainen artean.
- Ibilbidea Langraiz Okaraino jarraitzea. Orain dagoen trenbide-kanala erabiltzeko komenigarritasuna aztertzea edo N-102 errepidearekiko ibilbide paraleloa luzatzea, Vitoria-Gasteizko mendebaldeko egoitza eta jarduera ekonomikorako garapen berriei zerbitzua eskaintzeko eta Langraiz Okako hirigunera heltzeko abantaila eskainiz, “Arabako atearen” esku-hartze estrategiko berriak zeharkatuz.
- Vitoria-Gasteizen kontsolidatuta dagoen hiri-ibilbidetik ibilbide posiblea egiaztatu edota egokitzea, hiri-espazioak birkualifikatzeko nahiz ibilgailuen garraioak hiriaren barrualdean duen eragina murrizteko esku-hartzeak eskaintzen dituen aukerak “galtzea” eragotziz. Europako ingurune hiri desberdinen esperientzia ikusita, garraio-bide arinak egokiak dira hiri-saretik ibiltzeko eta bateragarriak dira oinezkoen eta bizikleten zirkulazioarekin.
- Paisaia arloko proiektu funtzional bateratu baten burutzapena aurreikustea trenbidearen korridorea —ibilbide luzeko trafikoaren tarte liberatua— dagokion funtzio berrira egokitzeko, ingurunean garraio-bide berriak funtzionalki eta



ingurumenari dagokionez integratzen direla zainduz eta esku-hartzea, hala badagokio, hiri-ertzen birkualifikaziorako edo errematerako aprobetxatuz.

- Ibilbidea Forondako aireporturaino luzatzeko komenigarritasuna aztertzea.
- Vitoria-Gasteiz/Agurain ibilbidea zabaltzeko aukera kontuan hartzea, puntualki orain dagoen lineatik urrunduko liratekeen tarte berrien bidez, Lautadan egon daitezkeen garapen berrietan laguntzeko.
- Eskualdeko edo ibilbide luzeko trafikoekin bat datozen tarteetan, geralekuak bide komunitik kanpo kokatzea gomendatzen da, geralekuen eremuan bideen kopurua gehituz edo geralekuak hiriguneetara hurbiltzeko egon daitezkeen hedadura berrietan kokatuz.

5. Organismo sustatzailea

Arabako Foru Aldundiko Herrilan eta Garraio Saila, Hirigintza eta Ingurumen Saila eta Toki Administrazioaren Saila. RENFE. Euskotren.

Paisaia eta Ingurumeneko Ekintza Egituratzaileria AE-3 TRENBIDEAREN IBILBIDEA BAIA IBAIAN ZEHAR

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

1. Kokapena

Zatiak: B-2

Udalerrriak: Urkabustaiz, Kuartango, Ribera Alta.

2. Eraginpeko lurzoruaren sailkapena plangintzaren arabera (UDALPLAN)

Hiri-lurzorua. Lurzoru urbanizaezina.

3. Xedea

Orain dagoen trenbide-azpiegitura eta ibaiak inguruan landutako paisaia batera aprobetxatzearen emaitza da zientzia, kultura eta aisiaren ikuspegitik balioa duen ibilbide hau.

Inguruaren geomorfologia ezin hobea da ibilbidearen haria ibaia izan dadin, formen eta erliebeen "eraikitzaile" gisa eta ekosistema berezi gisa, alegia trantsizio klimatikoaren zonan ahokatuta dagoen lepo batena.

Trenbide-linea egoteak eta orain gutxi erabili izateak aldi berean beste zerbitzu bat sartzea ahalbidetzen du, osagarria izango dena —jaiegunetan eta oporraldietan— errailen gaineko garraiobide arin baten bidez, dagozkion unitate mugikorrek lehendik dagoen azpiegiturara egokituta egongo direlarik.

Garraiobide berriak ibilbide mugatua eta zuzendua antolatzeko aukera emango du. Turismoa egiteko eta aisiarako ibilbidea izango da, eta geralekuek beste zerbitzu eta hornikuntza batzuen instalazioak indartzeko balioko lukete, ingurunean nolabaiteko dinamismoa sortuz eta leku honek naturari eta ondareari dagokienez dituen balio handiak ezagutzera ematea ahalbidetuz.

4. Aplikaziorako irizpideak

- Erabiliko den garraiobidea trena izango da, orain dagoen azpiegitura aprobetxatuz eta garraiobide arin berriek ingurumenaren gainean eragin txikiagoa dutela kontuan izanik.
- Ekipamenduek eta zerbitzuek trenaren geltoki edo geralekuei lotuta egon beharko lukete.
- Ibilbidea diseinatzeko xehetasunezko azterlanak ondare naturala eta kulturala barne hartu beharko lituzke.



- Jatorrizko ekosistemaren gainean ahalik eta eragin txikiena izatea da helburua. Ibaiaren barrualdeko landaredia eta fauna ezagutzera eman nahi bada, beroiek gertuko ingurunean “birsortzea” gomendatzen da, horrela ibaiko bizitzaren eta biotopoaren behaketa zuzena ahalbidetzeko beharrezko obretako batzuk saihestuz.
- Lukiano eta Abornikano arteko ibaiaren tarte babestuko da, bertan haran-hondoko harizti-enklabe birjina dago-eta.

5. Organismo sustatzailea

Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saila, Herrilan eta Garraio Saila, Hirigintza eta Ingurumen Saila eta Toki Administrazioaren Saila. Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saila. Udalerriak. RENFE. Euskotren.

Paisaia eta Ingurumeneko Ekintza Egituratzaileria AE-4 ULLIBARRI - ARAIA ARTEKO AISIA IBILBIDEA

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

1. Kokapena

Zatiak: B-1, B-3 eta C-3

Udalerrriak: Legutiano, Arrazua-Ubarrundia, Burgelu, Barrundia, Donemiliaga, Zaldondo, Asparrena.

2. Eraginpeko lurzorua sailkapena plangintzaren arabera (UDALPLAN)

Hiri-lurzorua. Lurzoru urbanizaezina.

3. Xedea

Ibilbide hau Urkila mendilerroaren hegaletan elkarren ondoan dauden herrietako ingurune natural pribilegiatua aprobetxatuz diseinatzen da, baita inguruko aberastasun ornitologikoa aprobetxatuz ere, Zadorrako urtegien presentziak areagotutakoa.

Eremuari dagozkion kalitateak agerian uzten lagundu nahi du, berezkoa duen nortasun-ikurra indartuz eta horrela Araba Erdialdeko lurralde integratuaren barruan protagonismo handiagoa ematen lagunduz.

4. Aplikaziorako irizpideak

- Proposatutako ekipamenduak eta geralekuak eremuaren analisi tematikoari jarraituz kokatuko dira, ikuspegi ornitologikotik alegia, hegazti faunaren eta ingurunearekin duten loturaren ezaugarriak barne hartuko dituenak.
- Hala badagokio, ibilbidea antolatuko deneko bideen sekzioa aldatzeko premia kontuan hartzea, bertan batera egon daitezkeen trafiko desberdinen (bidegorriak, oinezkoen bideak...) segurtasuna bermatzeko. Hasiera batean, ertzen tratamenduak drainadurari lotutako gaiak kontuan hartu beharko lituzke bereziki baita seinaleztapen eta segurtasunerako elementuen konponbidea ere, zurez egitea gomendatzen diren elementuak izanik. Esku-hartze guztietan ingurumenari kalterik ez egitea lortu beharko litzateke.
- Ibilbidearen erakarguneen inguruetan aparkatzeko eremuak aurreikustea gomendatzen da, azalera jarraitu handiak saihestuz. Nahiz eta ez den uste jarduera horrek eskari masiboa erakarriko duenik, aparkalekuen eremuak zatikatu egin beharko lirateke eta ingurunean integratuta geratu beharko lukete, itzalpeko espazioak sortzea bultzatuz, zuhaitz autoktonoak landatuta.
- Ibilbidea ekipamendu tematikoekin mugatu beharko litzateke (hegaztien munduarekin zerikusia duten bildumak, arrautzak, habiak, ingurunera egokitzen

direneko moduak, behatokiak, hegaztien kate trofikoan duten garrantzia...) ibilbideko herriguneetan kokatuak.

- Hegaztien ekosistemetan eta paisaietan duten garrantziari buruzko lantegi eta jarduera tematikoak kokatzea lortu beharko litzateke. Ahal denean, ibilbideak zeharkatzen dituen guneen barrualdean orain dauden eraikinak aprobetxatuko dira, eta horrela herrietan lehendik dauden edo sor daitezkeen beste ekipamendu eta zerbitzu batzuk aprobetxatzeko aukerak sortuko dira.

5. Organismo sustatzailea

Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saila eta Hirigintza eta Ingurumen Saila. Udalerrak.

Paisaia eta Ingurumeneko Ekintza Egituratzailerak AE-5 ZADORRAKO NEKAZARITZA IBILBIDEA

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

1. Kokapena

Zatiak: B-1 eta C-5

Udalerrriak: Barrundia, Burgelu, Iruraiz-Gauna, Agurain, Donemiliaga.

2. Eraginpeko lurzoruaren sailkapena plangintzaren arabera (UDALPLAN)

Hiri-lurzorua. Lurzoru urbanizaezina.

3. Xedea

Zadorra ingurunean produkzioaren ikuspegitik balio handiena duten lurzoruetako nekazaritza-erabilerak bultzatzea.

Ibilbide horiek lehentasunezko ardatz gisa proposatzen dira, nekazaritzako jarduerarako beharrezkoak diren zerbitzuak kokatzeko.

4. Aplikaziorako irizpideak

- Interesatuta dauden nekazari-taldeek adostasun orokorra bilatu beharko litzateke haiek eskatutako zerbitzu komunak premiak eta beren kokapen egokiena erabakitzeke, nekazaritzako garapeneraren aurreikuspenekin bat etorritik.
- Ibilbide horien adierazgarritasuna indartzeko, nekazaritzako hondakinak biltzeko guneen eskariak oinarritu beharko lirateke ibilbide horietan, edukiontzia eta bilketarako bitartekoak espezializatuz.
- Nekazaritzako Jardun Egokietan prestatzeko berariazko instalazioak kokatzeko leku aproposa dela baloratu beharko litzateke, lanbidearen ikuspegitik nahiz ingurumen-hezkuntzaren ikuspegi orokorrenetik begiratuta.
- Ingurumenaren gaineko gainerako ekintzei dagokienez, lehentasunezko helburu gisa hartu beharko litzateke ingurunean zehar landaredi estalkia lehengoratzeko zuhaitzak eta palaxuak nekazaritzako partzelen bilbean sortuz, eta inguruko ibai eta erreken ertzetan basoak birstortuz.
- Ibilbidearen nekazaritza-erabilera mendizaleen eta zikloturisten beste ibilbide batzuekin bateragarri bihurtu ahal izango litzateke. Helburu hori lortzeko ekintza nagusiak bideen egokitzapen-lanarekin eta trafiko-mota desberdinen antolamenduetarekin zerikusia dutenak dira.

5. Organismo sustatzailea

Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saila eta Hirigintza eta Ingurumen Saila.

Paisaia eta Ingurumeneko Ekintza Egituratzaileria AE-6 INGURUNEAREN APROBETXAMENDURAKO IBILBIDEA

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

1. Kokapena

Zatiak: B-1, B-3, B-5, B-6, C-6 eta B-9

Udalerriak: Legutiano, Arrazua-Ubarrundia, Vitoria-Gasteiz, Iruraiz-Gauna, Burgelu, Alegria-Dulantzi, Donemiliaga, Arraia-Maeztu, Kanpezu.

2. Eraginpeko lurzoruaren sailkapena plangintzaren arabera (UDALPLAN)

Hiri-lurzorua. Lurzoru urbanizaezina.

3. Xedea

Lehendik dagoen trenbide-plataforma berriro erabiltzea Mendialdeko eskualdea Araba Erdialdeko lurraldearen gainerako lekutara “hurbiltzea” ahalbidetuko duen ordezkotako ibilbidea sortzeko, eremu zabal horren aberastasuna agerian utziz.

Bide estuko antzinako “Vasco-Navarro” trenbidearen traza erabiltzen da, Nafarroan Lizarrako geltokia Gipuzkoan Mekolaldekoarekin lotzen zuena, Vitoria-Gasteiztik igaroz.

Ordezko ibilbidea da. Bere trazadurak erliebe malkartsua eta paisaia heterogeneoa zeharkatzen du. Elementu horiek, gizakiak ingurunearen baliabideak aprobetxatzeko erabili izan dituen hainbat prozesu eta modu behatzeko aukerarekin batera, ibilbide didaktiko bat ahalbidetzen dute.

Ibilbidea gune tematiko txikiekin mugatu beharko litzateke, eta gune horietan sektoreetako bakoitzaren ustiapen-prozesuak birsortuko lirateke: basoak, zura eta basoko beste produktu batzuk; laboreak eta beren transformazio-prozesuak kontsumorako; material geologikoen erauzketa eta xedetzat dituzten erabilera anitzen prestakuntza.

4. Aplikaziorako irizpideak

- Kasu honetan, gune tematikoak ingurunearen aprobetxamendua izan beharko luke: basoko baliabideen lorpena, basoak laborantza-lur bihurtzea, laborantza-moduak eta nekazaritzako produktuen transformazioa, baliabide mineralen lorpena eta abar.
- 1967an eraikitako trenbideen plataforma ibilbide osoaren ardatz egituratzaileria izango litzateke. Bere gainean, ingurumena lehengoratzeko ekintzak aurreikusitako ziren bere garaietan —Arabako Foru Aldundiko Hirigintza, Arkitektura eta Ingurugiro Sailak, hain zuzen ere—.



- Ibilbideak, diseinatu daitezkeen ekipamendu tematikoez eta seinaleztapen egokiaz gain, zenbait jardueraren garapena erraztuko duten zerbitzuak eskaini beharko lituzke mendizale eta zikloturistei begira. OE-10 Eragiketa Estrategikoaren osagarri gisa, alegia “Eguiletako lurraldearen artikulagunea”, aterpetxe txikiak edo edukiera txikiko eta kontrolpeko kanpalekuak aurreikus litezke, ezinbestekoak diren gutxieneko zerbitzuez hornitutakoak eta Maeztu eta Santikurutze Kanpezuko herrien eskaintzan oinarrituak.

5. Organismo sustatzailea

Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saila, Toki Administrazioaren Saila eta Hirigintza eta Ingurumen Saila. Udalak.

Paisaia eta Ingurumeneko Ekintza Egituratzailerak AE-7 ARABAKO HEGOALDEKO ESQUALDE ARTEKO IBILBIDEA

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

1. Kokapena

Zatiak: B-6 eta B-9 (Ekintza Condado de Treviño jarraitu nahi da)

Udalerrriak: Vitoria-Gasteiz, Peñacerrada-Urizaharra.

2. Eraginpeko lurzoruaren sailkapena plangintzaren arabera (UDALPLAN)

Lurzoru urbanizaezina.

3. Xedea

Arabako lurraldearen hegoaldea integratzeko elementu bat sortu nahi da, administratiboki euskal eskualdearekin zerikusirik ez duen Condado de Treviño egoteak adierazten duen eten funtzionala gaindituz. Eta Lautadako eta Mendialdeko eskualdeen artean eta bi eskualdeek Arabako Errioxako Eskualde Egiturarekin duten harremana sendotzea.

Arabako hegoaldeko paisaiaren kontrasteak aprobetxatzen dituen ibilbide bat da, Arabako Errioxarekiko harremana bultzatu eta bere ibilbidean Peñacerrada-Urizaharreko anbar-hobia bezalako gunere bereziak eskaintzen dituen. Ibilbide hori, neurri handi batean, Condado de Treviño zeharkatzen duen A-2124 errepidearen gainean zehazten da.

4. Aplikaziorako irizpideak

- Ibilbide honen planteamendu nagusia hau da, Vitoria-Gasteiztik Lurralde Historikoaren hegoaldeko sektoreekin harremanak bultzatzea. Beraz, ibilaldiak egiteko pentsatuta dauden tartekak dira, informazioa eta norabideak eskaintzen dituen ekipamendu arinaz hornituak, bertatik igarotzea ahalbidetuko duten hiriburutik abiatuta ibilaldi laburrak egiteko edo egun bat baino gehiago irauten duten ibilaldietarako.
- Gasteizko mendien iparraldeko isurialdeak aukera ezin hobeak eskaintzen dituzte ezkatzen eta pagadien basoak behatzeko eta haietaz gozatzeko. Horretarako, azalpeneko panelak eta leku interesgarrien seinaleztapena ipini daitezke bertan.
- Ibilbideak duen erakargarritasun handiena Peñacerrada-Urizaharreko anbar-hobia baliteke izatea. Jendea erakartzeko aparteko gunea da, eta bere inguruan Anbar Zentroa eta bisitariak erakartzeko eta hobia dagoen lekua hornitzeko beharrezkotzat jotzen diren ekipamenduak diseinatu daitezke.
- Interpretazio-zentro, museo edo jarduera-zentroaren kokapena jatorrizko hobiaren konfidentzialtasuna babesteko pentsatu behar da.



- Peñacerrada-Urizaharren kasuan izan ezik, ibilbideko ekipamenduek oso arinak izan beharko lukete eta zerbitzuek orain herrietan dauden horietan oinarrituta egon beharko lukete.
- Arabako Errioxak ibilbidearen azken helmuga gisa agertu beharko luke, lortu nahi den jarraitutasuna erdiesteko beharrezko erakarpen-elementuak barneratuz.
- Esku-hartzea —Condado de Treviño zeharkatzen duen ibilbidearen planteamendua mantentzeko eta bere tratamendua jarraitzeko— Konderriko toki-aginpideekin koordinatzea komeni da, Gaztelako enklabearekin dauden harremanak indartuz.

5. Organismo sustatzailea

Arabako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Saila, Herrilan eta Garraio Saila, Hirigintza eta Ingurumen Saila eta Toki Administrazioaren Saila. Udalak.

Paisaia eta Ingurumeneko Ekintza Egituratzailerak AE-8 IPAR-MENDEBALDEKO ORDEZKO IBILBIDEA

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

1. Kokapena

Zatiak: B-3 eta B-2

Udalerrriak: Vitoria-Gasteiz, Zigoitia, Zuia, Urkabustaiz.

2. Eraginpeko lurzoruen sailkapena plangintzaren arabera (UDALPLAN)

Hiri-lurzorua. Lurzoru urbanizaezina.

3. Xedea

Gorbeia Parke Naturalaren eta bere eraginpeko eremuaren konexioa lortu nahi da Vitoria-Gasteizekin, ordezko garraibideetarako ibilbide baten bitartez.

Vitoria-Gasteizko saihebidetik abiatuta ezaugarri egokiak izango dituen ardatz bat egokitu nahi da, Apodakatik aurrera, nekazaritzako jarduerak nagusitzen diren landa-ingurumeneko paisaian bidaiaria barneratzen duten herrien segida uztartuko duten pasabide-mota desberdinak bateragarriak izateko, Arabako gainerako lekuetan ikus daitekeenaren aldean nahiko desberdina den paisaian.

Hauxe da helburu nagusia, Parke Naturalaren inguruan egiten ari diren ahalegin guztiak uztartzea, inguru hori kalitatezko landa-turismorantz bideratzeko.

4. Aplikaziorako irizpideak

- Nekazaritzari lotutako ekonomiak, dagokion paisaiak eta ematen dituen produktuek ibilbide hau antolatzeke muiin tematikoa izan behar lukete.
- Gorbeia Parke Naturala, bertako interpretazio-zentroa, Ingurumenari buruzko Ikerkuntza Zentroa potentziala eta hari lotutako jarduerak eta ibilbide guztiak bertako erakargune nagusi gisa ezarri beharko liriateke, bakanduta mendialde enblematiko honen hegoaldeko isurialdeko herrietan dauden gainerako zerbitzu eta ekipamenduak erabili eta aprobeztatzeko aukera emango duen hurbilketa geldoa ezarri.
- Ibilbideak N-622 autobiarekiko paralelo izan beharko luke Letonako inguruetaraino, ondoren, ipar-mendebaldean, N-622 errepide zaharraren traza Murguiaraino jarraituz.
- Bizikleten errei bat eraikitzeke aukera aztertu beharko litzateke oinezkoen erabilerarekin bateragarria izango litzatekeena —aurreikuspen horrek bere dimentsioak baldintzatuko ditu—, N-I autobiaaren saihebidetik ibilbideari jarraitutasuna emango diona. Errei hori segurtasunari buruzko aginduak betez



burutu beharko litzateke eta zeharkatzen duen ingurunean integratuta egon beharko luke. Ibilbideak atsedenlekuak izan behar lituzke, zuhaitz autoktonoez hornitutakoak.

- Ibilbide hau “Trenbidearen ibilbidea Baia ibaian zehar” ibilbidearekin konektatu beharko litzateke, gune nagusia Izarran duena.
- Lurreko produktuen jatorrizko izendapenak eta kalitatea aprobetxatzea iradokitzen da, izaera atlantikoa duen eskualde menditsu hau Lurreko Historikoaren landaturismo eskemetan “bereizteko”.

5. Organismo sustatzailea

Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saila, Hirigintza eta Ingurumen Saila eta Toki Administrazioaren Saila. Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saila. Udalak.

Paisaia eta Ingurumeneko Ekintza Egituratzaileria AE-9 SANTIAGO BIDEA

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

1. Kokapena

Zatiak: B-1, B-3, B-5, B-6, B-8, B-9, C-3, C-5

Udalerrriak: Zaldondo, Donemiliaga, Agurain, Iruraiz-Gauna, Alegria-Dulantzi, Burgelu, Vitoria-Gasteiz, Iruña Oka, Armiñon, Erribera Beitia, Berantevilla, Zambrana.

2. Eraginpeko lurzorua sailkapena plangintzaren arabera (UDALPLAN)

Hiri-lurzorua. Lurzoru urbanizaezina.

3. Xedea

Erdi Aroko galtzadan zeharreko erromesbidea, San Adriango tunelaren hegoaldeko ahotik (Zaldondo) Rivabellosaraino (Erribera Beitia) doana, non Burgosen barneratzen baita, berreskuratzea eta sustatzea, ibilbidea zedarritzen duten natura eta ondare balio handiak nabarmenduz.

Turismo eta kultur izaerako ibilbidea da. Bere trazadura erliebe eta paisaia heterogeneoetan zehar igarotzen da, Lautadako eta Haranetako eskualdeen arteko harremana eta bi eskualdeek Arabako Errioxako Eskualde Egiturarekin duten harremana indartuz.

Bideari atxikitako gune historiko nagusiak Aguraingoa, Alegria-Dulantzikoa eta Vitoria-Gasteizkoa dira.

4. Aplikaziorako irizpideak

- Esparru hau babesteko araubidea urtarrilaren 25eko 14/2000 Dekretuan (Donejakue Bidea Monumentu Multzozko izendapenez, Kultura Ondasun gisa sailkatzeko dena) jasotakoa da, eta dekretu horretan "Barnealdeko Bidea" izendatzen denak hartzen du eraginpean.
- Bidearen kultur ondarea eskualde-egitura aberastasunez eta aniztasunez hornitzen duten elementuetako bat da eta helmuga erakargarria da horri esker. Jolas eta aisiarako interesa da, kultur ondarearen berezko ezagutzarekin batera, garatu beharreko estrategietako bat.
- Bidearen tratamenduan drainatzea eta seinaleztapen-elementuen konponbidea bezalako gaiak kontuan hartu behar dira. Esku-hartze guztietan kultur ondareari erasotzen ez dion ingurumen-itxura lortu beharko litzateke.
- Ibilbideko ekipamenduek arinak izan beharko dute eta zerbitzuek gaur egun herriguneetan daudenak hartu beharko dituzte oinarri.



- Ibilbideko erakarguneen inguruetan aparkatzeko eremuak aurreikustea gomendatzen da, azalera jarraitu handiak saihestuz. Eremu horiek zatikatu egin beharko lirateke eta inguruan integratuta geratu beharko lukete, itzalpeko espazioak sortzea bultzatuz, zuhaitz autoktonoak landatuta.
- Esku-hartzea —Condado de Treviño zeharkatzen duen ibilbidearen planteamendua mantentzeko eta bere tratamendua jarraitzeko— konderriko toki-agintariekin koordinatzea komeni da, Gaztelako enklabearekin dauden harremanak indartuz.

5. Organismo sustatzailea

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila. Arabako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Saila, Nekazaritza Saila, Hirigintza eta Ingurumen Saila eta Toki Administrazioaren Saila. Udalak.



IV. TITULUA

ERAGIKETA ESTRATEGIKOEN FITXAK

Ondoren adierazten diren Eragiketa Estrategikoak arautzen dira:

- OE-1** Subijana-Morillas / Pobes lurralde-espazioa.
- OE-2** Iparraldeko Berrikuntzaren Arkua:
Logistika, produkzio eta aireportuaren multzoa.
- OE-3** Hegoaldeko Berrikuntzaren Arkua:
Arabako atea - Jundiz.
- OE-4** Araiako hirigunea finkatzea.
- OE-5** Gesaltza-Bergonda-Espejoko lurraldearen artikulagunea.
- OE-6** Aguraingo lurraldea finkatzea.
- OE-7** Eguietako lurraldearen artikulagunea.
- OE-8** Izkiko ingurumenaren interpretazio zentroa.
- OE-9** Hegoaldeko Arkuko jarduera ekonomikoak.
- OE-10** Peñacerrada-Urizaharreko hornikuntzarako lurralde-espazio berria.
- OE-11** Santikurutze Kanpezuko garapen berriak.

Eragiketa Estrategikoa OE-1 SUBIJANA-MORILLAS / POBES LURRALDE ESPAZIOA

Determinazio lotesleak

1. Kokapena

Zatia: B-2.

Udalerrria: Ribera Alta.

2. Eraginpeko lurzoruaren sailkapena plangintzaren arabera (UDALPLAN)

Lurzoru urbanizaezina.

3. Xedea

Lautada-Haranak eskualde-konexiorako ardatzaren eta Baia ibaian zehar trenbideak egingo duen ordezeko ibilbide tematikoaren elkargunean errotula gisa jardungo duen lurraldearen artikulagune bat sortzea, A-2622 errepidearen trazaren etena gainditzea eta indartzea ahalbidetuz.

4. Aplikaziorako irizpideak

Nahitaez kontuan hartu beharrekoak:

- Lurraldearen artikulagunea hedadura handiagoa duten lurralde-eremuen zerbitzura egongo diren erabilerak eta jarduerak ezartzeko espazio egoki gisa hartzea, Araba Erdialde osoan Haranen Eskualdeak duen pisu erlatiboa areagotzeko modu gisa.
- Eragiketaren ikusmolde orokorrean Anucitako jarduera ekonomikoen eremua barne hartzea.
- Artikulagunean egoitza-eremu bat sortzea, lurraldean pisua hartzeko adinako etxebizitzaren kopuruarekin, Erregulazio Orokorraren "RNC-5. Egoitza-kuantifikazioa" atalean ezarritako formularen c1, c2, c3 eta c4 osagaietatik eratorria.
- Artikulagunearen errepide-sarea hobetzea eta beharrezkoa izango balitz tarte berriak eraikitzea, bideetan orain dauden arazoak ezabatzearen.
- Baia ibarrean balio agrologiko handia duten lurzoruak zaintzea, inguru horri lotutako nekazaritzako jarduera eta paisaia mantentzeko, lurralde-espazio horren ipar-hego egitura lineala sendotzeko elementu gisa. Helburu horrekin bat etorriz, erabilera desberdinetara lotutako lurzoruei dagokienez arreta handiz aztertu beharko da ingurumenaren gainean duten eragina, dentsitate txikiko eta eraikuntzaren kalitate handiko espazioak sortzearen alde.

Gomendioak:

- Espazio ekipatu bat sortzeko aukera aztertzea, Subijana-Morillastik gertu, trenbidearen ibilbide berriari lotua.
- Erabilera tertziarioko (ostatua, ostalaritza, astialdiari lotutako zerbitzuak, tokiko artisautzari lotutako merkataritza eta abar) eremu mugatu bat sortzeko komenigarritasuna aztertzea, A-68 eta A-2622 errepideen artean dagoen loturak zehaztutako irisgarritasun handiko kokalekuan. Izan ere, Anucitako jarduera ekonomikoen eremurako sarbide-errepidearen beste aldean kokatzeko aukerarekin, horren balio estrategikoa areagotzen eta zerbitzu-ekarpenari esker kualifikatzen lagun lezake, bi kokalekuen artean sinergia positiboa sortuz.
- Udal-ekintzan espazio mistoak garatzen hasteko aukera aztertzea, landa-lurrak mantentzearekin batera haietan sendo integratutako beste erabilera batzuk ezartzea ahalbidetuko dutenak, erabilera horiek egoitzak baratzeekin, produkzio-jarduera bateragarriak, eremu ekipatuak eta abar badira ere. Asmo horrekin batera ezarpen batzuk bilatu beharko lirateke, hain zuzen ere lurralde-espazio konplexuagoak eta erabilerak ezartzen diren ingurune ingurumenaren balorazio berrietara egokituak, baita jarduera desberdinen arteko lotura ez hain konbentzionaletara eta integratzaileagoetara egokituak ere.

Eredu horiek garatzeko ondo egindako lanaren printzipioei jarraitu behar zaie emaitzak bermatzeko, eragin txikiko ingurunearen jabe egiten direla ziurtatuz eta halako lurralde-espazioa, dituen berezitasunengatik, askoz ere zabalagoa den lurralde-ingurunean bete ez diren asentamendu-eskariak erakartzeko gune gisa hartuz.

5. Organismo sustatzailea

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila eta Nekazaritza eta Arrantza Saila. Arabako Foru Aldundiko Herrilan eta Garraio Saila, Hirigintza eta Ingurumen Saila, Nekazaritza Saila eta Toki Administrazioaren Saila. Udala.

Eragiketa Estrategikoa OE-2 IPARRALDEKO BERRIKUNTZAREN ARKUA: LOGISTIKA, PRODUKZIO ETA AIREPORTUAREN MULTZOA

Determinazio lotesleak

1. Kokapena

Zatia: B-3.

Udalerria: Vitoria-Gasteiz, Legutiano.

2. Eraginpeko lurzoruaren sailkapena plangintzaren arabera (UDALPLAN)

Lurzoru urbanizaezina. Hiri-lurzorua. Forondako garraio eta komunikazioen sistema orokorra.

3. Xedea

Eragiketa Estrategiko honen funtsezko arrazoia hauxe da (nagusiena delako, Berrikuntzaren Arkuko funtsezko esku-hartzea den aldetik): Forondak kargarako aireportu gisa dituen potentzialtasunen garapena ahalbidetzea, bere azpiegituraren, lurraldean duen kokapenaren eta bertako lurzoru erabilgarriaren abantaila konparatiboak aprobetxatuz, bere ingurunean jarduera logistikoei eta pistetan bertan kokatzen badira industrien jarduerari estu lotutako produkzio-espazioa sortzeko.

Udalek dagozkien udal-plangintzetan aurrera eramandako ekimen desberdinek (eremurako garrantzi berezia izanik duela gutxi onartutako Vitoria-Gasteizko Plan Orokorrean bildutakoak) era berean eragiketa honen garapena bultzatzen laguntzen dute:

- a) Lurzoru urbanizagarria, aireportuaren ingurunean determinaziorik gabe.
- b) Miñaoko Parke Teknologikoaren zabalkuntza.
- c) Etxabarri-Ibiñako zentro komertziala.
- d) Aireratze eta lurreratze bigarren pista ezabatzea, Forondako Aireportuaren Zuzendaritza Planari jarraituz.

4. Aplikaziorako irizpideak

Nahitaez kontuan hartu beharrekoak:

Orokorrak

- Aireportu Sistema Orokorriari buruz aplikatzeko araudia ondoren adierazitakoa da:
 - Sustapen Ministerioaren Agindua, 2001eko uztailaren 17koa, Vitoria-Gasteizko Aireportuaren Zuzendaritza Plana onartzen duena.



- 2591/1998 Errege Dekretua, Interes Orokorreko Aireportuak eta beren Zerbitzu Eremua antolatzen dituen.
- Aireko Nabigazioari buruzko uztailaren 21eko 48/60 Legearen (uztailaren 23ko EAO) arabera ezarritako aeronautikako zortasunak. Lege hori 55/99 Legeak aldatu zuen zortasun akustikoei zegokienean. 584/72 Dekretua, otsailaren 24koa (martxoaren 21eko EAO), aeronautikako zortasunei buruzkoa, 2490/1974 Dekretuak, abuztuaren 9koak (irailaren 11ko EAO) aldatua.
- 2243/1979 Errege Dekretua, irailaren 14koa (irailaren 29ko EAO), Vitoria-Gasteizko aireportuan ezarritako aeronautikako zortasunak aldatzen dituen.
- Aireportu Sistema Orokorri dagokion eremua mugatzeko perimetroa, gutxienez ere, Zuzendaritza Planean ageri den Zerbitzu Eremuarena izango da.
- Vitoria-Gasteizko aireportua interes orokorreakoenez gero, Sustapen Ministerioari dagokio soil-soilik Aireportu Sistema Orokorra Zuzendaritza Plan baten bitartez antolatzea. Horren eskumenetan eragina izan lezaketen fitxa honetan egindako gomendioak Eragiketa Estrategiko honen garapena erraztu eta bultzatu lezakeen etorkizuneko aldaketa baterako iradokizunak baino ez dira.
- Eremua kalitate agrologiko handikoaenez gero, plangintzak bateragarri egingo ditu aireportu inguruko lurraldearen ahalmen logistikoa eta produktiboa eta lurzoruen kalitate agrologiko handia eta, hala badagokio, kendutako nekazaritzako azalera berrezartzeko estrategiak proposatuko ditu.
- Eragiketa Estrategiko honen lurraldearen antolamenduak bereziki aintzat hartuko du eremu batzuek uraldi desberdinetan duten ureztagarritasunaren arazoa, are gehiago Vitoria-Gasteizko akuifero kuarternarioaren gainean kokatuta daudela kontuan hartuta, eta ezaugarri horrekin bat datorren azpiegitura arloko proposamena eta erabilera antolatzea diseinatuko du.

Erabilerei buruz

- Berrikuntzaren Arkuan natura/landa espazioen eta urbanizatzeko modukoak direnen arteko alternantzia ziurtatuta egon arren, bertako esparru guztiak lurraldea transformatzeko eta lurraldea birkualifikatzeko prozesuei loturik baitaude —esparru horietako batzuk hiri-erabilera transformatzea produkzioaren edo ingurumenaren ikuspegitik babestekoak diren beste batzuetako lehentasunezko esku-hartzearekin lotuta dago—, kontuan hartu behar da:
 - Lurraldea transformatzeko prozesuari loturik dauden lurzoruek ez dakartela ezinbestean urbanizazio jarraitua, eta beren baitan urbanizaziorik gabeko lurzoru-poltsak hartzea komeni dela.
 - Poltsa horiek azalera-entitate egokia lortu behar dutela bertan dauden jarduerak behar bezala garatu eta mantendu ahal izateko.
 - Beren magnitude urriagatik edo inguruko erabilerekiko posizioagatik eta/edo erlazioagatik hondar-lurzoru bihurtzeko lurren iraupena eragotzi egin behar dela, eta jardunean aintzat hartzen diren helburuetakoren batzuetan sartzeari aurreikusi behar dela.



- Miñaoko Parke Teknologikoari buruzko determinaziorik gabeko lurzoru urbanizagarria ondoren adierazten diren antolamendu-ereduei jarraituz garatuko da:
 - Garatu behar den eremuaren iparraldeko muga gisa A-1 autobidearen (Vitoria-Gasteiz – Eibar autobidea) traza hartzea.
 - Lurzoru urbanizagarrien garapenean lurzoru horiek, N-240 errepideak eta A-1 autobideak (Vitoria-Gasteiz – Eibar) mugatzen duten zirrituko espazioa gehitzea.
 - Babes-zerrenda berde eta jarraitua sortzea A-1 autobidean (Vitoria-Gasteiz – Eibar) zehar.
- Eragin akustikoari dagokionez, ez da egoitza-erabilerarik edo hezkuntzako zein osasuneko hornikuntza-erabilerarik onartzen Leq egunez = 60 dB(A) eta Leq gauez = 50 dB(A) kurba isofonoen barruan dauden lurretan. Inguratzaile hori mugatzeko xedez, egungo konfiguraziorako eta aurreikus daitekeen garapenerako Zuzendaritza Planaren soinu-aztarnak kontuan hartuko dira, edo dagokionean erabil daitezkeenak, murriztaileagoak, eraginpeko eremua handituz.

Azpiegiturei buruz

- Errepide arloko organo eskudunak, Etxabarri-Ibiña – Armiñon lotura Berrikuntzaren Arkuan zeharreko igarobidean ebazteaz gain, haren eta Arkuko piezen eta Vitoria-Gasteizen arteko konexioaren eta erlazioaren arazoei konponbidea eman beharko die.

Gomendioak:

Erabilerei buruz

- Parke Teknologikoaren zabalkuntzari dagokionez, honako hauen egokitasuna kontuan hartzea:
 - A-1 (Vitoria-Gasteiz – Eibar) eta N-240 errepideen artean mugatutako espazioan hornikuntza-eremu bat garatzea, lurzoru urbanizagarrien iparraldean, jarduera ekonomikoen eremuaren eta inguruneke hiriguneen zerbitzura.
 - Garapenaren hego-mendebaldeko muturrean hornikuntzaren bat ezartzea, N-622 errepidearekin beharrezko konexioa indartuz.
 - A-1 autobidearen (Vitoria-Gasteiz – Eibar) inguruetan erabilera tertziarioak ezartzea, autobidetik eremu teknologikorako sarbide zuzena eraikitzea lortzen bada.
- Logistika, produkzio eta aireportuaren inguruneari dagokionez, honako antolamendu-jarraibideak mantentzearen egokitasuna aztertzea:

Aireportuaren ingurunea



- Ekialdeko esparruan hartzea pistetatik hurbil egon beharra bereizgarri duten produkzio-jarduerak, direla logistikoak, aeronautikako osagaiak produzitu edo muntatzekoak, hegazkinak edo aireko garraiobideak fabrikatzekoak, eta abar.
- Beharrezkoak diren mugimendu-eremuak aurreikustea, errodadura-pistari loturik (batez ere Zuzendaritza Planak bigarren pistari emandako ezezkoari eusten badio), jardueren espazio-antolakuntzan.
- Aparkatzeko eremuak eta karga eta deskargakoak ebazterakoan arreta berezia eskaini behar zaien objektutzat hartzea, hainbat enpresarentzat komunak izan baitaitezke.
- Aireportu-eremuen (terminalak, zerbitzuak, catering, erregai-deposituak, etab.) etorkizuneko zabalkuntza posibleetan, eskakizun funtzional propioek ahalbidetzen duten bitartean, zerbitzu horiek gaur egun duten pistarekiko posizio paraleloa mantentzea.

Zaias ibaiaren ingurunea

- Ibaia ardatz berde egiturazaitzat hartuta, dentsitate txikiko enpresa-parkea antolatzea, espazio libreen presentzia nabarmenarekin eta ingurumen-kalitate handiarekin ebatzita, aireportuaren ingurunean dauden hiriguneak artikulatzen dituen espazioa osatzeko asmoz. Tertziarizazio-maila handiko jarduerak nagusitu beharko lirateke eta, Etxabbarri-Ibiña/Armiñon konexiotik eremurako etorkizuneko sarbide berri posibleari loturik, aireportuko hotela kokatu beharko litzateke sarbidearen inguruetan.
- Jarduera hau akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun-maila handia duten lurzoruetan garatzean —Forondako aireportuak edo orokorrean Vitoria-Gasteizko hiriak bezalaxe— zorrotz bete beharko dira arloko berariazko araudiak gai honi dagokionez ezarritako baldintzak. Kutsadura-arriskua, hirian antzematen den bezala, ez da garapenerako eragozpide, arau batzuk bete beharra baldintza gisa ezartzen bada ere.
- Eraikuntzetan intsonorizazio-premiak ebaluatzea, horien barnealdean beharrezkoa den giro-kalitatea ziurtatzeko.
- Lehendik dauden hiriguneak basoz hornitzea babesteko modu gisa eta jardunaren gainerako guztian egituratuta egoteko. Ibar-basoak birmoldatzea bultzatu beharko litzateke eta espezie autoktonoak erabiltzeari lehentasuna eman.

Azpiegituri buruz

- A-1 autobidetik (Vitoria-Gasteiz – Eibar), Miñao Gutxiko inguruetan, Parke Teknologikorako zuzeneko sarbidea eraikitzea iradokitzen da. Sarbidearen diseinuak beharrezko urbanitatea izan beharko du distantzia ertain eta luzeko ibilbideetarako eremurako sarrera-ate bihurtu ahal izateko.
- Hiritik eremu teknologikorako sarbideak bide-ardatz berri baten bitartez antolatzearen egokitasuna kontuan hartzea. Ardatz horrek, N-I errepidearen saihesbidetik eta dagokion mendebaldeko arkuko hego-mendebaldeko/ipar-



ekialdeko norabideari jarraituz, N-622 errepidearekin lotzeko aukera eman behar du, Arangiz inguruetan, eta N-240 errepideraino iritsi behar du Miñao Goienean, gune horietan bi errepideekiko lotura konponduz. Ardatz berri horrek, bide-parke baten ezaugarriak izan ditzakeenak, Iparraldeko Berrikuntzaren Arkuko piezen elementu egituratzaile gisa jardungo luke. Arakako Base Militarraren gainean izan litzakeen eraginak negoziatu beharko lirateke.

- Aireportura iritsiko den trenbide-tarte baten eraikuntza aurreikustearen egokitasuna aztertzea, garraibide honen bidez logistika- eta produkzio-eremuen arteko lotura konponduz: aireportuko eta Jundiz/GGZko jarduera ekonomikoen garapen berriak. Konexio honek garrantzia badu ez da hainbeste aireko kargaren eta trenbidekoaren arteko trukeak ahalbidetzen dituelako (urriak ia beti), trenbidearen bidez erraz hurbiltzeko aukerak produkzio-eremuetarako asko adierazten duelako baizik, neurri handi batean garraibide honen bidez dagozkien lehengaiez hornitu ahal izango baitira horrela, batik bat osagai astunen kasuan.

5. Organismo sustatzailea

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila eta Nekazaritza eta Arrantza Saila. Arabako Foru Aldundiko Herrilan eta Garraio Saila, Hirigintza eta Ingurumen Saila eta Nekazaritza Saila. AENA. Araba Garapen Agentzia. Udala.

**Eragiketa Estrategikoa OE-3
HEGOALDEKO BERRIKUNTZAREN ARKUA:
ARABAKO ATEA - JUNDIZ**

Determinazio lotesleak

1. Kokapena

Zatia: B-3.

Udalerrriak: Iruña Oka, Vitoria-Gasteiz.

2. Eraginpeko lurzoruaren sailkapena plangintzaren arabera (UDALPLAN)

Lurzoru urbanizaezina. Lurzoru urbanizagarria.

3. Xedea

Izaera mistoko esku-hartze enblematikoa da, N-I autobiako A-2622 errepidearen oraingo hartunearen (aldatzeko aurreikuspenekin Langraiz Okako saihebidet berriaren arabera) eta Vitoria-Gasteizko saihebidetaren eta N-102 autobidearen bidegurutzetik gertu dagoen ingurunearen artean mugatua. “Arabarako sarbide berriaren” eraikuntza bultzatu nahi du, eduki sinboliko handiko jarduera izanik, lurraldean adierazgarritasun handia lortu nahi duena Haranen eta hegoaldeko Lautadaren egitura-konexioak, Vitoria-Gasteizko hirirako sarbidea eta “Berrikuntzaren Arkuaren” hegoaldeko gune nagusia elkartzen diren gune gisa eratzean.

Esku-hartzeak Jundiz mendiaren balio arkeologikoa bultzatu eta ezagutzera eman nahi du, mendiaren inguruetan Jundiz eta Ariñez herriei eta Jundizko San Joan ermitari dagozkien aztarnategiak baitaude. Aztarnategiak dauden guneak argi eta garbi mugatu eta gero, proposamenak mendia bisitatzeko ibilbideen sorkuntza aurreikusi du, elementu didaktiko eta kulturalekin, mugarri txikien antzera eremu horretako aberastasun arkeologikoa eta indusketak burutzeko erabiltzen diren prozedurak ezagutzera emateko.

N-I eta N-102 errepideen arteko elkargunean, eraikuntza handia eta adierazgarria kokatu ahal izango litzateke erakunde publiko eta kulturaletarako, eta konbentzio, erakusketa, ospakizun eta abarretarako esparru izateko. Horrez gain gune arkeologikoaren elementu nagusi izan beharko luke, gai hori erreferentziatzat hartutako jarduera guztiak bilduz.

Jardueraren hego-ekialdeko eta ipar-mendebaldeko saihetsek beren tratamenduan lekuaren ingurumenak dituen berezitasunei erantzun beharko liekete eta lehendik dauden eta aurreikusita dauden jardueren garapen kualifikatua bultzatu. Hala eta guztiz ere, EAEko trenbide-sareari dagokionez Lurraldearen Arloko Planak onartutako trazak, abiadura handiko linea berrirako, izugarri baldintzatzen du lurzoru horien ahalatasuna, eta batik bat ipar-mendebaldean dauden horiena, diagonaletik zeharkatzean esparruaren erdiko gunean eragina baitauka.

Jarduera hori garatzeko garaian lagungarriak izango dira Vitoria-Gasteizko eta Iruña Okako Plan Orokorrek lurzoru industrialari buruz egindako aurreikuspenak eta Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean definitutako ekimen publikoak (Plataforma Logistiko Intermodala; Garraio eta Salgaien Banaketa Jardueretarako Poligonoa; eta, Jundizko poligonoaren zabalkuntza eta kontsolidazioa), ingurunean eragina izanik.

4. Aplikaziorako irizpideak

Nahitaez kontuan hartu beharrekoak:

Orokorrak

- Eragiketa Estrategiko honen lurraldearen antolamenduak bereziki aintzat hartuko du eremu batzuek uraldi desberdinetan duten ureztagarritasunaren arazoa, are gehiago Vitoria-Gasteizko akuifero kuarternarioaren gainean kokatuta daudela kontuan hartuta, eta ezaugarri horrekin bat datorren azpiegitura arloko proposamena eta erabilerak antolatzekoa diseinatuko du.

Erabilerei buruz

- Iruña Oka eta Vitoria-Gasteizko udalerrien arteko plangintza bateragarri egingo da, Subillabide eta Jundizen artean dauden hutsuneetan, esparru horretan dauden aztarnategi arkeologikoen aktiboari balioa emanez.
- Ipar-mendebaldeko saihetsa produkzio-jardueretarako izango da, orain dauden ezarpenen eta plangintzaren aurreikuspenen arabera.
- Jundiz mendiari balioa emango zaio, balio arkeologiko handiko esparrua den aldetik. Hezkuntza eta kultur ibilbideak sortuko dira, ingurunearen kalitate arkeologikoak ezagutzera emango dituzten mugarri txikiekin, Villodas eta Trasponete artean kokatuta dagoen balio handiko aztarnategia barne dela.

Azpiegiturei buruz

- Errepide arloko organo eskudunak, Etxabarri-Ibiña – Armiñon lotura Berrikuntzaren Arkuan zeharreko igarobidean ebazteaz gain, haren eta Arkuko piezen eta Vitoria-Gasteizen arteko konexioaren eta erlazioaren arazoei konponbidea eman beharko die.
- N-I eta N-102 errepideen arteko topagunea arretaz ebaztea, bi bideen trazaduraren norabideek baldintzatua.
- Trenbideko ezponden tratamenduak trena jarduerara ahalik eta ondoen integratzea bermatu beharko du, berdeguneetara lotzea ahalbidetuko duen paisaiaren tratamendua ziurtatuz.
- Esparruan zehar igarotzen den Santiago bidearen tarteak jardunean barne hartzea (Monumentu Maltzo deklaratu).

Gomendioak:

Erabilerei buruz

- N-I autobia N-102 errepidearekin elkartzen den gunean eraikin adierazgarri baten eraikuntza bultzatzea, lurralderako “sarbide” gisa jardungo duen izaera sinboliko handiko espazioa izanik.
- Ipar-mendebaldeko produkzioguneak zerbitzuen eta erakusleiho gisa jardungo duen industriaren ezarpena aztertu beharko luke, N-I autobia eratzeko.
- Jardunaren hego-ekialdeko saihesta lurzoruaren kontsumo handiko hornikuntza-jardueretarako erabiltzea gomendatzen da. Ezar litezkeen kirol-instalazioetan, kirol tradizionalenak eskaini ahal izango liriateke, hipikaren kasuan bezala hedadura handiak behar dituzten beste kirol batzuekin batera. Hala ere, instalazio horiek erabilera publikoko kirol-hedadura batekin osatu beharko liriateke, batez ere ipar-ekialdean, N-1 eta N-102 errepideen arteko elkargunean kokatutako eraikuntza adierazgarriarekin estu lotuta.
- Erabilera tertziarioen ezarpena baloratzea N-I eta N-102 errepideen arteko elkargunearen parean.
- Jundiz mendian “bisita daitekeen eremu” izaera berrirako beharrezko zerbitzuak antolatzea iradokitzen da, mendiaren oinean.
- N-I autobia ekialdeko eta mendebaldeko saihestetan zerrenda berde jarraitu bat sortzen ahalegintzea, batetik, bidetik Jundizko Poligonoaren hedadura aurreikusita dauden jardura ekonomikoak bereizteko eta, bestetik, Eragiketa Estrategiko honen esku-hartzeekin egituraketa-elementu gisa jarduteko.
- Antolamenduan orain dagoen landaredia autoktonoa mantendu eta integratzen saiatzea.

Azpiegituri buruz

- Jundiz mendian, esparruaren barrualdetik ibilbide desberdinak proposatzea — ibilbide horien hasieran aparkalekuak aurreikusiz—, bisitatzeke ordezko aukerak ahalbidetuz.
- Aparkatzeko eremuak ingurunean integratuta geratu beharko liriateke, horietarako tamaina mugatu bat mantenduz, eta hala badagokio zatikatuz xede horretarako azalera handiak ager ez daitezten.

5. Organismo sustatzailea

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila eta Kultura Saila. Arabako Foru Aldundiko Hirigintza eta Ingurumen Saila, Herrilan eta Garraio Saila eta Toki Administrazioaren Saila. Udalak.

Eragiketa Estrategikoa OE-4 ARAIKO HIRIGUNEA FINKATZEA

Determinazio lotesleak

1. Kokapena

Zatia: C-3.

Udalerria: Asparrena.

2. Eraginpeko lurzoruaren sailkapena plangintzaren arabera (UDALPLAN)

Lurzoru urbanizaezina.

3. Xedea

Esku-hartzeak Araiaren pisu erlatiboa handitu nahi du —Araba Erdialdeko hiri-sistemaren barruan udalerrinari emandako hierarkiarekin bat etorritz— izaera desberdina izango duten aldi bereko jardueretan oinarrituta, eta ingurumenari dagokionez inguruneak dituen kalitateak aprobetxatzen eta agerian uzten saiatuz.

Esparru horretan Ajuria Urigoitiko burdingintzako planta zaharraren pabilioiak egoteak, ingurumenari dagokionez kalitate handikoa den eta ikuspegi zoragarriak eskaintzen dituen kokalekuan ezarrita, aukerako lekua adierazten du hornikuntzagune bihurtzeari begira, interes kultural handiko ondare industriala berreskuratzen eta, aldi berean, ingurunearen susperraldi soziala eta ekonomikoa bultzatzen lagunduz.

4. Aplikaziorako irizpideak

Nahitaez kontuan hartu beharrekoak:

- Araian egoitza-garapen berria sortzea etxebizitzaren kopuru jakin bat bertan barne hartzeko. Etxebizitzaren kopurua c1, c2, c3 eta c4 osagaietatik eratorritakoa izango da, Erregulazio Orokorraren “RNC-5. Egoitza-kuantifikazioa” atalean bildutako formularen arabera.
- Hiri-garapenaren egitura indartzea, hazkunde-norabide berriak sortuz, eta betiere Erregulazio Orokorraren “RNC-5. Egoitza-kuantifikazioa” atalean ezarritakoari jarraituz.
- Hirigunerako sarrera kualifikatzea, espazio libre handiez inguratutako erabilera berezi bat ezarriz. Hornikuntza-espazio baten sorkuntzak, berdeguneetan jarduera osagarriak ezarriz, sarbidea hierarkizatuko du N-I errepidetik, berez kontuan hartzekoa izanik Asparrena-Donemiliagako instalazio industrialen kokapena ikusita.
- Esparruan zehar igarotzen den Santiago bidearen tartea jardunean barne hartzea (Monumentu Multzoko deklaraturia).



Gomendioak:

- Altzairu-fabrika zaharrearantz abandonatuta dauden instalazioak berreskuratzeko aukera aztertzea gomendatzen da, hain zuzen ere instalazio horietan eskualde-hedadura izango duen hornikuntza-erabilera bat kokatzeko.
- Bertan garatuko diren jardueren aukeraketa nahitaez arreta handiagoaz aztertu behar bada ere, bere bideragarritasuna ziurtatzeko alegia, dagokion garapenari begira ondoren adierazten diren iradokizunak kontuan hartzea gomendatzen da:
 - Arte plastikoen (musika, dantza, pintura, eskultura, zinea eta abar) abangoardiako zentro bat kokatzeko aukera kontuan hartzea, bertan jarduerak artistiko esperimentalak ikertu, aztertu eta sortzeko aukera eskainiz.
 - Zentroa eskaintza nagusia zabalitzen lagunduko duten erabilera osagarriak barne hartzeko moduan antolatzea.
 - Ezarrita dagoen lekuaren kalitate bisualak sendotzea, paisaia behatzeko guneak behar bezala banatuz.
 - Aparkatzeko izango den gunea lekuak ingurumenari dagokionez dituen ezaugarrietara egokitzea, ingurunean eragin negatiborik izango ez duela ziurtatuz eta hori ezinezkoa balitz beharrezko neurri zuzentzaileak aplikatuz.
- Egoitza-hazkundera ipar-mendebalderantz bultzatzea komeni den baloratzea, lurraldearen izur leunen arabera, ingurunean dagoenaren ordezkia izango den egoitza-eskaintza agertzen lagunduz.

5. Organismo sustatzailea

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila. Arabako Foru Aldundiko Hirigintza eta Ingurumen Saila eta Toki Administrazioaren Saila. Udala.



Eragiketa Estrategikoa OE-5 GESALTZA-BERGONDA-ESPEJOKO LURRALDEAREN ARTIKULAGUNEA

Determinazio lotesleak

1. Kokapena

Zatia: A-4.

Udalerrriak: Valdegovia, Añana.

2. Eraginpeko lurzoruaren sailkapena plangintzaren arabera (UDALPLAN)

Lurzoru urbanizaezina.

3. Xedea

Espejo-Gesaltzako lurraldearen espazioa indartzea, Lautada-Haranak eta Mendialdea-Haranak eskualdeko konexio handien elkarguneetan egituraketarako errotula gisa jardun ahal izateko.

Foru Aldundiaren planen ildotik, esku-hartzeak Gesaltza-Añanan gatza ateratzeko erromatarren garaitik dagoen terraza-multzoa zaharberritzeko lanak barne hartzen ditu, produkzio-xedeetarako nahiz kultur eta turismoaren ikuspegitik aprobetxatzeko.

Lurraldearen erakargune bat sortzeko estrategiarekin bat etorritik, lurralde honetan eskualde-mailako jarduera ekonomikoetarako lurzoruak sortzeko ekimen bat dago.

4. Aplikaziorako irizpideak

Nahitaez kontuan hartu beharrekoak:

- Abiapuntu gisa, eremu honetako jardunek Gesaltza-Añana - Arreo-Caicedo Yusoko Lakuko inguru hezearen eta lurpeko kargatze-sistema hidraulikoaren babesa bermatu beharko dute.
- Lurraldearen espazio honetan egoitza-garapena bultzatzea, populazioari dagokionez enklabeari pisua emango dion etxebizitzaren kopuru jakin bat aurreikusiz. Etxebizitzaren kopuru hori c1, c2, c3 eta c4 osagaietatik eratorritakoa da, hain zuzen ere Erregulazio Orokorren "RNC-5. Egoitza-kuantifikazioa" atalean deskribatutakoa.
- Valdegoviako Donuts poligonoa jardunaren antolamendu orokorrean barne hartzea, bere zati gisa.
- A-2622 eta A-2625 errepideen arteko elkargunean hornikuntza-eremu baten kokapena aurreikustea, Eskualdearen gune nagusi gisa jardun ahal izango duena

hegoaldetik bertara iristeko, eta Gesaltzako multzoak eta Valderejoko Parke Naturalak ordezkatzeko dituen haien erakargune osagarri bihurtu ahal izateko.

- Gatzaga-multzo bat sortzea Gesaltzako gatzagen arabera.
- Ingurumenari dagokionez inguruneak duen kalitatea ikusita, bertan ezarriko diren jarduerak arreta handiz aztertu beharko dute ingurunearen gainean izango duten eragina, eta dentsitate txikiko eta eraikuntza-kalitate handiko espazioak sortzeari ekin beharko diote.

Gomendioak:

- A-2622 eta A-2625 errepideen elkargunearen inguruan, proposatutako hornikuntza-eremua eta industria-poligonoa barne, esparru berezi bat sortzeko bideragarritasuna aztertzea, antzeman daitekeen nortasuna izango duena, eta lurraldean eragina izango lukeena, Valderejoko Parkea eta Sobrongo erreserba osatuz, ingurumenari dagokionez balio handiko "parkeetatik" ibilbide bat sortzea ahalbidetuko lukeena (horietako bakoitzean eragina izan dezakeen lege-erregulaziotik harantz), Haranen eskualdearen bereizgarri izateko.
- Gesaltzako gatzagak lehengoratzeak lan handia adierazten du, eta bere hedadura bideragarritasunari buruzko azterlan sakon eta xehatu baten bidez bakarrik zehaztu ahal izango da. Beraz, gatzaga-multzoaren sorkuntza azterlan honen emaitzetara geratuko litzateke mugatuta. Hala ere, honako hauek hartu beharko lirateke kontuan:
 - Orain dauden larrainen instalazio zaharraren produkzioa zaharberritu eta mantentzea.
 - Hezkuntza eta kultur multzo bat sortzea, gatza lortzeko prozedura zaharraren deskribapenean oinarritua, ustiatzen diren larrainek osatutako "museo biziaren" irudia osatu ahal izango duena.
 - Instalazioetatik ibilbide gidatu bat ezartzea, eta produktu batzuen salmenta antolatzea turismoa erakartzeko osagarri gisa: gatzaren "lorea", argitalpenak eta abar.
 - Babeserako plan bat diseinatzea, gatzaga-multzorako sarbide librea mugatuko duena.
 - Gatza lortzeko prozesuan erabiltzen diren tresnak ikusgai jarrita izango dituen museo txiki bat sortzea, denboran zehar izan diren aldaketa teknologikoak, gatzaren aplikazio anitzak eta abar ezagutzera emango dituen.
 - Gatza erein eta biltzeko prozesuan haur eta gazteek parte hartu ahal izateko aldi baterako jarduerak antolatzea.
 - Inguruneko landaredia halofiloan arreta berezia jartzea.
 - Aparkalekuen eremuak ondo ebaztea, ingurunean behar bezala integratuta geratzeaz gain, gatzaga-multzoaren jarduerak eta hirigunearen antolamendu funtzionala ez eragozteko moduan.



- A-2625 errepidearen saihasbidea egiteko lanak bultzatzea gomendatzen da, Espejoko hiriguneko zeharbidea saihesteko; horretarako, bide-azpiegituren arloan eskumena duten organoek xedatzen dutenari jarraitu beharko zaio.

5. Organismo sustatzailea

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila eta Nekazaritza eta Arrantza Saila. Arabako Foru Aldundiko Hirigintza eta Ingurumen Saila, Nekazaritza Saila eta Toki Administrazioaren Saila. Udalak.

Eragiketa Estrategikoa OE-6 AGURAINGO LURRALDEA FINKATZEA

Determinazio lotesleak

1. Kokapena

Zatia: C-5.

Udalerria: Agurain, Donemiliaga, Asparrena.

2. Eraginpeko lurzoruaren sailkapena plangintzaren arabera (UDALPLAN)

Lurzoru urbanizaezina. Lurzoru urbanizagarria.

3. Xedea

Aguraingo hirigunean garapen berriak bultzatzea, bertako lurraldearen pisua eta Araba Erdialdeko hiri-sisteman duen hierarkia areagotzeko modu gisa.

Aguraingo gunea finkatzeko estrategien barruan, Asparrenan eta Donemiliagan, N-I autobiaen ingurunean jarduera ekonomikorako lurzoruen ekimenak kokatzen dira.

4. Aplikaziorako irizpideak

Nahitaez kontuan hartu beharrekoak:

- Agurainen egoitza-garapen berria sortzea. Bertako etxebizitzaren kopurua c1, c2, c3 eta c4 osagaietatik eratorritakoa izango da, Erregulazio Orokorren "RNC-5. Egoitza-kuantifikazioa" atalean biltzen diren irizpideetan deskribatutakoak izanik.
- Agurainen eta N-I autobiaen ingurunean, alegia Asparrena-Donemiliagan, proposatutako hirigintza-hazkunde industrialen loturarik gabeko garapena funtsezkotzat jotzen da, baita sendotu beharreko hutsune positibo gisa hartzea ere.
- Asparrena-Donemiliagako esparruko lurraldearen erabilgarritasunak Erreserba Estrategikoaren izaera ematen dio lurralde honi, lurzoruen hedadura handiak eskatzen dituzten jarduera ekonomikoak etorkizunean ezartzeko.
- Agurainen mendebalderantz hasitako produkzio-jardueren ezarpena finkatzea, erabilera tertziarioen eta produkzioerako zerbitzuen gunen nagusi bat sortzea bultzatuz, N-I autobiaen alboan.
- Esparruan zehar igarotzen den Santiago bidearen tartea jardunean barne hartzea (Monumentu Maltzo deklaratu).

- Eragiketa hau Zadorra Sistemako Urtegien inguruetan kokatzen denez, egoitza eta industriako garapenek arreta berezia jarriko dute isurketa-sistemetan, inguruak poluitzea eragotziz.

Gomendioak:

- N-I autobiarene eta N-I errepidearen traza zaharraren arteko elkargunea birmoldatzea, mendebaldetik hirigunerantz benetako “sarbidea” sortzeko, jarduera ekonomikoetarako dagozkion garapenen bidez.
- N-I autobiatik hirigunerako dagoen sarbide nagusia birmoldatzea, Mendialdeko Zatiarekin lotzen den A-2128 errepidearekin elkartzen den gunean.
- Egoitza-garapenaren hedadura ipar-mendebaldeko koadranterantz bultzatzea komeni den baloratzea, espazio mistoak sortzea ahalbidetuz eta jarduera ekonomikoen eremuarekin egituraketa-espazio libre bat aurreikusiz.
- Hego-ekialdeko koadrantean, loturaren inguruan —birmoldatu beharko litzatekeena—, espazio industrial berri baten garapena bultzatzea, eta salgaien garraioari eta logistikari lotutako jarduerak kokatzea, tren-geltokiari lotuta.
- Eskariaren oraingo eskakizunak kontuan hartzea, egoitza-espazio berriei dagokienez nahiz jarduera ekonomikorako eskaini nahi diren horiei dagokienez. Espazio libreek duten garrantzia eta edozein erabileratan hornikuntzak eta zerbitzuak antolatzeak duen garrantzia baloratzea.
- N-I/A-2128 loturan hornikuntza-espazio baten kokapena aztertzea, dagokion balio sinbolikoa areagotu ahal izango lukeena eta Mendialderako “sarbide” gisa jardungo lukeena.
- N-I autobiarene ertzean paisaia-tratamendua burutzea, diseinu unitario baten proiektua izango den aldetik garapen berrien elementu egituratzaile eta kualifikatzaile gisa jardungo duena; bere paisaia-balioa dela-eta, N-1 autobiarene hegoalderantzko eraikuntza-kolonizazioa espresuki aztertzea.
- Basoak berritzean espezie autoktonoak erabiltzea.

5. Organismo sustatzailea

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila. Arabako Foru Aldundiko Hirigintza eta Ingurumen Saila, Herrilan eta Garraio Saila eta Toki Administrazioaren Saila. Udala.

Eragiketa Estrategikoa OE-7 EGUILETAKO LURRALDEAREN ARTIKULAGUNEA

Determinazio lotesleak

1. Kokapena

Zatia: B-6.

Udalerrriak: Vitoria-Gasteiz, Iruraiz-Gauna, Burgelu, Alegria-Dulantzi.

2. Eraginpeko lurzoruaren sailkapena plangintzaren arabera (UDALPLAN)

Lurzoru urbanizaezina.

3. Xedea

Mugatutako transformazio-prozesua bultzatzea, hegoaldeko Lautadaren esparrua dinamizatzea ahalbidetzeko, Mendialdeko Zatiekin lurraldearen artikulagune bat sortzeko kokaleku estrategikoan.

Esku-hartzea hegoaldeko Lautadaren lurralderako konexio-ardatzaren, A-132 errepidearen eta Ingurumenaren Aprobetxamendurako Ibilbidearen (Ekintza Egituratzaila AE-6) arteko elkargunean planteatzen da, Eguileta, Erenchun eta Ixonako hiriguneen artean mugatutako espazioa aprobetxatuz, baita azkena aipatutakoaren bi ardatz paraleloak ere, Andolluko inguruetaraino.

Esku-hartzea Erenchungo hirigunearen inguruetan kokatuko den hornikuntza-multzo bat ezarriz antolatu beharko litzateke, Lautadaren eta Mendialdearen artean estrategikoki kokatuta, "Vasco-Navarro" trenbide zaharraren plataformaren gainean proposatutako ibilbidearen gune nagusi eratu ahal izateko.

Ibilbidea gaika gidatuko den modua kontuan hartuta, gizakiaren aldetik natura aprobetxatzeko moduak eta prozesuak ezagutzeko aukera emango duena, ekipamendua ingurune naturala ustiatzeko era desberdinak bildu, interpretatu eta ezagutzera emateko gune gisa pentsatu da. Ibilbideak eskaintzen dituen hezkuntza-aukerei lotuta, zehazki Vitoria-Gasteiz eta Santikurutze Kanpezu lotuz, proposatutako ekipamenduak talde txikien alojamendua ahalbidetuko du, era berean, dagokion alderdi didaktikoan gizakiak denboran zehar ingurunearen gainean izan dituen esku-hartze desberdinak erakutsiz, emaitzei —laboreak, harrobia, abaraska, transformazioak— nahiz prozedurei —narra, errota, siloa, traktorea eta abar— dagokienez.

4. Aplikaziorako irizpideak

Nahitaez kontuan hartu beharrekoak:

- Inguru honetako jardunetan lehentasuna eman behar zaio nekazaritzako labore desberdinen, ongi kontserbatutako baso autoktonoen eta eraikuntza-tipologia



tradizionaleko landagune txikien nahaste harmoniatsua bereizgarritzat duen landa-paisaia zaintzeari eta indartzeari.

- Ingurunearen interpretazio-zentro bat sortzea, hezkuntzaren ikuspegitik hasiera batean “Vasco-Navarro” trenbide zaharrak zeharkatutako Lautadaren eta Mendialdearen lurraldeei lotuta.
- Aldi baterako alojamenduen garapena ahalbidetzea —ingurumenaren gainean eragin txikia edo deuseza izango duten gazteentzako aterpetxeak edota gutxieneko zerbitzuak izango dituzten kanpalekuak— oinezkoen eta zikloturisten ibilbide tematikoari lotuta.
- Jarduera-eremuaren ipar-mendebaldean erabileren intentsitatea eta mota kontrolatzea, hain zuzen ere akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun-maila handia duten lurzoruetan. Esku-hartzeek arloko berariazko araudian bildutako determinazioak errespetatu beharko dituzte.
- Espazio libreen tratamenduan arreta berezia jartzea, betiere ingurunearen espazio naturalen antzeko tratamendua emanez. Espazio horietarako landare-espezie autoktonoak erabiliko dira.

Gomendioak:

- Dentsitate txikiko egoitza-espazioen garapena ahalbidetzea, “RNC-5. Egoitza-kuantifikazioa” Hazkunde Berrien Erregulazioan bildutako irizpideen arabera kokatutakoak, hornikuntza-espazioen ezarpenarekin batera.
- Hiriguneetako etheen erabilera posiblea aztertzea, ibilbide tematikoaren erabiltzaileei ostatua emateko behin birgaitu ondoren.
- Lautadaren hedadura handi bat behatzea ahalbidetzen duen enklabearen paisaia-baliabideak aprobetxatzea.
- Paisaiari dagokionez balio handia izango duen ingurunea eraikitzea —“quercus robur” bezalako zuhaitz-espezieak erabiliz, gaur egun Lautadan ia desagertutakoak—, ingurumenari eta ikusmenari dagokienez lurraldearen mugarri bihurtu ahal izateko moduan.
- Zikloturisten ibilbideei lotutako zerbitzuak barne hartzea, bizikleta ibilbidea egiteko asko erabiltzen den bitartekoa izango dela igartzen den guztietan.

5. Organismo sustatzailea

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila. Arabako Foru Aldundiko Hirigintza eta Ingurumen Saila, Nekazaritza Saila eta Toki Administrazioaren Saila. Udalak.

Eragiketa Estrategikoa OE-8 IZKIKO INGURUMENAREN INTERPRETAZIO ZENTROA

Determinazio lotesleak

1. Kokapena

Zatia: C-6.

Udalerrriak: Arraia-Maeztu.

2. Eraginpeko lurzoruaren sailkapena plangintzaren arabera (UDALPLAN)

Lurzoru urbanizaezina.

3. Xedea

Eremuan garatutako erabileren ezaugarriak aniztea, Izkiko Parke Naturalak lurraldean duen pisua indartuz eta naturak eta ingurumenaren balioek ingurunean duten eragina areagotuz.

Izkiko Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren determinazioak bilduz, Korresen "ingurumenaren interpretazio zentro" bat ezartzea aurreikusi da, nekazaritza-balio txikiagoa duten lurzoruak aprobetxatuz eta Parkeko Harrera Zentroa indartuz.

Lurraldean erakargune bat sortzeko estrategiarekin bat etorriz, bertan eskualde-mailako jarduera ekonomikoetarako lurzorua sortzeko ekimen bat dago burutzeko.

4. Aplikaziorako irizpideak

Nahitaez kontuan hartu beharrekoak:

- Nekazaritzako laboreen mosaikoak, interes nabarmeneko inguru heze txikiek eta kontserbazio-egoera ezin hobean dauden zuhaitz-eremu autoktonoek osatzen duten kalitate handiko landa-paisaia zaintzea edo babestea. Arreta berezia eskaini beharko zaio Izkiko Parke Naturalaren inguruari eta bertako puntu adierazgarrienen eta bisitatuenen ikus-arroari.
- Egoitzen garapenak inguruko lurzoruetako ingurumen- eta produkzio-balioak mantentzearekin eta hobetzearekin eta Maeztuko kubeta diapirokoaren zaintzarekin lotzea.
- Eraikinen tipologiek, berariazko baldintzarik jarri gabe, planteatutako helburuetara ondoen egokitzen direnak eta ingurunean ondo integratzen direnak izan beharko dute. Betiere, egoitza-garapenak alderdi esperimental nabarmena ekarri beharko du berekin.

- Ingurumenaren Interpretazio Zentro bat sortzea, Korres herrian kokatua, Izkiko Parke Naturalaren ingurune urrakorraren informazioa eta erabilera-gakoak eskainiko dituena:
 - Zentro-mota horien programen ildotik, informazio eta kontsultarako zerbitzuak izan beharko ditu eta jarduera kulturaletan eta turistikoetan oinarrituta antolatuta egon beharko du. Bere hezkuntza-edukiaz gain, Ingurumenaren Interpretazio Zentroak eremu horretako garapen sozio-ekonomikoa suspertuko du, betiere ingurumena errespetatuz, eta horrez gain dagokion berariazkotasuna eskainiko dio bere tarteetako batean Mendialdea zeharkatzen duen Ingurunearen Aprobetxamendurako Ibilbideari.
 - Parkearen ingurunean erabat integratuta egon beharko du, ingurumenari lotutako balioekiko errespetuaren mugari sinboliko gisa eratuz.
- Arloko berariazko araudian bildutako aginduak errespetatzea, esku-hartzea neurri batean akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun-maila ertaina duten lurzoruetan oinarritzen dela kontuan hartuta.
- Ingurunearen kalitatea ikusita, bertan kokatu ahal izango diren jarduera ekonomikoetarako lurzoruetan xehetasunez aztertu beharko da jarduera horien ezarpenak ingurumenaren gainean izan dezakeen eragina, dentsitate txikiko eta eraikuntzen kalitate handiko espazioak eratzea aukeratuz.

Gomendioak:

- Erabilera mistoen ezarpena baimentzea komeni ote den ere baloratuko da, bereziki zonan planteatutako helburuekin lotutako hornikuntzei eta produkzio-jardueri dagokienez. Ingurunearen kalitatea ikusita, bertan kokatu ahal izango diren jardueretarako xehetasunez aztertu beharko da jarduera horien ezarpenak ingurumenaren gainean izan dezakeen eragina, dentsitate txikiko eta eraikuntzen kalitate handiko espazioak eratzea aukeratuz.
- Egoitza-espazioari dagozkion ekipamenduak Maeztun kokatu ahal izango dira, orain dagoen gunearen pisu erlatiboa sendotuz.
- Ingurunea basoz hornitzean edo hala badagokio landaredi estalkia zaharberitzean erabilitako landare-espezieak gehienbat autoktonoak izango dira eta Izkiko inguruak ezarri ahal izango dituen baldintzak bete beharko dira.
- Ingurumenaren Interpretazio Zentroari dagokionez, aparkatzeko izango diren espazioen diseinua zaindu beharko da, ikusmenarentzat eta ingurumenarentzat ahalik eta eragin txikiena izateko moduan eta landare autoktonoak barneratuz.

5. Organismo sustatzailea

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila eta Nekazaritza eta Arrantza Saila. Arabako Foru Aldundiko Hirigintza eta Ingurumen Saila, Nekazaritza Saila eta Toki Administrazioaren Saila. Udala.

Eragiketa Estrategikoa OE-9 HEGOALDEKO ARKUKO JARDUERA EKONOMIKOAK

Determinazio lotesleak

1. Kokapena

Zatia: B-8.

Udalerrriak: Erribera Beitia, Armiñon, Lantaron.

2. Eraginpeko lurzoruaren sailkapena plangintzaren arabera (UDALPLAN)

Lurzoru urbanizaezina. Lurzoru urbanizagarria. Hiri-lurzorua.

3. Xedea

Lurraldean erakargune bat sortzea, aukeratu den kokalekuak adierazten duen aukerako eremuaren kalitatea indartuz, eta horrela Armiñon eta Erribera Beitiko udalen baterako ekimena bermatuz eremu horretan jarduera ekonomikoak ezartzeari begira.

4. Aplikaziorako irizpideak

Nahitaez kontuan hartu beharrekoak:

- Eremuaren barne-egitura Arabako Errepideen Plan Integralean planifikatu eta programatutako jardueren arabera antolatzea. Era berean, Miranda de Ebroko saihebidetaren behin betiko soluzioa kontuan hartuko da.
- Jarduera ekialderantz eta hegoalderantz hedatzeko aukera —Armiñon eta Erribera Beitiko udalek aurreikusitakoa— Eragiketa Estrategiko honen alde aurreko garapenaren mende jartzea eta, hala badagokio, antolamenduaren euskarri gisa egitura luzatzearen eta horretarako ezarritako gainerako determinazioen mende baita ere.
- Komunikazio-ardatz handiekiko alboan kokatuko den arren, lurraldearen erabilgarritasunak Erreserba Estrategikoaren kalitatea ematen dio Lantarongo esparruari.

Gomendioak:

- Esparruan ezar daitezkeen jarduera ekonomikoen bilduma zabaltzeko komenigarritasuna kontuan hartzea, oraindik ere oso lotuta daudelarik garraioarekin, trukearekin eta logistikarekin zerikusia duten jarduerak ezartzeko udal asmoarekin. Lurraldearen Zatik Planak Jundiz/GGZren / Logistika, produkzio eta aireportuaren espazio berriaren osagarritasunaren alde apustu egin du jarduera

horiek ezartzeko. Arreta berezia jarri beharko litzateke funtzionalki osagarriak diren espazioen sorkuntzan, lurralde osoan sinergia positiboak hedatu ahal izateko.

- Produkziogune modernoek sorkuntza bultzatzea, antolamendu funtzionalari, ingurumenaren kalitateari eta eraikinen tipologiari dagokienez eskariaren ezaugarri berrietara erantzun erantzungo dietenak.
- Bide- eta trenbide-azpiegiturekiko loturako ertzen tratamendua zaintzea.

5. Organismo sustatzailea

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila. Arabako Foru Aldundiko Hirigintza eta Ingurumen Saila, Herrilan eta Garraio Saila eta Toki Administrazioaren Saila. Udalak.

Eragiketa Estrategikoa OE-10 PEÑACERRADA-URIZAHARREKO HORNIKUNTZARAKO LURRALDE ESPAZIO BERRIA

Determinazio lotesleak

1. Kokapena

Zatia: B-9.

Udalerria: Peñacerrada-Urizaharra.

2. Eraginpeko lurzoruaren sailkapena plangintzaren arabera (UDALPLAN)

Lurzoru urbanizaezina.

3. Xedea

Mendialdea-Haranak konexio-ardatzaren eta "AE-7. Arabako hegoaldeko eskualdeen arteko ibilbidea" Ekintza Egituratzailan aurreikusitako ibilbide tematikoaren arteko elkargunean egituraketarako errotula gisa jardun ahal izango duen lurralde-espazio bat sortzea, bere bitartez Lautada - Condado de Treviño - Arabako Errioxa arteko loturak sendotzeko.

Esku-hartze honen bidez lurralde-espazio honen erakargarritasuna areagotu nahi da, Peñacerrada-Urizaharraren inguruan jarduera bultzatuz eta anbar-hobiari lotutako hezkuntza eta kultur ekipamendu baten sorkuntzan oinarrituz. Erauzketa-lanetan ez tartekatzearren, eta beraz bisitatzeko izango diren ibilbideak hobitik desbideratuz, Peñacerrada-Urizaharra anbarra ezagutzeko erreferentziako gun e bihurtu nahi da, horrez gain sustapen sozio-ekonomikoan lagunduz.

4. Aplikaziorako irizpideak

Nahitaez kontuan hartu beharrekoak:

- Udalerrriaren egoitza-jarduera bultzatzea, abandonatuta edo hutsik dauden etxebizitzak berreskuratzen eta okupatzen lagunduko duten ondare eraikia birgaitzera, ingurumen-hobekuntzak egitera eta zerbitzuak ezartzera zuzendutako politikak sustatuz batik bat.
- Peñacerrada-Urizaharra eta Pagoetaren artean kokatuta dauden balio agrologiko handiko lurzoruak okupaziotik babestea.
- Peñacerrada-Urizaharreko hirigunearen inguruetan Anbar Zentro bat sortzea, anbarra eratu eta garatzen deneko prozesuak eta erauzketarako erabiltzen diren prozedurak aztertu ahal izateko, gertuko hobiaren erreprodukzio bate martxan jartzea eta anbarrezko piezak bilduko dituen museoa behatzeko aukerarekin.



- Hornidura berriari harrera egingo dion eremua antolatzea, funtzionamendu ezin hobea bermatuko duten erabilerak bere baitan hartu ahal izateko moduan.
- Ekipamendu berriaren inguruan ingurumenari eta paisaiari dagokienez balio handikoa izango den espazio librea sortzea, egonaldiatarako jardueren garapenera egokitua.
- Jarduera-eremua akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun-maila ertaina duten lurzoruetan oinarritzen da eta, B-9 Zatiaren gainerako lurzoruen urrakortasun-maila handiarekiko eta oso handiarekiko arriskua txikiagoa izan arren, arloko berariazko araudian bildutako aginduak errespetatu beharko dira.

Gomendioak:

- Anbar-hobiaren erreserbak agortuzat emango balira eta turismo-fluxuetatik babesteak zentzurik izango ez balu, Anbar Zentroa bertan sortzeko aukera kontuan hartzea. Dena den, irisgarritasunaren eta hirigunearekin sor litezkeen sinergien ondorioz, bertatik hurbilago kokatzea komenigarriagoa dela dirudien arren, ez litzateke baztertu behar benetako hobia modu osagarrian berrerabiltzea.
- Anbar Zentroaren sorkuntzaren osagarri gisa dagozkion berezitasunak hedatu eta ezagutzera emateko kanpaina bat egitea. Era berean, udalerrriak bisitariek harrera egiteko beharrezko azpiegitura antolatu beharko luke.
- Anbar Zentroaren instalazioak bisitariei edo ikertzaileei eta lekuan denbora luzeagoan (gaua bertan emanez) egoteko interesa duten talde bereziei ostatu ematera zuzendutako aldi baterako egoitza-jarduerekin osatzearen egokitasuna aztertuko da. Jarduera horiek inguruetakoko landaren eta ondarearen xarmarekiko interesarekin osa litezke.
- Behar diren aparkalekuen ebazpenean arreta berezia jartzea, ezartzen diren ingurunean eta zerbitzua ematen duten lekuan integrazio-maila handiena eta egokiena bilatuz.
- Ingurua landare berriez hornitzean landare autoktonoak erabiltzea.

5. Organismo sustatzailea

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila eta Nekazaritza eta Arrantza Saila. Arabako Foru Aldundiko Hirigintza eta Ingurumen Saila, Nekazaritza Saila eta Toki Administrazioaren Saila. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila. Udala.

Eragiketa Estrategikoa OE-11 SANTIKURUTZE KANPEZUKO GARAPEN BERRIAK

Determinazio lotesleak

1. Kokapena

Zatia: B-9.

Udalerrriak: Kanpezu.

2. Eraginpeko lurzoruaren sailkapena plangintzaren arabera (UDALPLAN)

Lurzoru urbanizaezina.

3. Xedea

Santikurutze Kanpezuko hiriguneak lurraldean duen pisua sendotzen eta indartzen lagunduko duten egoitza-garapen berriak bultzatzea.

Jardueraren osagarri gisa, eta Kanpezuk inguruneko ingurumen-baliabideak aintzatetsi eta bereganatzeko, hornikuntzagune nagusi bat sortzea proposatu da, hurbiltasunagatik Izkiko Parke Naturalarekin eta Ingurunearen Aprobetxamendurako Ibilbidearekin (Ekintza Egituratzaila AE-6) duen lotura indartuko duena.

Lurraldean erakargune bat sortzeko estrategiarekin bat etorriko den ekimena bultzatzea, lurralde honetan eskualde-mailako jarduera ekonomikoetarako lurzorua sortzeko.

4. Aplikaziorako irizpideak

Nahitaez kontuan hartu beharrekoak:

- Santikurutze Kanpezuko egoitza-garapenari c1,c2, c3, c4 eta c5 osagaietatik eratorritako etxebizitzaren kopuru handiena eman beharko zaio, hain zuzen ere Erregulazio Orokorren "RNC-5. Egoitza-kuantifikazioa" atalean bildutako irizpide orokorretan deskribatutako osagaiak izanik.
- Egoitza-garapenaren osagarri gisa espazio ekipatu berezi bat sortzea, Izki eta Berron ibaiak elkartzen diren gunean kokatua. Honako hauek kontuan hartzea:
 - Espazio okupatuaren izaerak ingurunean proposatutako jarduerekin lotura izan beharko du, ingurumenaren balorazioarekin eta ezagutzarekin zerikusia izango duten jarduerak izanik.
 - Ingurunearen Aprobetxamendurako Ibilbidea hurbil dagoenez, leku horretan aldi baterako ostalua eskaintzeko aterpetxe bat aurreikustea gomendatzen da Parke Naturala bisitatzen dutenentzat, ibilbidea egiten dutenentzat edo egun



bat baino gehiagoko programa batean Mendialdeko eskualdearen hegoaldea zeharkatu nahi dutenentzat. Funtsean, oinez doazenentzat edo ordezko garraio bideak erabiltzen dituztenentzat izango litzateke.

- Ezaugarri arkitektonikoen eta erabilitako materialek inguruko eraikuntzekin bat etorri beharko dute, ingurunean erabat integratuta geratzearren.
- Enklabea landare berriez hornitzean espezie autoktonoak erabiliko dira, batik batik Izkiko Parke Naturala gertu egoteagatik bete beharreko baldintzak kontuan izanik.
- Ingurunearen kalitatea ikusita, ezarri ahal izango diren jardura ekonomikoek ingurumenaren gainean izango duten eragina aztertu beharko da, eta dentsitate txikiko eta eraikuntza-kalitate handiko espazioak sortuko dira.

Gomendioak:

- Egoitza-eskaintzak izan ditzakeen berezitasunak arreta handiz aztertzea.
- Ega ibaiaren eskuinaldeko ertzean egoitza-espazio berriak garatu daitezkeen bultzatzearen egokitasuna kontuan hartzea, A-126 errepidean oinarrituak eta errepide honetarako eta Santikurutze Kanpezuko hirigunerako barne-konexiorako bide batek mugatuak.
- Egoitza-erabilerak beste jardura misto eta bateragarri batzuen osagarri izateko aukera aztertzea, espazioa antolatze eta erabilera desberdinak batera egoteko eredu berriei jarraituz, bereizitako lurralde-espazio sortzea ahalbidetzeko.
- Hegoaldetik Izkiko Parke Naturalerako sarbide berria sustatzeko aukera kontuan hartzea, hornikuntza-espazio berrietik kontrolatutakoa, Santikurutze Kanpezu-Bujanda bidean oinarritu litekeena.

5. Organismo sustatzailea

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila eta Nekazaritza eta Arrantza Saila. Arabako Foru Aldundiko Hirigintza eta Ingurumen Saila, Nekazaritza Saila eta Toki Administrazioaren Saila. Udala.